# ttipi-ttapa

2015eko martxoaren 19a | XXXV. urtea | **634**. zenbakia www.ttipi.eus

**Nafarroako Bertsolari Txapelketa** → 35
Finala: martxoaren 28an Elizondoko pilotalekuan


**Ezkontza → 11-21** Gehigarri berezia

**LESAKA → 23** Kiroldegiko gimnasioa lekuz aldatuko dute

**HERRI KIROLAK → 25** Herri Kirol Jolasen saioa martxoaren 22an Igantzin

**SUNBILLA → 29** Herrietako eskolen V. Joko Topaketa martxoaren 31n

**BAZTAN → 53** Goñi eta Arizmendi paleta goman txapeldun


**19. KORRIKA** | Urepeletik Bilbora, martxoaren 19tik 29ra

# Ttipi-ttapa ttipi-ttapa Korrika!




→ 10

Ortziral honetan, martxoak 20, Ainhoan barna Urdazubira (09:51) sartuko da Korrika eta Baztanerako bidea hartuko du (12:06an Elizondon). Iruritatik Almandozera joanen da eta handik Iruñera. Larunbatean, martxoak 21, Uitzitik Leitzara (05:02) sartuko da. Arratsaldean, berriz, Irun aldetik Berarako bidea hartuko du (14:50), eta Lesaka (15:36) zeharkatuta Igantzira joanen da (16:12). Errepide zaharrean barna Etxalarrerako bidea (16:42) hartuko du eta berriz Berara joanen da. Ibardinen barna (17:48), Azkainetik pasako da eta Baionara bidean, Sara (19:48) eta Senperetik (20:37) pasako da.




## Arraza eta kultura aniztasunari begira

Munduko hainbat bazterretatik etorri diren atzerritarrengana hurbildu da TTIPI-TTAPA. Gehienak bizimodu hobe baten bila etorri ziren eta gure eskualdeko herrietan egin dute kabia, sorterritik milaka eta milaka kilometrotara. Filipinetatik Urrozera, Kubatik Leitzara, Errumaniatik Lesakara, Dominikar Errepublikatik Berara, Marokotik Elizondora, Txinatik Iruritara eta Errusiatik Sunbillara etorritakoak dira.

ERREPORTAJEA → 3-5

ZOZKETAK → 60




Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi **info@ttipi.eus** helbidera


GURE BASOEZ
HARRO
BIRZIKLATZEAZ HARRO
PLASTIKOZKO ONTZIAK LATAK ETA BRIKAK
PAPER ETA KARTOIZKO ONTZIAK
BEIRAZKO
Nafarroako Gobernua
ECOEMBES
EL PODER DE LA COLABORACIÓN
ecoembes.com
ZERBAITETAZ HARRO ZAUDENEAN, ZAINDU EGITEN DUZU. JARRAITU ONTZIAK BIRZIKLATZEN, INGURUMENA HOBETZEKO.


3. Kantu Zahar Afaria
MENDIKO SAGARDOTEGIA (IBARDIN)
APIRILAK 11, LARUNBATA 20:30
Parte hartzaileak:
ZUBIETAKO JOALDUNAK
BANKAKO MENDITARRAK (Abeslariak)
AITOR MENDILUZE (Bertsolaria)
UNAI AGIRRE (Bertsolaria)
EÑAUT AGIRRE
(Pernando Amezketarraren Bertsoak)
FRANZISKO SANTSOTENA (Eskujolea)
AITOR IBARRA (Tronpeta)
ANGEL MARIEZKURRENA
(Antolatzailea)
Afari eder bat + liburua
45€
IZEN-EMATEA: 948 630 302 | 670 365 011
MENDIKO
hirugarren urtebetetzea

GIZARTEA ➜ ATZERRITARRAK ESKUALDEAN

# Sorterritik milaka eta milaka kilometrotara daudenen ahotsa

## Bizimodu hobe baten bila eskualdera etorri diren atzerritarren lekukotasunak

Munduaren bertze puntatik eskualdera etorri eta hemen bizitzen jarri diren zazpi atzerritarrek diotena bildu du TTIPI-TTAPAk.

G. PIKABEA

Sorterritik milaka eta milaka kilometrotara, gure eskualdea aukeratu dute hainbatek bizileku. Ia guztiak bizimodu hobe baten bila etorri dira eta herrimina sentitzen dutela onartu arren, jaioterrira ez liratekeela itzuliko diote gehienek. Aunitz badira ere, horietako zazpirengana jo du TTIPI-TTAPAk: **Junwei txinatarra** duela bi urte eta erdi Iruritara etorri zen; **Sherwynd filipinarra**k ia bortz urte daramatza Urrotzen; **Osvaldo kubatarra** 2009ko abuztuan ailegatu zen Leitzara; **Daniela errumaniarra** Lesakan bizi da azken hiru urte hauetan; sortzez **marokoarra den Samira**k sei urte daramatza Elizondon bizitzen; **Elena errusiarra**k Sunbilla aukeratu zuen bizitzeko duela 15 urte eta uztailean zazpi urte beteko dira **Luz Celenia dominikarra** Berara ailegatu zenetik.




**Sherwynd DAVID SANTOS | FILIPINETATIK URROZERA**

### «Bizitzan sakrifizioak egin behar dira, familia urruti dut baina hemen lanean ari naiz»



Urrozko Txispekoborda baserrian topatu dugu Sherwynd, 38 urteko emakumezkoa, etxeko lanak egiten. Sortzez Filipinetako Manila hirikoa da, baina heldu den abuztuan bortz urte eginen ditu Urrozen. «Gustura» dagoela aitortu digu, nahiz eta 18 urteko semea eta senarra sorterrian dituean. Berak, ordea, argi du «bizitza honetan, sakrifizio pixka bat» egin behar dela, «urruti daude, baina hemen lanean ari naiz». Dena den, ama eta ahizpa Euskal Herrian ditu, «ama Hondarribian eta ahizpa Donostian, biak lanean». Eta bidean duen bigarren umea ere berekin du, dagoeneko besoetan ez badu. Amaren bitartez bilatu zuen Urrozen lana, eta bere besta-egunak, igande eta astelehenak, amarekin pasatzen ditu Hondarribian. Aukera duen aldi oro ere bisita egiten du Filipinetara: «urtero 45 bat egun pasatzen ditut». Hango egoeraz ere galdetu nahi izan diogu eta bere irudiko, «hedabideek Filipinetako egoera hagitz txarra erakusten dute», baina Sherwindek garbi utzi nahi izan digu «badirela toki pobreak baina ez direnak ere bai». Batekin eta bertzearekin solasean ikasi du gaztelaniaz, baina ez du ikastarorik egiteko denborarik izan: «ez dut hagitz maila ona», dio, «nagusiekin, etxeko haurrekin, amatxirekin eta etxera etortzen direnekin solas eginez ikasi dut dakidana». Eta ederki moldatzen da. Euskaraz, aldiz, ez. Onartu digunez, «euskaraz ikastea gustatuko litzaidake, batez ere, haurrekin aritzeko. Eskolako lanekin ezin izaten diet lagundu, eta hemen dena euskaraz egiten dute». Kontatu digu «euskaraz hitz batzuk ulertzen ditudala, baina hagitz zaila egiten zait ikastea». Nork daki, beharbada egunen batean hitzetatik haratago joanen da, eta gaztelaniaz ikasi duen bezala, euskaraz ere ikasiko du.

**Osvaldo PAEZ SERRALTA | KUBATIK LEITZARA**

## «Egunero euskaraz zerbait ikasten saiatzen naiz baina egunen batean ikasiko dut»



Kubako Consolacion del Sur herrian jaio zen duela 45 urte, baina 2009ko abuztutik Leitza du bizileku. Hemen lana bilatu zuen lehengusina baten gomendioei jarraituz, bera ere lan bila etorri zen Leitzara. Gogoan du Iruñetik autobus batean ailegatu zela, «pesten atarian, herria zoragarri zegoen». Sei hilabete behar izan omen zituen lana bilatzeko eta gaur egun, okindegian eta kiroldegian zunba klaseak emanez dabil: «kubatarra dantzaria da!», gaineratu du. Leitzan «oso gustura» bizi dela dio: «gaur egun guztiok ditugun kezkak baditut, baina oso pozik nago. Kubatik atera ondotik, ez dut uste Leitza baino toki hoberik dagoenik niretzat». Hitz ederrak baino ez ditu leitzarrentzat: «hasieratik hemengo jendea oso edukazio onekoa iruditu zitzaidan. Hasieran, pixka bat itxiak dira, baina benetan ezagutzen zaituztenean bizia ematen dizute. Oso pertsona solidarioak dira, bihozberak». Halere, «zuetako bat bezala gizarteratu nahi» duela aitortu digu: «zerbait gaizki egiten dudanean haizea hartzera bidali eta merezi dudanean besarkatu». Honela laburbildu digu, «hemengo jendea nire jendea da». Ia familia guztia sorterrian du. Baina gogorrena ez zaio hori egiten: «gogorrena negua eta herrimina egiten zaizkidala esan nezake, baina ez, gogorrena bizitzeko eta gastuak ordaintzeko lanik ez izateko eta nire jendeari laguntzeko egoeran ez egotea da». Familiaz «asko» oroitzen bada ere, «nire bizitzan sortu ditudan loturei eta kubatar bromari eusten saiatzen naiz. Hemen ere asko dantzatzen dut eta lagun asko ditut kubatar-euskaldun eran», dio umoretsu. Euskaraz ikasten ere ari da: «kurtso bat egin nuen, eta aurten lanagatik ezin dudan arren, egunerokoan beti zerbait ikasten saiatzen naiz». Eta argi du, «euskaraz dezente ulertzen» badu ere, egunen batean euskaraz mintzatzeko gai izanen dela. Lagunei eskerrak emateko ere baliatu nahi izan du tartea, bereziki «asko lagundu didan Maria Angeles Intxaurrondori eta familiari. Eskerrik asko, Leitza».

**Daniela Sabina KISS | ERRUMANIATIK LESAKARA**

## «Boluntario bezala laguntzeko prest dagoen jende ona badago hemen eta eskertzekoa da»



«Errumanian egoera zail jarri zen eta krisiari irteera bat bilatu behar izan genion». Hala, Satu-Mare sorterria utzi eta kamioi-gidaria duen senarrarekin garai berri bati ekin zion. «Urtebete egin nuen berarekin kamioian, gaztelaniaz ikasteko hiztegia eskuan». Duela bortz urte Irunera ailegatu zen, eta azken hiru urteotan Lesakan bizi da, senarra eta 18 urteko alabarekin. «Lesakan hagitz gustura» dagoela dio, eta «besoak zabalik» hartu zituztela: «senarraren nagusiek ere aunitz lagundu digute». Halere, bere irudiko, «batzuetan hemengo jendea itxi xamarra da hasieran. Ez digute inoiz errespetua galdu, beti ongi tratatu gaituzte, baina lagunak egitea zailagoa da hemengoekin». Kanpora ez direla «aunitzik» ateratzen ere azaldu digu: «agian, aterako bagina jende gehiago ezagutuko genuke». Hortaz aparte, pertsona «zoragarriak» topatu dituztela ere nabarmendu du: «boluntario gisa laguntzeko prest dagoen jende ona badago eta eskertzekoa da». Lesaka «hagitz polita» iruditzen zaiola kontatzeaz gain, «hemen bizi-kalitatea ere aunitzez hobea dela», dio. Ohituretan ere aldea nabaritu du eta erlijioa aipatu digu: «Errumanian sinistunagoak gara eta ni elizara joaten naiz. Oztopo aunitz gainditzen lagundu dit erlijioak». Aldeak alde, ez du Errumaniara itzuli nahi: «hemen bizitza lasaiagoa da, ez dago han adina estres eta uste dut horregatik ez dudala itzuli nahi». Familia, ordea, gogoan du: «denak han daude. Oporretan, Eguberrietan eta halakoetan bakarrik sentitzen gara. Urruti gaude eta hori egiten zait gogorrena, guttitan joaten baikara bisitan». Azkena orain lau bat urte. Alabak bezala euskaraz ikastea gustatuko litzaiokeela ere erran digu, nahiz eta «txinera bezala» iruditzen zaion. «Agur, bai...» hitz gutti batzuk aipatu dizkigu, eta onartu digunez, «euskaraz ez jakiteagatik lan aukera aunitz galdu ditut». Baina baikor mintzo da, «gaztelaniaz ere hutsetik hasi nintzen, ez nuen deus ere ulertzen, eta ikasi nuen. Beharbada, euskararekin ere hori gertatuko da».

**Luz CELENIA NIBAL | DOMINIKAR ERREPUBLIKATIK BERARA**

## «Nire inguruan gaztelania somatzen dut eta ez dut euskaraz ikasteko beharrik sentitu»



Hemendik guttira 43 urte beteko ditu eta horietatik ia zazpi Euskal Herrian daramatza sortzez Dominikar Errepublikakoa den Luz Celeniak, eta guztiak Beran, 2008ko uztailetik. Laguntza eskaini zion laguerran baten bitartez ailegatu zen gure eskualdera, nahiz eta orduko bazuen inguruaren berri, bere bi senide hemen bizi zirelako. Geroztik ez paperekin eta ez lana bilatzerako orduan ere, ez du arazorik izan, etorri denetik lanik ez zaiola faltatu azaldu baitigu. Astegunetan kautxu tailer batean eta asteburuetan jatetxe batean aritzen da.
«Nahiko ongi» bizi dela kontatu digu eta gaineratu digunez, «harrituta» dago jaso duen harrerarekin: «errealitatearekin bat ez datorren hagitz bertzelako irudia nuen». Hemengo jendearekin «harreman haundia» duela aipatu digu. «Orain arte ezin naiz kexatu, beti eskaini izan didate euren laguntza», dio. «Ez naiz inoiz baztertua sentitu», aipatu digu, «guztiz kontrakoa, harrera beroa jaso dut».
Gaur egun, bi semeekin bizi da Beran, baina gogoan du sorterrian duen bertze semea ere, eta hori ez omen zaio hain erraza egiten: «sorterritik semearen falta somatzen dut batez ere». Semeaz gain, ama eta senideak ere Dominikar Errepublikan dituela erran digu. Bertzalde, Dominikar Errepublikako klima eta Euskal Herrikoa ez dira inondik inora berdinak, eta Luz Celeniak aitortu digunez, hemen bizitzen dagoenetik eguraldia «gogorra» egiten zaio. Hizkuntzaz ere galdetu diogu. Ez daki euskaraz, eta ikasteko asmorik baduen ala ez ere ez digu argitu, baina bere inguruan gaztelania somatzen duela adierazi digu eta «ez dut euskaraz ikasteko beharrik sentitu».

Samira MILLAS | MAROKOTIK ELIZONDORA

## «Niregatik balitz Marokora itzuliko nintzateke, baina alabentzat zaila izanen litzateke»



9 eta 6 urteko alabekin eta senarrarekin Elizondon bizi da duela sei urtetik. Bazuen lehenagotik gure eskualdearen berri: «senarra duela hamar urte etorri zen Narbartera. Gerora nik sei hilabete egin nituen Oronoz-Mugairin, baina berriz Marokora itzuli nintzen. Bigarren aldiz haurdun gelditu nintzenean, Elizondon jarri ginen bizitzen». Hemengo bizitzara «ohitu» dela onartu arren, dena ez da arrosa kolorekoa. «Bizi hobe baten bila» etorri ziren, baina lana falta zaie: «senarra lehen aldiz etorri zenean lana bazuen arren, azken bortz urteotan ez du lan finkorik aurkitu». 28 urteko marokoarrak «ongi» bizi direla erran digu: «aldi baterako lanak bilatzen ditugu eta horiei eta Nafarroako Gobernutik jasotzen dugun oinarrizko errentari esker moldatzen gara». Marokon duen familia guztia ere gogoan du: «bizpahiru urte pasatzen ditut ikusi gabe. Orain dirurik ere ez dugu nahi adina joateko. Handik eta hemendik ahal dugun guztia aurrezten saiatzen gara baina...». Beregatik balitz Marokora itzuliko litzatekeela ere aitortu digu, baina zaila: «alabentzat arras zaila izanen litzateke. Arras gustura daude hemen eta guk ikastea nahi dugu». Eta alabak horrela ikusteak poztu egiten du. Euskaraz «ederki» egiten dutela kontatu digu, «lagunak badituzte eta eskolan ere kontent daude». Berak arabiarreraz, frantsesez eta gaztelaniaz bai; euskaraz, aldiz, ez. «Bat, bi, hiru...» hasi zaigu euskaraz, gehiago ez: «ikastea gustatuko litzaidake». Kulturaz solasean, musulmana izanda, beraien kultura errespetatzen duela azaldu digu, «hemen arazorik gabe praktikatzen dugu». Alabak oraindik gaztetxoak badira ere, «gure kultura ikastea» nahiko luke: «Ramadana eta gure bestak egitea eta errezatzea nahi nuke». Halere, garbi du «Korana ikastera ez ditudala derrigortuko, ezta zapia eramatera ere». Berak soinean darama, baina «nahi dudalako». Aukera aprobetxatuz, Bidelagun Elkarteari eta jaso duen emakumeendako laguntzagatik bihotzez eskerrak eman nahi izan ditu.

Junwei ZHAOXU | TXINATIK IRURITARA

## «Ez nintzateke Txinara itzuliko, familia hemen dugu eta hemengo bizimodura ohitu gara»



Hemezortzi urte baino ez zituen Txinako Gin Tian herria utzi eta Euskal Herrira etorri zenean. Ordurako gurasoak hemen zituen, «aitak 30 bat urte badaramatza hemen, eta ama ere etorria zen». Berak ere gurasoen bidea hartu zuen, eta anaia eta emaztearekin batera Euskal Herrira abiatu zen. Hasiera batean Irunera, gurasoengana, eta duela bi urte eta erdi Iruritara». Kontent dagoela azaldu digu: «hamahiru urte pasatu dira etorri nintzenetik, familia guztia hemen dugu eta hemengo bizitzara ohitu gara». Iruritan ere gustura dagoela dio: «herri eta inguru lasaia da eta hemengo jendea atsegina, langilea eta ona da». Alde horretatik, ez omen dute inoiz arazorik izan. Iruritako industrialdean duten dendaren martxarekin ere ez da kexatu: «Irunen mugimendu gehiago dago, eta hemen lan guttiago dugu baina denak etxekoak gara eta moldatzen gara». Junwei, bere ama eta emaztea arduratzen dira dendaz, eta aita eta anaia, berriz, Irunen dituzte lanean. Euskal Herrian jaioak diren 8 eta 5 urteko seme-alabak ere ederki egokitu omen dira Iruritara eta «arras kontent» daudela kontatu digu Junweik: «eskolan, lagunekin jolasean... gustura dabiltza. Beti eskolara joan nahi izaten dute». Eta hizkuntza ere ez da oztopo beraiendako: «ederki solasten dira euskaraz eta beraien artean, txineraz eta euskaraz aritzen dira, bietara». Junweik berak euskaraz ikasteko asmorik baduen galdetuta, berriz, honela hasi zaigu: «bat, bi, hiru, lau...». Zenbaki batzuk behintzat ikasiak ditu euskaraz, nahiz eta gainerakoa gaztelaniaz egiten duen. Gustatuko omen litzaioke ikastea, eta semeak pixka bat egiten diola ere aitortu digu, baina «arras zaila» omen da. Halere, hemen gelditzekotan da, «ez nintzateke Txinara itzuliko» erran baitigu, eta «inguruan denak euskaraz somatzen» dituenez, hurrengo elkarrizketa euskaraz egiteko moduan izanen ote gara?

Elena DEMINA | ERRUSIATIK SUNBILLARA

## «Haurrekin etxeko-lanak egin behar ditudanero euskaraz ikasteko beharra sentitzen dut»



«Hagitz, hagitz gustura nago, etxean bezala sentitzen naiz». Sortzez errusiarra baina 2000. urtetik Sunbillan bizi den Elenaren hitzak dira. 46 urte ditu. Duela hamasei urte ezagutu zuen orain bere senarra dena eta familia osatzea erabaki zutenean Sunbillara etorri ziren, bikoteak hemen etxebizitza zuelako. Eta ez da damutu aukeraketarekin, «ezin naiz deusetaz kexatu», aitortu baitigu, eta «izatekotan euriarekin» gaineratu digu. Aipatu digu paperak tarteko arazoak izan zituela: «denbora luzean esperoan egon nintzen», eta orain Aizoaingo enpresa batean lanean ari dela ere kontatu digu. Jaso duen harreraz galdetuta «ez naiz sekula horretan pentsatzen jarri, baina inoiz ez naiz baztertua sentitu», erantzun digu. «Bizilagunekin harremanetan hasi nintzen, eta alaba jaio zenean gainerakoekin. Orduan hasi nintzen Beolan lanean eta lankideekin izandako tratuarekin ere integratua sentitu nintzen». Bere irudiko, «hemengo eta bertze lekuetako jendea zu zaren bezalakoa da, gure irudia eurengan islatzen dugu. Esaera zaharrak dioen bezala, *norbera halako denak, bertzeak hala direla uste*». Hitz bakarrean, hemengo jendea «hagitz, hagitz ona» dela adierazi digu. Gustura baldin badago ere, sorterrian ditu ama eta anai-arreba zaharrenak eta «familiaregandik hain urruti egotea» gogorra eta zaila egiten omen zaio. Hortik aparte, «elurtutako basoan barna eskiekin ibilaldiak egitearen falta ere» somatzen duela onartu digu. Euskaraz ere ari da, «baina oinarrizko maila bakarrik dut», dio. Urte batez Elizondoko euskaltegian ibili zen baina ba omen du ikasteko asmoa. Inguruan ere euskara aditzen du eta berak ere ikasteko beharra sentitzen du: «seme-alabekin etxeko-lanak egin behar ditudan aldi oro. Batez ere matematikako lanak egiterakoan: zatiketak, biderketak, buruketak...». Halako borondatearekin, ziur gaude ikasiko duela.



Nire txanda

Fernando ANBUSTEGI

# Hizkien indarra

Hizkien indarra nabarmendu nahi nuke gaurko idatzian... Hizki eta pizti ez baitira gauza bera, desberdin idazten ditugu, bokal berak izan arren. Nafarroa eta arraroa bezala, nahiz eta batzutan biak uztartu. Edo CAN eta jan. Batetik hartu eta bertzera eraman. Ogasuna eta Osasuna ere berdintsuak dira, nahiz eta denok omen garen Ogasuna eta aunitzek saihestu nahi izan, nahiz eta denek nahi dugun osasuna izan eta batzuk Osasuna erabili. Zer erran ardura, zakurra, lapurra…hitzei buruz; desberdinak dira, bokal berekin eta beharbada horregatik batetik bertzera salto egitea errexa suerta daitekeen. Hankartea eta pasartea ere bokal berak izan arren ez dira gauza bera, nahiz eta batzuk herriaren borondatearen harira, uztartzen dituzten. Eta zer erran Maiatzak 24, aldaketa, itxaropena edota etorkizuna hitzei buruz? Desberdinak dira? Bai? Sinonimoak bederen bai, ezta?

> «Zer erran Maiatzak 24, aldaketa, itxaropena edota etorkizuna hitzei buruz?»

Ezpala

Aitor AROTZENA

# Entornoa nola ttikitzen den…

Garai batean, entornoko kide izan zitekeen biloba insumisoa babesten zuen amatxia edo Euskaltelen maillota janzten zuen txirrindularia ere. Baina xoxa publikoaren eltzean eskua sartu dutenek ez dute entornorik, Gary Cooper bezala, bakarrik daude arriskuaren aurrean. Ustel horiek izendatu, babestu, sustatu, indartu eta lagundu zutenek bertze aldera begira ziztu egiten dute.

## Nabarmentzekoak



Aritz ZUBIRI
Goizuetako erremontelaria

Otaegirekin batera Promozio txapelketa irabazi du, martxoaren 6ko finalean Ezkurra II eta Labakari irabazita. 2009ko abenduan debutatu zuenetik bere lehen txapel ofiziala da.



Martxel RODRIGUEZ
Lesakako dantzaria

Azken urteotan Europako dantza-aretoetan ibili ondotik, lehen aldiz sorterrian dantzatzeko aukera izanen du Dantzaz konpainiarekin. Martxoaren 28an izanen da hitzordua Harriondoan.



Joseba LARRALDE
Hirugarren Senpere Trail-en

Manttaleko korrikalaria podiumera igo zen martxoaren 8an, Senpere Trail lasterketan. Ea Sara Korrikarako eta Berako Mendi Maratoi Erdirako eusten dion sasoi punttu bikainari.

**Atzera begira ➜ 1995-III-16** / TTIPI-TTAPA 153. zk.



## Antton Maiz, Arantzako erraldoiaren adioa

1975ean debutatu zuenetik, pilotari profesional moduan hogei urte egin eta gero, erretiroaren ordua ailegatu zitzaion Antton Maiz aranztarrari. 1995eko martxoaren 3an omenaldia eskaini zion Asegarcek Bilbon eta TTIPI-TTAPAK 'Erraldoiaren adioa' izenburuarekin bataiatu zuen aldizkari hura. «Hogei urtetan satisfakzio haundiak eman ditit pilotak, lagun aunitz egin ditut» zioen Petrisenekobordakoak. Eskuz binakako bortz txapel irabaziak zituen –orduan inork lortua ez zuen marka– eta bigarren mailan ere buruz buru irabazia zen (bere oroitzapenik onena, «nere burua primeran zegoela ikusi bainuen»). Argazkian, Elias Pierola almandoztarrarekin ageri da Maiz II, debutatu berritan.

ttipi-ttapa

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.eus**

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2015eko harpidetza sariak**

| | |
|---|---|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 34€ |
| Leitza | 18€ |
| Hego Euskal Herria | 40€ |
| Ipar Euskal Herria , Europa | 73€ |
| Amerika eta Australia | 124€ |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

MEKNA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

CC BY SA

Kolaborazioak

# Paskual

Mikel TABERNA «Kapi»

Orain bezala, lehenago ere makina batek mugitu behar izan du sorterritik kanpora ogi bila. Baina lekuz aldatze hori ez da beti urrun joateko izan. Gure inguruan fabrikak plantatzen hastearekin, jende aunitz bere herritik hurbileko bertze batera joan zen bizitzera. Leku batzuk jendeberritu eta bertze batzuk hustu. Ttipi Ttapan berean ez aspaldi erakutsi ziguten nolako goitibeheitiak izan diren gure eskualdean, horregatik ere segur aski, hondarreko berrogeita hamabortz urteotan.

Hain zuzen ere, Berak goiti egin zuen zenbait urtez mugako bentetan eta enpresa batzuetan jendea enplegatu zutelakoz. Orain bertzelako haizea dabil, eta berriz ere zalantza zabaldu da gure etxeetan, negozio batzuk itxi eta bertze batzuetatik jendea kanpora botatzen ari baitira. Ez dakigu zer irakurriko dugun gerora aldizkari honek bertze horrenbertze urteren buruan gisa bertsuko notizia publikatzen badu.

Azkeneko mende erdian beheiti egin dutenen artean Arantza ageri da. Berara ere etorri ziren handik familia batzuk aspaldi samar. Halaxe egin zuen berriki utzi gaituen Paskual Etxeberriarenak. Paskualek Bidaso bazterreko paraje honetan lana harrapatu, eta bertan laketu zuen. Ezaguna genuen gogotik saiatu zelakoz presoen eskubideen eta ezkerraren ideien alde jokatzen, baina baita hagitz euskaltzalea zelakoz ere.

> «Omenaldia egin zioten San Migel zubian. Naturarekin bat da orain, Bidasoan. Noizbait ere sumatzen baduzue ugalde zabalean edo erreka estuan goiti aldera, ez harritu: jaioterrira joaki da».

Badut etxean liburu polit bat, haren sinadura eta guzi, Paskualek berak orduko euskaltegiko bertze bi lagunekin batera egina: “Berako erranerak” (1998). Hirurak etxez etxe ibili ziren jendeari galdeka, solastun onek euren baitan gordetzen dituzten perlak biltzen, guretzat guziontzat gozagarri.

Eritu zela erran zidaten orain dela zortzi bat urte. Handik honat, ordea, herrira joan naizen aldiro karrikan ikusi dut beti, burua tente eta buru gainean kapelua, gaitzaren kontra amore eman gabe, eta biziaren alde. Pasa diren Eguberrietan ere halaxe ikusi nuen hondarreko aldiz Eztegara aldean.

Negu gogor honek bere azkeneko buztarketako batean eraman du gizona. Omenaldia egin zioten San Migel zubian. Naturarekin bat da orain, Bidasoan. Noizbait ere sumatzen baduzue ugalde zabalean edo erreka estuan goiti aldera, ez harritu: jaioterrira joaki da.

# Uholdeak

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Azken egunotan, Euskal Herriko hainbat lekutan, berriz ere izaten ari gara uholdeen arazoak, beharbada handienak Gipuzkoan eta Nafarroan, baina beste toki batzuetan ere ez dira libratu erabat.

Kontu bat da, uholde horiei nola egiten zaien aurre gertatzen diren momentu berean, hau da, triskantzak pasatzen ari direnean eta geroxeago: hondatutako gauzak konpondu, kalteak gainditu eta ordainak jaso, eta abar, eta beste kontu oso ezberdin bat da, geuron buruari galdetzea ea zergatik gertatzen ote diren halako uholdeak, ea guztiz normala ote den honelako uholdeak gertatzea hain sarritan, Euskal Herrian eta beste hainbat lekutan.

Nik uste dut, erantzuna gero eta nabarmenagoa dela, are gehiago, esanen nuke agintari gehienek gero eta argiago dutela, edo behintzat eduki beharko luketela, orain arte gauzak ez direla oso ongi egin, eta nahi izanez gero, garbiago azalduko dut azken ideia hau, alegia, pentsatzen dut, gizarte osoak onartu behar duela –eta batez ere agintariek-, orain arte gizakiak ez duela oso ongi jokatu ibai eta itsasoekin. Eta, zertan ez dugu jokatu, bada, ongi naturarekin? Nire ustez, gehiegi inbaditu ditugu ibaien arroak eta itsasoetako ertzak, hau da, alde batetik, hurbilegi eraiki ditugu hiriak, herriak, auzoak, industrialdeak, eta abar, eta bestetik, gure lur azal asko estali egin ditugu material iragazgaitzekin, konparaziora, asfalto, porlan, hormigoi, galipotarekin, eta bat eta beste.

Gerora, euria erruz botatzen duenean, lur azalak ez du ahalmenik ur hori guztia irensteko, pertsonok kendu diogulako ahalmen hori, neurri handi batean behinik behin, eta orduan iristen zaizkigu arazoak eta oztopoak. Baina, buruhauste horiek oraindik gehiago handitzen dira, ibaiak zikinak baldin baditugu, eta behar duten leku guztia ematen ez badiegu. Eta, gainera, eurite horiek batzuetan bat egiten dute itsasgorekin eta urtegien hustearekin; orduan arazoak biderkatu egiten dira. Bestalde, luzarora begira, klima aldaketarekin eta ozeanoen maila igotzearekin ere, ezin dugu itxaron kontu hau bere kabuz gero eta gutxiagora joanen dela, ez, baizik eta alderantziz.

Puntu honetaraino iritsita, nik uste dut, kontua ez dela errudunak bilatu eta aurkitzea besterik gabe, baizik eta, batez ere, hemendik aurrera begira, ongi pentsatu eta hausnartu egin beharko da, akats berberak ez errepikatzeko eta orain arte egindako hanka sartzeei, nola edo hala, soluzioak emateko.

Hortaz, hemendik aurrera, iruditzen zait eraiki egin beharko dela, kasu handiagoa eginez hidrologo, meteorologo eta zientzialariei, oro har, hau da, gehiago begira gizarte osoaren onurari eta gutxiago interes partikular batzuei.

## Irakurleak mintzo

# Elkarri-Lokarri

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ (AURITZ)

Martxoaren 7an, Lokarrik bukatutzat jo du bere eginkizuna, horretarako, Bilboko hotel batean ekitaldi publiko bat egin zuen pertsona ezagun askorekin. Jarraian, hiri horretako jatetxe batean bazkaria eta musika izan zituzten, azken hogeitaka urte hauetan, Elkarrin eta Lokarrin parte hartuz, nola edo hala, inplikatu den jende guztiarentzat. Horrelaxe eman nahi izan zioten bukaera duina, Elkarrik eta Lokarrik egin duten ibilbide duinari.

Osotara, 23-24 urte trinko izan dira gutxienez. Atzean gelditu dira hamaika bilera, batzar eta biltzar; beste hamaika kale-agerraldi, elkarretaratze, sinadurak biltze eta esku-orriak banatze; makina bat kezka, ardura, hotza pasatze, eta abar, eta abar. Kide batzuek oraindik jarraitu egin nahi zuten, beste batzuek, ordea, lehenago bukatu nahi zuten…

Argi eta garbi dago, ez dela egin, egin ahal zen guztia, eta egin den guztia ez dela egonen egina modurik egokienean, eta, akatsak, hanka-sartzeak, eta bat eta beste ere hor joanen zirela. Bestalde ere, ezin da esan orain lortu dugun egoera hau, Elkarri eta Lokarriren lanari esker izan dela soil-soilik, jakina, ez eta askoz gutxiago ere, hori argi dago, baina, era berean ere uste dut, akatsak akats, ezin dela ukatu, Elkarrik eta Lokarrik egin diotela beren ekarpentxo positiboa gizarte honi, eta horretan, modu apal batean bada ere, parte hartu dugun pertsona guztiak, iruditzen zait izan dezakegula harrotasun puntu bat.

Beharbada, asko laburbilduta, esan liteke, Lokarriren azken urteotako punturik gorenenak izan direla Sortu alderdiaren estatutuak aurkezteko antolatutako ekitaldia eta Donostiako Aieteko Adierazpena. Badakit bai, hau asko sinplifikatzea dela, baina ez dut uste hau denik momentu eta lekurik egokiena gauza guztiak zerrendatzeko. Bestalde, noski, nabarmena da oraindik gauza asko gelditzen direla, euskal gizarte normalizatu bat lortzeko, konparaziora, preso politikoak, hau da, politika hutsa egiteagatik espetxean daudenak, askatzea, gainerako guztiak Euskal Herriratzea, beraien giza eskubide guzti-guztiak erabat errespetatzea, egia osoa ezagutzea, alde guztietako biktima oro aitortzea eta merezi duten ordaina ematea, gizartearen bizikidetza bultzatzea, adiskidetzea lortzea, eta abar, eta abar. Hitz gutxitan esanda, giza eskubide guztiak errespetatu eta betetzea.

Espainia, Frantzia eta Nafarroako Gobernuek, argi dago, momentuz behintzat, ez dutela deus ere laguntzen aurreko hori guztia eskuratzeko, ez eta erabakitzeko eskubidea egikaritzeko ere, baina, beste alde batetik, garbi dagoena da, orain Sortu alderdia legeztatua egonda, eta, ETA erakundearen borroka armatuaren bukaerarekin, askoz ere errazagoa izanen dela helburu politiko eta sozial horien guztien alde lan egitea.

Bukatzeko, esanen nuke, alde batetik pena ematen duela Lokarri bezalako giza talde bat bukatzeak, baina, bestetik, nik uste dut, oso positiboki baloratu behar dela bere existentzia guztia, eta ni behinik behin, horrekintxe gelditPuko naiz.



## Bota bertsoa

Xabier TERREROS • Doinua: Norbere mundu intimo

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoan, kartzelako gaia

### Iraganeko argazkia begiratu duzu. Harro sentitu zara

Mila bederatzirehun
eta larogeita hamarra
negu gorria zen ordun
zen otsailaren hondarra
inauteak Lesakan du
berebiziko indarra
baina 'Emakumeak Stop'
zen gure herrian oharra
nahiz aurpegia zapiaz
dudan tapatu xamarra
ni izan nintzen Lesakan
lehen andre zakuzaharra (bis).

Horrenbertze mihi gaizto
horrenbertze mutur ilun
lagun nituenak ere
jada ez nituen lagun
beti hurbil zegoena
nik sentitu nuen urrun
baina bidean indarrez
pauso sendoz eta txukun
ordutik pasatu dira
zenbat urte zenbat egun
ea zubi gainean ere
fotoa ateratzen dugun (bis).

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.eus**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**






## Prentsatik bildutakoak



«Nafarroako Gobernuak zerbitzu gehienak gaztelania hutsean eskaintzen dituen bitartean, bazterkeria leporatzen digute herritar guztien hizkuntza eskubide oro errespetatzen dugun udaloi. Noren ahotik eta euskaldunoi bigarren mailako herritar izaera eskaintzen digun Nafarroako Gobernuaren ahotik hori aditu beharra iraingarria da».

**Maitane MARITORENA**
Baztango udal zinegotzia
AIZU 2015.03



«Orain artean inoiz ez nuen lesio larririk eduki. Judoa egiten, umetan, besoa hautsi nuen, baina eskubaloian ez zitzaidan inoiz suertatu. Halere, hasieratik ongi hartu nuen, hagitz animatua. Errekuperazioan kontzentratu nintzen eta oraingoz ez dut beheraldirik izan. Zentzu horretan, nere buruak harritu egin nau. Ongiegi ere eraman dut (irriz)».

**Niko MINDEGIA**
Eskubaloi jokalaria
D.NOTICIAS 2015.03.11

## 11 galdera labur

**Nor da Itsaso Goñi?**
27 urteko beratarra. Donostiara arkitektura ikastera etorri eta 9 urte daramatzat bertan. Gaur egun Madril eta Euskal Herri artean harat-hunat ibiltzen naiz kanpamentu nagusi finkorik gabe.

**Zertan zabiltza Madril aldean?**
Hiriak elementu konplexu eta biziak direla ikusita, hauek hobe ulertzeko hirigintza arloan espezializazio bat egiten ari naiz.

**Zein afizio dituzu?**
Batzutan zaila egiten zait lana eta afizioen arteko ezberdintasuna aurkitzea.Lana gustukoa bada, pasio ere bilakatzen baita.

**Ez dira garai onak arkitekto batentzat...**
Gaur egun arkitektoaren lana ez dago soilik bulego batean, kalean baizik, bertan baitago sortu dugun hiria eta eraldatu/hobetu beharko duguna.

**Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**
Geldirik egoteko denbora librerik ez izatea, beraz mila saltsatan murgiltzen naiz. Baina ahal dela kontzertuz kontzertu. Ezingo nuke bizitza musika gabe ulertu.

**Zer du Berak soberan eta faltan?**
Herriak falta duenari bertze tokietan bilatzen saiatzen naiz, eta soberan dagoenari kasu gehiegirik ez.

**Madrilen zeren falta nabari duzu?**
Euskaldunak, bertzenaz ez dago batere gaizki. Hiriak onerako harritu nau, harrera oneko hiria da, edozein giro eta kolore onartzen duena.

**Bidaiatzea gustuko duzu?**
Ahal dudan guztietan norabait ihes egiten dut. Espektatiba eta aurreiritzi gabe bidaiatzea gustatzen zait, orduan aurkitzen baitira sorpresa eta toki politenak.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**
Positiboki eta esperantzarekin begiratzen diot etorkizunari, baino gauzak aunitz aldatu behar direla uste dut.

**Amets bat?**
Ez naiz amets haundi eta konkretuen atzetik ibiltzen, nahiago dut gauza ttikietan pentsatu, hoiek osatzen baitute eguneroko bizitza. Baina amesten hasita usainak harrapatzen dituen makina sortu nahiko nuke.



**Itsaso GOÑI ➜ Berako gaztea**

## EUSKARA

**KORRIKA** ➜ UREPELETIK BILBORA, MARTXOAREN 19TIK 29RA

# Ortziral eta larunbat honetan Korrikaren lekukoa eskualdean barna ibiliko da

### Ortziralean Urdazubi eta Baztanen, eta larunbatean Leitza, Bortziriak, Sara eta Senperen

**TTIPI-TTAPA**

*Euskahaldun!* lelopean ortzegun honetan, martxoak 19, Urepeletik abiatuko da Korrika, AEK-k antolatuta Euskal Herri osoan barna egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Martxoaren 29ra bitartean, hamaika egunez gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du Korrikak hemeretzigarren aldiz. Bi mila kilometro baino gehiago euskararen alde, adin eta gisa guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe. Eskualdean barna ere ibiliko da Korrika, zehazki, ortziral eta larunbat honetan, martxoak 20 eta 21.



ARGAZKIA: AEK

Duela bi urte, Korrika Elizondoko karriketatik pasatu zenean.

**ORTZIRALA**

Ortziral honetan, hilak 20, Ainhoan barna, Urdazubira ailegatuko da Korrikaren lekukoa, 09:50 aldera. Handik Amaiurrerako bidea hartuko du eta hemendik 11:20 inguruan pasako da. Amaiurtik Elizondora joanen da eta 12:05 alderako ailegatuko da. Iruritara bidea hartuko du gero, eta Almandozera joanen da ondotik. Hemendik Iruñera abiatuko da.

**LARUNBATA**

Larunbatean, hilak 21, goizean eta arratsaldean eskualdetik pasako da euskararen aldeko lasterketa haundia. Goizean, Uitzitik Leitzara sartuko da 05:00 alderako. Gero, Berastegirako bidea hartuko du.

Arratsaldean, berriz, Irundik bazkalondoan ailegatuko da Berara, 14:50ean. Lesakara 15:36an ailegatuko da eta herria zeharkatu ondotik, Igantzira ailegatuko da lekukoa, 16:12an. Igantzitik Igantziko Bentetara jautsiko da Korrika eta hemendik, errepide zaharrean barna Etxalar aldera (16:42) joanen da. Berriz Berarako bidea hartuko du eta 17:06an Beratik pasatuta, Ibardinera igoko da, 17:50 alderako. Ibardindik Azkainera jautsiko da (18:53) eta hemendik Sararako bidea hartuko du (19:48). Uztaritzen barna Baionara ailegatu aitzinetik, Senperetik ere pasako da Korrikaren lekukoa, 20:35 inguruan.

| MARTXOAK 20, ORTZIRALA | |
|---|---|
| HERRIA | ORDUA |
| Urdazubi (Dantxarinea) | 09:45 |
| Urdazubi | 09:51 |
| Amaiur | 11:21 |
| Elizondo | 12:06 |
| Irurita | 12:23 |
| Almandoz | 13:37 |
| **MARTXOAK 21, LARUNBATA** | |
| HERRIA | ORDUA |
| Leitza | 05:02 |
| Bera | 14:50 |
| Lesaka | 15:36 |
| Igantzi | 16:12 |
| Etxalar | 16:42 |
| Bera | 17:06 |
| Ibardin | 17:48 |
| Azkaine | 18:53 |
| Sara | 19:48 |
| Senpere | 20:37 |

**KORRIKA KULTURALA**

Korrika nagusiaz gain, Korrika Kulturalaren baitan ere hainbat ekitaldi egin eta egitekoak dira egunotan. Egin gabeak direnen artean, ortzegun honetan, martxoak 19, Korrika Urepeletik aterako dela aitzakiatzat hartuta, Elizondotik Urepelera mendi martxa antolatu dute. 09:00etan abiatuko dira Elizondoko plazatik eta itzultzeko autobusa izanen da. Martxoaren 21ean, berriz, Igantzin trikipoteoa eta bertso-afaria antolatu dituzte Julio Soto eta Iker Zubeldiarekin.

Korrika Ttikia ere eginen da. Arantzan, erraterako, martxoaren 27an, ortziralarekin eginen dute. 16:00etatik aitzinera herriko karrikak euskararen alde lasterka zeharkatuko dituzte.



## ORRAZKERA-MAKILLAJEA

# Naturaltasuna guztiaren oinarri

Ile horiak, beltzaranak, adats luzeak, motzak, aurpegi borobil edo luzexkak... denok berdinak ez garenez, ezin da orrazkera eta makillaje bakar eta perfektuaz hitz egin. Garrantzitsuena norberaren izaera, itxura eta gustuak kontuan hartzea da eta naturaltasuna gailendu dadila. Profesionalengana jo eta norberak duen asmoa azaltzea izaten da horretarako hoberena eta bata eta bertzea probatuz, aldatuz, osatuz... eroso sentiarazten zaituen itxura lortzea. Segidan dituzue, 2015erako proposamenak.

### HAIZEAK DANTZARAZI DEZALA ZURE ADATSA...



Ile adats luze eta ederra dutenentzat solte eramatea da aukerarik onena. Sorbalden gainetik eroritako adats luzeak itxura dotorea eskaintzen du beti. Eskote asimetrikoa duten soinekoa daramatenek, adatsa alde baterantz erortzen utzi dezakete. Adats oparoa dutenek, bolumena eman eta diadema edo zinta bat buruan lotu dezakete, eta itxura kasuala lortu nahi dutenek, lorez apaindutako koroak ere erabili ditzakete.

### TXIRIKORDAK EZ DIRA SOILIK HAURRENTZAT...



Garondo gainean batutako edota diadema forman egindako txirikordek osatzen dute aurtengo orrazkera izarra. Gainera, ilea eta trentza zenbat eta lodiagoak izan, orduan eta hobe. Gainera, bitxiren batzuk erabil litezke apaingarri gisara, trentzaren amaieran edo tartean txertatuta. Ikutu orijinala eta pertsonala gehituko diozu horrela orrazkerari.

### EZ SOLTE ETA EZTA BILDUA ERE



Ilea solte eraman nahi ez, eta bilduta eramatera ohituta ez daudenentzat aukera bikaina da. Orrazkera formal eta informalaren arteko oreka lortzeko modua ere bada. Orrazkera honek ile luzagarriak jartzeko aukera ere ematen du, ilajeari gorputz gehiago ematea lortu eta inor ez da konturatuko.

















# Ezkontza










## EMAKUMEENTZAKO JANTZIAK

## Asmatu zure aukeraketarekin....

Ezkontza batera gonbidatu zaituztete eta ez dakizue zer eraman soinean? Milaka aukera dituzue bai kolore eta baita diseinu aldetik ere. Aukeraketan bidea erraztu aldera, laburpen honetan bildu ditugu proposamen desberdinak:

### BIZKARRA AGERIAN



Gibeleko aldeak aurrekaldeak bezain bertzeko garrantzia izanen du aurtengo soinekoetan. Eskote ireki edo itxiagoak daudenez aukeran norberaren gorpuzkera eta pertsonalitateari hobekien joaten zaiona topatzea da erronka, eta horretarako bat baino gehiago probatzea da gakoa. Soinekoen partez, gona edo galtzak eraman nahi dituztenek ere ator dotoreak topatuko dituzte, eskote ederrekin.

### MAUKA LUZEAK



Aukera dotorea dira oraindik eguzkiak indartsu jotzen ez duen hilabeteetarako. Gainera besoak bistan eramatea gustuko ez dutenentzat ere irtenbidea dira, estetikoki oso ongi eman eta estilizatu egiten dutelako.

### KOLOREA EZ DADILA FALTA!

Jantzi koloretsuak izanen dira protagonista, gehienbat kolore bakarrekoak direnean. Tonalitate desberdinak ikusiko ditugu, esate baterako urdin turkesatik hasi eta grisetik hurbil daudenen tonuetara arte. Erakuslehioak beteko dituzten koloreak: gorria, korala, fuksia, urdina eta berdea izanen dira eta osagarriak ere kolore biziz tindatuko dira. Eta ukitu bohemioa lortu nahi dutenek, kolore horiek tonu pastelagoetan ere izanen dituzte dendetan esperoan.

## JANTZI TRADIZIONALAK

## Antzinako ohiturei keinuka....

Bikote aunitzek erabakitzen dute beraien ezkontza egunean euskal tradizioak present izatea. Antzinako euskal ohiturei ezkontzan tokia egin eta soinean ere gisa honetako jantziak eramaten dituzte. Soineko zuri eta traje beltzaren partez, gona luze, txapela, pololo eta abarkak jantzen dituzte. Ezkongaiez gain, gainerako gonbidatuen artean ere zabaltzen ari da joera hau.



### TRADIZIOARI UKITU PERTSONALA GEHITUZ

Jantziaren oinarria antzekoa den arren, milaka oihal mota eta kolore daude aukeran jantzi tradizionalak saldu eta egiten dituzten dendetan. Horregatik, egokiena denda hauetara hurbildu eta aukera desberdinak ikusi eta aurrekontuak eskatzea izaten da. Badago dena den, gogoan edukitzea komeni den urrezko arau bat: bereizgarri pertsonal eta moderno bat gehitu nahi denean, tentuz ibili behar da, gehiegikeriak alboratuz, inongo zentzurik ez duen nahasketa bat lortu nahi ez bada.



GIZONEZKOENTZAKO JANTZIAK

## Dotoreziaren bila



Gizonezkoek ere dotore egon nahi izaten dute ezkontza egunean, eta horregatik geroz eta gehiago dira, ezkongai zein gonbidatu, trajearen aldeko apustua egiten dutenak. Iaz **kolore urdina** nabarmendu zen gizonezkoen janzkietan eta aurten ere nagusi izanen den kolorea da. **Slim fit** janzkiak ere modan daude, gehienbat tonu ilunetan, estuak dira oso eta itxura asko estilizatzen dute. Pixkanaka bada ere, **estanpatuak** ari dira merkatuan bere tokia egiten eta horregatik, hauen aldeko apustua egiten dutenak fin ibiliko dira. **Janzki marradunak** ere, non-nahi ikus litezke urte hasieraz geroztik eta ezkontzetarako ere aukera paregabea dira. **Total look** delakoa ere behin eta berriz errepikatzen da, kolore bakarra aukeratu eta look osoa horrekin osatuz. Adibidez janzki, ator eta korbata beltza jantzita, itxura oso sentsuala lortzen da.

BITXIAK

## Ttiki edo handi, ukitu berezia

Belarritako, lepoko eta eskumuturrekoek osatzen dute ezkongai eta gonbidatuen itxura. Aukera zabala dago merkatuan eta bertzenaz, bitxi pertsonalizatuak egiteko aukera ere bitxidenda aunitzek eskaintzen dute. Kristaltxo edo harri txikiz osatutako diademak ere boladan daude eta Ile motza dutenentzat osagarri paregabea dira, beraien orrazkera nabarmetzea lortzen delako.


























# Ezkontza

## GONBIDAPENAK

# Zenbat buru, hainbat aburu...

Zenbat buru, hainbat aburu... dio esaera zaharrak eta ezkontza gonbidapenetan ere esana bete egiten da. Paper mota desberdinak erabilita, kutxatxo berezien barrenean, bideo formatuan, puzzle dibertigarriak eginaraziz... modu ugari daude albistea emateko. Ezkontzaren inguruan gonbidatuek jasoko duten lehendabiziko pista denez, tentuz egin behar da aukeraketa. Horregatik, mesedegarria izaten da azken joeren berri izatea. **Estanpatu ausartak** eta **dotoreak** eta **kolore biziak** dituzten gonbidapenak daude modan. Tipografiari dagokionez berriz, **vintage** itxurakoak dira gehien nabarmentzen direnak: zilar edo urre koloreko ikutuekin edota mota desberdinetako letrak nahasita. Gonbidapen klasikoagoak maite dituztenek **estanpatu loredun, marradun edota borobildunak** dituzte aukeran. Ezkongaien argazkia ere gonbidapen aunitzetan ageri da, argazkilariarekin ezkontza aurreko sesio bat egiteko asmoa badute, argazkiak probesteko modua izan liteke.










## OPARIAK

# Ttikian bilduta esanahi ugari...

Gonbidatuei banatzen zaizkien oparitxoak aukeratzeak buruhauste bat baino gehiago sorrarazi ohi dizkie ezkongaiei. Ez da non aukeratua falta delako, ezkontza oparien merkatua hain da zabala azkenean bata edo bertzea aukeratzerakoan izaten direla komeriak. Duela urte gutxira arte gerora erabili edo kontsumitu zitekeen zerbait oparitzeko ohitura zegoen (jaboiak, tabakoa, olio edo ardo botilak, koloniak...). Gaur egun ordea, badirudi joera aldatu eta oparitxo pertsonalizatuak ari direla gailentzen. Imajinazioa martxan jarri eta ezkongaien afizio edo izaerari lotutako opariak bilatzen dituzte gehienek. Beraiek egin edo enkarguz eskatutako eskulanak, kirol edo kultur jardueraren batekin lotutako opariak (musikariak badira mikrofono ttikiren batzuk adibidez), argazki bereziak... emaitza orijinala eta berdingabea izatea da asmoa. Vintagea estiloa ere indartsu dator eta geroz eta gehiago dira iraganari egiten zaizkion keinuak.



LORE-SORTAK

# Beltza eta xuriaren artean mila kolore eta aukera

Muturreko joerak aipatzen dira. Hala, kolore bakarreko sortak eta kolore biziak eta kontrajarriak nahasten dituzten sortak ikusi ahalko dira. Aurtengo berrikuntza kolore biziko orkideak dira, bioleta, lila, fuksia edo arros koloreak perfektuak dira amestutako lore-sorta osatzeko. Joerei dagokienez ezkongaien lore sortetan apaltasuna izanen da protagonista. Lore sortak arindu eginen dira, buket txikiak indartsu baitatoz. Gainera, orain artean sorta osatzeko erabiltzen genituen lore eta hostoek ere garrantzia berezia hartuko dute. Segidan dituzue aurten modan dauden sei joera.

## NAHASI BAINA HARI BATI SEGI



Ezkongaien ohiko buket bildua albo batera utzi eta tamaina eta mota desberdinetako loreekin buket bereziak osatzea proposatzen dute. Eliza edo epaitegia, jatetxea, autoa... apaintzeko erabiliko ditugun elementuei jarraikortasuna eman eta dekorazioako erabilitako elementuek ezkongaien lore sortan ere presentzia izatea da asmoa.

## TXIKIAK OSOTASUNEAN HANDI



Ur-jauzi itxurako lore sortei adio errateko tenorea da. Orain buket edo lore sorta ttikiak daude boladan. Oso apainak dira eta eraman errazak dira. Bertze elementuei protagonismorik kendu gabe, emaztegaien lookari koloraA eranstea da helburua.

## EKOLOGIKOAK ERE BADAUDE



Basoko loreekin osatzen diren sortak dira eta denboraldiko loreak erabiltzen direnez, naturaren berezko zikloak errespetatzen dituzte. Lorategi organikoetako loreekin ere osatu litezke.

## LORE BAKARRA BAINA EDERRA



Lore bakarreko sortak xumeak baina benetan dotoreak dira. Dagokion protagonismoa izateko lore handi eta ikusgarriak erabiltzen dira. Espezie berezi edota exotikoak baliatu litezke, adibidez, Proteako lorea edo ekiloreak erabilita.

## ESANAHI BEREZIA DUTENAK

Lore-sorta tradizio gehien duen osagarrietako bat denez, ezkontzako uneari esanahi berezia gehitzeko ere baliatu dezakegu. Horretarako, bikotearekin edo familiarekin nolabaiteko loturaren bat duten loreak erabili litezke edo bitxiak txertatu sortaren barrenean.

## BERDE BERDEA

Aurten hosto berdea osagarri bat izatetik protagonista izatera pasako da. Tamaina handiko hostoak erabili litezke, soineko zuriarekin kontraste berde bizia eginen dutenak.











# Ezkontza










## ARGAZKILARIAK/BIDEOA

## Irudien xarma...

Argazki edota bideo dotoreak, dibertigarriak, originalak... osatu ditzakezue profesionalen laguntzarekin, egun irudimena izaten da muga bakarra. Teknologia berriek, argazki marko eta bideotik haratagoko pausoa emateko aukera eskaintzen dutenez... atera etekina irudiei!

### GONBIDATZEKO

Argazki postal edo bideo original baten bidez gonbidatu litezke senide eta lagunak ezkontzara. Mezu berezi bat, gustuko paisaia batean, atsegin dugun musika erabili eta nahi adina elementu gehitzeko aukera izaten da. Gainera bideoa osatzen bada, azken emaitza hori, posta elektronikoz edo mugikorraren bitartez bidali liteke edota ezkongaientzako apropos sortutako interneteko atarian zintzilikatu.

### OPARITARAKO

Otorduaren ondotik eta dantzaldia hasi aurretik, une polita izan liteke gonbidatuei bideo batekin ezustekoa emateko. Bertaratu direnei eskerrak emateko modu originala da eta baita garai bateko argazki edota bideoak ikusiz malko edota irribarreren batzuk ateratzekoa ere.

### OROIGARRI

Ezkontzako bideoak, argazkiekin batera oroitzapen ederra dira egun berezi hau urte batzuen buruan berriro ere ikusteko. Horregatik komeni da argazkilari edo bideo-egileak bikotea aldez aurretik ezagutzea, azken emaitza betirako baita.




## Lotsak ahaztuta erokeriak egiteko tartea

Nork erran zuen taldeko argazkiak aspergarriak zirenik? Geroz eta gehiago ari dira zabaltzen ezkontzetan *photocall dibertigarriak*. Bibote, betaurreko, kapela, pelukak... jantzita argazkia atera bitartean nahikoa barre egiteko aukera izanen duzue. Oroitzapen polita eta berexia da eta argazkiak gerora ikusitakoan ere berriro primeran pasatzeko aukera izanen duzue!






## MUSIKA

# Momentu bakoitza kantu batekin lotuz



Musika gure bizitzaren parte da eta ezkontza egunean ere garrantzia handia duen elementua bilakatu da azken urteetan. Gehienetan ezkongaiak beraiek izaten dira musikaren arduradunak eta DJ baten laguntzaz, ezkontza egunean entzun nahi dituzten kantuen zerrenda osatzen dute. Aukeraketa egokia egitea ezinbertzekoa da: musikak momentu bereziak are bereziago bilakatu eta une ahaztezinak sortzeko gaitasuna baitu.

Aitaginarreba dantzan jarriko duen **mariatxia,** gerri eta aldakak mugiaraziko dituen **udako kantua**, **balada** erromantikoena, hutsik egiten ez duten **klasikoak**... guztiek dute lekua dantzaldian. Bateko eta bertzeko kantuak tartekatzea izaten da adituek egiten duten gomendioa, **monotonia saihestea**. Giro bikaina sortu eta guztiek ongi pasatzea lortuko duzue horrela.




## EZKON BIDAIAK

# Maleta egin eta aire!

Ezkon bidaiarekin ametsetan ariko dira dagoeneko ezkongai ugari. Lasaitasun bila, abentura gosez, kulturaz blaitzeko edota herrialde exotikoen majiak erakarrita... milaka dira helmugak eta baita bidaia motak ere. Agentziek aurrez prestatutako bidaien artetik bat aukeratu edota momentuan, neurrira osatu liteke bidaia. Oporraldiko datak ezkontza eguna zehaztu orduko jakin ohi direnez, bidaia patxadaz eta nahikoa denborarekin antolatzen hasteko aukera izaten da.










## JATETXEAK

# Zentzumen guztiekin gozatzeko....

Jaki goxoen zaporea, mahaietako dekorazio dotorea, musika atsegina... bost zentzumenekin gozatzen da ezkontza eguneko jatetxean. Senar-emazte bihurtzeko pausoa udaletxe edo elizan ematen den arren, ezkontzako momentu garrantzitsu asko jatetxean bizitzen direlako. Horregatik gauza ugari kontuan hartzea komeni da, jatetxe bat edo bertzea aukeratu aurretik.

### ZENBATEKO DISTANTZIA?

Adituek diote, ez dela komeni ezkontza lekutik jatetxera arteko distantzia oso luzea izatea, gehienbat erosotasunagatik. Batetik bertzera mugitzeko jatetxe batzuk autobus zerbitzua eskaintzen dute eta horregatik, norbere aldetik garraioaz arduratzen hasi aurretik, aukera hau ba ote duten galdetu ezazue.

### ZER ESKAINTZEN DU TOKIAK?

Haurrentzako jolastokia, lorategi apainak, ongi etorri koktela eskaintzeko txokoa... Jatetxera sartzeko oztoporik ba ote dagoen ere ikusi: gurpildun aulkian daudenek edota adinekoek trabarik izan ez dezaten.

### MENUA?

Jatetxeek menu aukera zabala eskaintzen dute eta gainera, bikote bakoitzaren nahietara egokitzeko askatasuna ere izaten da. Menu bereziak (zeliakoentzat, begetarianoak...) prestatzen dituzten ere galdetu, gonbidatu guztiek banketeaz gozatu dezaten.







ETXALAR
HOTEL-VENTA
Iruñea - Irun errep. 60km
31760 ETXALAR
T. 948 635 000 | F. 948 635 263
info@etxalar.com
www.etxalar.com
EZKONTZA ZIBILAK
ORAIN AZKUA ARETO BERRIAN
EZKONTZA ZIBILAK OSPATZEKO
AUKERA ESKAINTZEN DIZUGU
EGUN OSOA, INORA MUGITU GABE,
BERTAN PASA DEZAKEZUE:
ZEREMONIA, BANKETEA
ETA DANTZALDIA
· 275 lagunentzako jantokia
· Ezkontzetako menu aldagarria
· Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
· Eguraldi onarekin musika terrazan
· Ongi etorri koktela
· Lunch afariak
· Gaua hotelean pasatzeko prezio
bereziak taldeentzako
· SUITA OPARITZEN DUGU EZKONTZA GAUEAN










## JATETXEAK

# Amaierarik gabeko besta...

Eguerdian hasitako ezkontzak luzatu eta aunitzetan goizaldeko ordu ttikiak arte irauten du bestak. Gonbidatuak gustura egon eta gozatu dezaten dantzaldiaz gain, zerbitzu eta aukera desberdinak ere badira:

### INDARRAK HARTU ETA SEGI!

Hango tragoxka, hemengo dantza... indarrak hartu behar izaten dira erritmoari eusteko. Horrelakoetan, ohikoa izaten da gonbidatuei bokadutxo bat eskaintzea. Gazitik edo gozotik jo dezakezue eta jatekoa modu desberdinetan aurkeztu. Modu tradizional edo modernoagoan egindako pintxo bero eta hotzak, txokolatezko iturria, mota guztietako goxoekikin osatutako mahaitxoa. Inork ezin izanen dio tentazioari eutsi!



### ADRENALINA ETA DIBERTSIOA TOPERA!

Ohiko ezkontzetatik urrundu nahi izaten dute ezkongai ugarik eta topikoetatik ihes eginaz, gonbidatuei ezustekoa ematea dute helburu. Bazkalondoan dantzaldiari paso eman aurretik, ekintza desberdinak antolatzen dituzte eta jatetxeen laguntza izaten dute horretarako. Aukera ugari daude, errate baterako, oparitxoekin tonbola bat egin, adrenalina maite dutenei tirolinan jauzi bat egiteko aukera eman, zaku karrera batean indarrak neurtu edo altxorraren bila jolastu. Ez du inork esperoko eta seguru jolasean ongi pasako dutela.








# - Leku berezi eta paregabea -

Natur inguru pribilegiatuan kokatua,
Bidasoa bailararen ikuspegi zoragarria eskaintzen duena
Zure gonbidatuek nekez ahaztuko duten lekua





**Bista** izugarriak dituen **130 pertsonentzako jantokia**, **terraza** nagusirako sarbidearekin.
**Karpa** jartzeko **lorategi** aproposa dauka, koktelak, dantzak edota **gonbidatu** kopurua **200** arte igo ahal izateko aukera ematen duena.





# - Ezkontza esklusiboa -

Egun berezi horretan **Okalarre zuentzako bakarrik** izanen da, **ordutegi mugarik gabe**
**Zuen gustuko ezkontza** diseinatu ahal izango duzue
(erromantikoa, vintage, berritzailea, tradizionala, koktel modukoa, originala, intimoa, karparekin, zibila...)
giropena, dekorazioa, menua (ospe handiko katering-ak edo gure sukaldariek landua) **erabat pertsonalizatuz**.
Ospakizun zibilak ere bertan egin daitezke.
Okalarreraino iristeko **garraioaz gu arduratuko** gara

*Mugak zuk bakarrik jar ditzakezu, zure irudimena libre utzi!!!*
*Etorri eta kontaiguzu zein den zure ametsetako ezkontza, guk gauzatuko dugu!*

CATERING-ak: BOKADO Divinus catering

Ibardingo errepidea (Elzaurdia) 31780 BERA (Nafarroa) M. 650 981 950 T. 948 631 658 e. info@fincaokalarre.com
**www.okalarre.com**

# BERA

**GIZARTEA** → AUTISMOA DUTENEI LAGUNTZEKO

## Piktogramak paratu dituzte hamar udal eraikinetan

ANAren ekimen honekin bat egin duen eskualdeko lehen herria

**TTIPI-TTAPA**

ANA elkarteak (Nafarroako Autismoaren Elkartea) gauzatzen ari den kanpainarekin bat egin du Udalak eta autismoa duten pertsonei laguntzeko piktogramak ezarri ditu hamar udal eraikinetan. Gaurgero Nafarroako 18 udalek bat egin dute kanpainarekin baina Iruñetik hona lehenbizikoa da Berakoa.

Hain zuzen, martxoaren 2an sinatu zuten elkarlan hitzarmena Marisol Taberna alkateak eta Amaya Ariz, ANAko presidenteak eta aldi berean, udal eraikinetan paratuko diren hamar piktogramak jaso. Hain zuzen, gauzak eta ekintzak modu xinplean azaltzen dituzten irudiak dira piktogramak, ez dituztenak hitzak agertzen, errealitateak baizik. Eguneroko ekintzak errazago ulertzeko erabiltzen dituzte autismoa duten pertsonek. Erraztasunak emateaz gain, autismoaz sentsibilizatzeko baliagarria da kanpaina hau, ikerketen arabera, gaur egun 68 jaioberrietako bati eragiten baitio sindrome honek.

Ekitaldian bat egin zuten Jose Enrique Arburua eta Maitetxu Leonis senar-emazteek eta autismoa duen Iker seme nagusiak, baita honen irakasle terapeutikoa den Inaxio Sansiñenak ere. Bertzeak bertze, Herriko Etxean, liburutegian, kultur etxean, ikastetxean, osasun zentruan, musika eskolan, zahar etxean edo parkean jarri dituzte piktogramak.


UTZITAKO ARGAZKIA
Alkatea, ANAko presidentea eta Iker, bere guraso eta irakaslearekin.

### ? Ba al zenekien

**Gaztetxe kanpoan eraikitzen ari diren Bowlari azken bultzadatxoa emateko auzolana deitu duela Kaxernak larunbat honetan 10:00etan. Goizeko txanda bakarrik eginen dute, arratsaldean Korrikan parte hartzeko.**

---

**BIDASOKO HAZIEN SAREAK MARTXOAREN 28AN**

## Hazien Eguna antolatu dute bigarren urtez

**TTIPI-TTAPA**

Bidasoko Hazien Sareak bigarren urtez Hazien Eguna antolatu du Beran martxoaren 28an. Larunbat goizeko 10:30ean hasiko da, Rikardo Baroja eskolako idorpean. Han mahai batzuk izanen dira, ekartzen diren haziak paratzeko, eta noski, han direnak nahi dituenak hartzeko. Mahai horien inguruan, hazi bakoitzari buruzko ezagutzak elkarbanatuko dituzte: Nondik lortuak diren, noiztik egiten ditugun, horietatik sortzen diren landareak nolakoak diren, zein berezitasun dituzten...: «Iaz solasaldi aski ederrak izan genituen Hazien mahaien inguruan!».

Hamaiketakoa egiteko aukera izanen dute, etxeko artoa baliatuz prestatutako janariak izanen baitituzte. Eguerdi aldera Solasaldi Irekia ere eginen dute. Bakoitzak zer ikasi edo mintzatu nahi duen erran ahal izanen du, eta gai horien arabera taldetan bildu eta arituko dira. Bidasoko Hazien Sareak, bere aldetik, landareetatik haziak nola eskuratu ikasteko tailerra proposatu du. Besta borobiltzeko, bazkaria eginen dute: Norberak etxean prestatutako ilarrak eta barazkiak ongi etorriak izanen dira, eta bertan prestatutakoarekin batean, bazkari eder bat osatzea espero dute.

---

## FLASH

### Konpostaren inguruko saioak

Martxoaren 23an, astelehenean 19:00etan gaztelerаz eta martxoaren 25ean, asteazkenean 17:00etan euskaraz eginen dituzte konpostaren inguruko saioak Beralandetan.

### Aulki hutsak dokumentala

Martxoaen 23an, astelehenean 17:00etan *Aulki hutsak* dokumentala eskainiko dute Beralandetan eta Mirentxu Goietxe izanen da hizlari.

### Organoaren artea Bidasoaldean

*Haizea eta ura: Organoaren artea Bidasoaldean* dokumentalaren aurkezpena eta organoaren bisita gidatua eginen dituzte martxoaren 27an, 19:30ean San Esteban elizan, elebitan.

### Haurrentzako ipuin kontalariak

*Kamishibaiak, ipuin txikiak* kontatuko ditu Ixabel Milletek hilaren 27an liburutegian 18:00etan.









**GIZARTEA ➜** OTSAILAREN 21KO BATZARRA

# Kiroldegiko gimnasioa lekuz aldatzeko lanak eginen dituzte

Lehen solairura eramanen dute tresneria eta libre gelditzen den tokian kafetegia jarri gogo du Udalak

**Aitor AROTZENA**

Udal igerilekuetako gimnasioa lekuz aldatzeko obrak Sarobe eraikuntza enpresak eginen ditu 41.119,35 euroren truke. Lana lehenbailehen hasteko asmoa du Herriko Etxeak eta behin hasita, hilabete eta erdiz bukatuko litzateke.

Gaur egun gimnasioa hartzen duen lekua hustu eta bertan ostatua instalatzeko asmoa ere badu Udalak eta lan horren hasierako aurrekontua 55.244,52 eurokoa izanen litzateke, nahiz eta proiektuan egin diren aldaketa batzuk tarteko, merkeagoa ere egin daitekeen. Lan honen baldintza plegua argitaratzekotan da Udala eta hasierako intentzioa, ostatua denbora baterako hartzeko prest egonen litzatekeenak obra bere gain hartzea da. Horrela, zerbitzua kudeatuko duenak bere gustura eginen luke moldaketa lana.

Udal kiroldegia duela zazpi urte ireki zenean lehenbiziko solairuan zegoen ostatua, orain gimnasioa hartuko duen lekuan, baina duela urte batzuk itxi zen. Orain, ostatua beheko solairuan jarrita sarbidea erraztu nahi da, kiroldegiko erabiltzaileendako nahiz erabiltzaile ez direnentzako.

## Dantzaz konpainia Harriondoan

Dantzaz konpainiak, *Itzalak-txoriak. Arriaga eta Laboa, dantza bidez elkarturik* ikuskizuna eskainiko du Harriondoa Kultur Etxean martxoaren 28an, 20:00etan. Sarrera 12 euro kobratuko da. Aitzinetik Udal kiroldegian eta Xagu, Telletxea eta Legarra liburudendetan eros daiteke. Aitzinetik denak saltzen ez badira, egunean bertan ere saldu ko dituzte Harriondoan, 19:00etatik aurrera.



UTZITAKO ARGAZKIA

## 154 zuhaitz landatu dituzte Arbolaren Egunean

Otsailaren 21ean eta 28an aurtengo Arbolaren Egunaren landaketa egin zen Gardelkopagoeta inguruan.Eguraldiak ez zuen batere lagundu eta horrek parte-hartzea oztopatu zuen, baina halere 136 zuhaitz (50 pago, 50 bertako haritz, 30 lizar, 2 gereziondo eta 4 intxaurrondo) landatu zituzten. Irain eta Tantirumairuko haur eta gurasoak aritu ziren lanean eta azken urtean haurrak izan dituzten Arcelor Mittaleko langileek ere parte hartu zuten landaketan.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Beti Gazteko mendizaleak kostako bidean

Beti Gazte elkartearen 75. urteurrenaren baitan, txango bereziak egiten hasiak dira, kostaldean barrena. Martxoaren 1ean Lesaka eta Hondarribia arteko zatia egin zuten (argazkia, herrira bueltatu zirenean) eta martxoaren 29an, Hondarribia eta Donostia arteko zatia egiteko asmoa dute.

**BETI GAZTE ELKARTEAREN ESKUTIK**

## Oinarrizko argazkilaritza digital ikastaroa

**A. AROTZENA**

Oinarrizko argazkigintza digital ikastaroa eskainiko du Irantzu Pastor argazkilariak apirilean eta maiatzean Beti Gaztek antolatuta. 24 orduko ikastaroa izanen da. Zortzi klase Harriondoan eskainiko dituzte asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara eta argazki praktikak egiteko bi irteera eginen dituzte bi larunbatetan. Beti Gazteko bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte ikastaroarengatik eta bazkide ez direnek 80 euro. Izen-ematea: 689 285535 (Jon Mtnez).

KSAT TELEKOMUNIKAZIOAK
➤ TDT instalazioak
➤ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
➤ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
➤ Satelite bidezko interneta
➤ Digital + banatzaile ofiziala
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
- ...
kattagorria lentzeria mertzeria
Beheko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Biurrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

# ETXALAR

**GIZARTEA** ➜ PROPOSAMENAK APIRILAREN 10A ARTE

## Herriko Ostatua errentan eman nahi dute berriz

**Irune eta Itsaso**

Herriko ostatua errentan jarri nahi du Udalak lehiaketa publikoaren bidez. Interesa duenak bere proposamena aurkeztu beharko du udaleko idazkaritzan apirilaren 10eko 14:00ak baino lehen.

### Altxatako batzar orokorra

Altxatako urteko batzar orokorra martxoaren 20an izanen da kultur etxean, ortziral arratsaldeko 6:30ean.

### Korrika

Martxoaren 21ean arratsaldeko 16:40 inguruan pasako da Korrika Etxalarko bidegurutzetik. Igantzi aldetik etorriko da eta Lesaka aldera segituko du errepide zaharretik. Aurtengoan herriko erosleak 5 izan dira: Altxata, Etxalarko gazteak, Udala, Guraso elkartea eta azkenik Herriko okindegia, Elutsa ostatua eta plazako denda. Guztiak gonbidatuak zaudete aurtengo korrikaren edizioan parte hartzera.

### Zanpingorri martxoko ateraldiak

Martxoaren 22an Monozorrotzera (Urroz) joanen da Zanpingorri mendi taldea eta martxoaren 29an Alkurruntzera.

### Aurkezpena eta argazki erakusketa

Ixiar Rozasen *Beltzuria* liburuaren aurkezpena izanen da martxoaren 19an, 18:00etan kultur etxean. Ondotik mokadua izanen da gerturatutakoentzat eta gero 19:30ean Ibon Azpilikuetaren eskutik *Pakistan barrutik* argazki erakusketa.

### Mendi itzuliko bideak ikusten

Martxoaren 1ean Zanpingorri mendi taldeko kideak Etxalarko II. Mendi itzuliaren zati bat egin zuten. Garbitu beharreko lekuak zein ziren ikusi eta martxoaren 8an bide horiek garbitu zituzten (argazkian). Ondorengo igandeetan ere ibilbidearen bertze zatiak txukuntzen segituko dute.


ARGAZKIA: MATTIN ZELAIETA
Zanpingorri taldekoak mendi itzulia prestatzen.


ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### 40 gazte sagardotegian

Martxoaren 7an herriko 40 bat gazte Hernaniko Iparragirre sagardotegira joan ziren. Urtero bezala giro ederrean pasa zuten eguna eta gaua.


ARGAZKIA: BENANTXIO ELIZAGOIEN

### Mus eta partxis txapelketa Larraburuan

Otsailaren 28an egin zen mus eta partxis txapelketen akaberako bazkaria. Musean txapeldunak Pello Apezetxea eta Jose Jabier Zubieta izan ziren eta bigarrenak Santiago Olasagasti eta Joxe Mari Olagarai. Partxisean berriz irabazleak Asun Elizalde eta Birjinia Arburua izan ziren eta bigarrenak Juanamari Arburua eta Enkarna Iparragirre.









# IGANTZI

KIROLA ➜ MARTXOAREN 22AN

## Herri Kirol Jokoetako jardunaldi erabakigarria igandean herrian

Martxoaren 29an Arbizun jokatuko den txartelaren bila lehiatuko dira Irrisarri taldeko neska-mutikoak ere

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 22an jokatuko da Igantzin Nafarroako Haurren Herri Kirol Jokoak Txapelketako laugarren saioa. Igande goizeko 11etan hasiko da. Jardunaldi honen ondotik jakinen da martxoaren 29an Arbizun jokatuko den finalean zein talde lehiatuko diren. Igantzitik bi talde ari dira parte hartzen proba konbinatuan, Irrisarri Taldearen izenarekin. Batean 9-11 urte bitartekoak aritzen dira, kimuak kategorian. Bertzean 12-14 urte bitartekoak, haur mailan, eta bigarren talde hau osatzeko Arantzako eta Berako gaztetxo batzuk elkartu zaizkio. Berroetan jokatutako bigarren jardunaldian, bi taldeak bosgarren izan ziren, beraz, koxkatxo bat goiti egin beharko dute finalean sartu nahi badute (lau lehenbizikoak sartzen dira).



ARGAZKIA: ANGEL URTXEGI

Irrisarri taldekoak lan bikaina egiten ari dira aurtengoan ere.

### Korrika, triki-poteo eta bertso afaria

Martxoaren 21ean pasatuko da Igantzitik Korrika. Lehen kilometroa udalak eginen du, 4:00ak aldera, Aiestenekobordatik hasita. Hurrengoa eskolak eta guraso elkarteak eginen dute, Garroberritik rotondaraino. Hortik beheiti Igantziko Biltokik eta herriko gazteek eginen dute laster. Eguna borobiltzeko, Igantziko Biltokik antolatuta, triki poteoa izanen da 20:00etan, eta ondotik, 21:00etan, bertso afaria Julio Soto eta Iker Zubeldiarekin.

### Turismoko Saria Irrisarri Landentzat

Nafarroako Turismo Kontseiluak Irrisarri Land turismoko gunea proposatu du 2015eko Reyno de Navarra Turismoko saria jasotzeko "Turismo-zerbitzuak ikertu, garatu, berritu eta emateko" modalitatean, landa-turismoko ekimen berritzaile eta integrala izateagatik; haren barnean sartzen dira: hotelean ostatu hartzea nahiz naturan bertan, basoan dauden etxoletan, eta aisialdiko nahiz kiroletako jardueren eskaintza osoa eskaintzen du (tirolinak, zikloturismoa, mendi-ibiliak, abentura...).




UTZITAKO ARGAZKIA

### Euskararen aldeko murala

Euskara Batzordearen eskaerari erantzunez, gazteek horma margotu dute, euskara erabiltzera animatuz eta aldi berean euskarari arnasa emateko.

URBEN ARKITEKTOAK
ETXEGINTZAN AHOLKULARITZA

ENERGIA ZIURTAGIRIAK
TASAZIO HOMOLOGATUAK
PERITAZIO INFORMEAK
ZAHARBERRITZEAK
ERAIKUNTZA
PROIEKTUEN GAUZATZEA
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK (ITE)
TELF. 688 88 77 77 estudio@urbenarquitectos.com
URBEN EASO 77 S.L ARANTZA, AZKILLARREA 23. DONOSTIA, EASO KALEA 77,7°.www.urbenarquitectos.com

ttipi-ttapa | 634 zk.
2015.03.19

# ARANTZA

**KORRIKA** ➜ EUSKARAREN ALDE LASTERKA

## Martxoaren 27ko Korrika Ttikiak herriko karrikak zeharkatuko ditu

Larunbatean, berriz, Korrika nagusiaren lekukoa hartuko dute herritarrek

**Nerea ALTZURI**

Euskal Herrian barna bi mila kilometrotik goiti eginen dituen Korrikaren lekukoa eskualdean barna ibiliko da asteburuan, eta larunbat honetan, martxoak 21, aranztarrok ere izanen dugu lekukoa eramateko aukera. Igantziko biribilgune inguruan Udaleko ordezkariek hartuko dute lekukoa eta Igantziko Bentetaraino eurek eramanen dute, eskolako lagun eta gurasoei pasatu aitzinetik. Azken hauek Ekaitza Elkartekoei emanen diete lekukoa, hauek Aterpekoei eta Gazte Asanbladakoek hartuko dute gero. Igantziko Bentetatik Etxalar aldera joanen da Korrika, errepide zaharretik. Kontuan hartu, Igantzitik Korrika 16:00 aldera pasako dela.

**KORRIKA TTIKIA**

Korrika Nagusiaren ondotik, Korrika Ttikia eginen dugu Arantzan, eta hau bai, herrian barna. Martxoaren 27an eginen da, 16:00etan Erroitzinekoborda paretik abiatuta. Herriko karriketan eginen den ibilbidean, lekukoa hainbat lagunen eskutatik pasako da: Gazte Asanblada, Guraso Elkartea, Pelle-Ttiki Haur Eskola, eskolako lagunak, Zahar Txoko, Ekaitza Elkartea... Ibilbidea Erroitzinekobordatik hasita, Beheko karrika, plaza, Karrika Nagusia, Osiña Karrika, Larreta, Salbatore Karrika, Goienburu, Goiko Karrika eta Esto Karrikatik pasako da. Tarte horretan guztian ez da animaziorik faltako.

Ibilbidea bukatuta, plazan berendua eskainiko zaie parte-hartzaile guztiei, musika ere izanen da eta ekitaldi ttiki bat ere eginen da. Animtu euskararen alde lasterketa egitera!



UTZITAKO ARGAZKIA

**Emakume mendizaleak**

Hainbat emakumek parte hartu zuten martxoaren 8an Igantzin eginiko mendi martxan. Tartean, herritarrak izan ziren. Argazkian, ezkerretik hasita, Ixabel, Mentxu, Edurne, bi Kontxitak, Arantxa, Enkarna, Mirian, Ester, Luzia, Gabi eta Maria Jesus. Goiza batzuk, bertzeek, berriz, egun pasa egin zuten La Villan bazkalduz.

### Herrian etxebizitza berri bat eskuratzeko zenbat herritar interesatu dauden jakin nahi du Udalak

Etxebizitza bat eskuratzeko zenbat herritar dauden interesatuak jakin nahi du Udalak. Izan ere, herri sarreran, aparkalekuaren gainean, Iturritzaldean, etxebizitzak egiteko asmoa dago, beti ere, beharra izanez gero. Inguru hori lur urbanizagarria da herriko arau subsidiarioen arabera. Berriki lur horien jabeekin bildu da Udala eta lehenbizi datuak biltzeko gelditu dira, erabaki bat hartu aitzinetik. Interesa duen horrek etxeetara bidalitako papera beteta eraman behar du martxoaren 31 baino lehen. Orri horretan, batetik, Babes Ofizialeko Etxebizitza ala etxebizitza librea nahi den adierazi behar da, eta behin hori zehaztuta, familia bakarreko etxebizitza aislatua, adosatuak edo pisuak nahi diren adierazi behar da.

**KORRIKA TTIKIAREN IBILBIDEA**

| Ibilbidea | Parte-hartzaileak |
|---|---|
| Erroitzenekoborda-Beheko Pisuak | Gazte Asanblada |
| Beheko Pisuak-Berganea | Guraso Elkartea |
| Berganea-Plaza | Pelle-Ttiki Haur Eskola |
| Plaza-Bolinea | Eskolako 3 urtekoak |
| Bolinea-Aterpe | Eskolako 4-5 urtekoak |
| Aterpe-Larreta-Aterpe | Eskolako 1. zikloa |
| Aterpe-Ximonea | Eskolako 2. zikloa |
| Ximonea-Goienburu-Txintxobaita | Eskolako 3. zikloa eta DBH |
| Txintxobaita-Goiko Karrika-Esto Karrika | Zahar Txoko |
| Esto Karrika-Plaza | Ekaitza Elkartea |

## FLASH

### Emakumearen Eguna eskolan

Urtero aldarrikapen eguna izaten da martxoaren 8a eta eskolako ikasleek *zentangle* margoketa teknika erabiliz, berdintasunaren aldeko leloak sortu zituzten. Leihoetan eta patioan paratu zituzten jendeak ikusteko. Kirola izan zen gaia eta leloak hauek: Haur Hezkuntzakoek *neska eta mutila kirola berdina*; lehenbiziko zikloko ikasleek *neska eta mutilak kolore berdinak*; eta zaharrenek, 2. zikloko- ek eta DBHkoek *Martxoak 8, ni emakume nire etorkizunaren jabe*.

### Euskararen egoera hizpide

Herrian euskarak duen egoeraz hausnartzeko bilera irekia eginen da martxoaren 20an, 19:00 aldera Ekaitza Elkartean. Gaian interesa duten guztiek parte har dezakete! Animtu!

### Sexualitate tailerra

*Sexualitatea azaletik* izeneko tailerra eskainiko da martxoaren 20an, 22:00etatik aitzinera eskolan eta aitzinetik afaria eginen da Ekaitza Elkartean. Tailerra irekia izanen da, edozeinek parte hartzeko.

### Eskulan tailerra

5 eta 12 urteko bitarteko haurrentzako eskulan tailerra antolatu du Anixe Elkarteak apirilaren 7tik 10era. 10:00etatik 13:00etara izanen da eta izena martxoaren 31rako eman behar da: 686 589282 edo *anixelkartea@gmail.com*.

### Diru-laguntza

Nafarroako Gobernuak 4.765 euroko diru-laguntza eman dio Udalari, langabe bat kontratatzeko.

**GIZARTEA ➜** MARTXOAREN 8AN

# Bortzirietako emakumeen mendi martxan 65 mendizale



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA
Emakumeak martxoaren 8ko mendi ibilaldiari ekin baino lehen.

## Abelurako itzuliaren eta elkarretatzearen ondotik La Villan bazkaldu zuten

**TTIPI-TTAPA**

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Bortzirietako emakumeen mendi itzulia egin zuten seigarren aldiz Igantzin martxoaren 8an, Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntzarekin.

Igande goizeko 9etan geldit了uak ziren eta beranduxeago abiatu ziren 65 bat emakume Udaletxe paretik eta Abelu aldera mendi buelta egin ondotik, elkarretaratzea egin zuten leku berean. Gero bazkaria izan zuten La Villa jatetxean.

## Berdintasunaren Ginkana arrakastatsua Lesakan

Martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Eguna girotzeko kanpaina berezia prestatu zuen Lesakako Zerbitzuen Elkarteak, Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Hain zuzen, Berdintasunaren Ginkana antolatu zuten martxoaren 2tik 7ra. Elkarteko denda eta zerbitzuetan ikusgai zeuden 40 hitzekin hiru esaldi osatu behar zituzten parte hartzaileek.

Sariak martxoaren 7an, larunbat arratsaldean zozketatu zituzten, Alhondigan Zerbitzuen Elkarteak eskainitako txokolatadan. Lehen saria, 300 euroko erosketa bonoa, Angie Olabe Zapirainek eskuratu zuen, “Gure seme-alabak berdintasunean heziz pertsona autonomoak egiten ditugu” esaldiarekin; bigarren saria, 150 euroko erosketa bonoa, Olarixu Urra Yecorak lortu zuen (“Educando a nuestos hijos-as en la igualdad hacemos personas autónomas”) eta hirugarren saria, 100 euroko erosketa bonoa, Sara Txoperena Lacarek jaso zuen (“Berdintasunean heziz, gure seme-alabak autonomoak egiten ditugu”).




UTZITAKO ARGAZKIA
Berdintasunaren Ginkanan saritutakoak, Lesakako Zerbitzuen Elkarteko Ana Irastorzarekin.





PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea




# SUNBILLA

**OSPAKIZUNAK** ➜ MARTXOAREN 31N

## Malerrekako herri eskolen V. Joko Topaketa herrian berriro

Goizez tailerrak izanen dituzte eta magia arratsaldean

**Maider PETRIRENA**

Malerrekako herri eskolek (Legasa, Beintza-Labaien, Ituren, Narbarte, Saldias eta Sunbilla), V. Joko topaketa eguna antolatu dute martxoaren 31n Sunbillan.

Aurten ere goizeko 9etan hasiko da besta, sei eskoletako ikasle eta irakasleak frontoian elkartuta. Goizez tailerrak eginen dituzte: Herri kirolak, narrasti eta anfibioen tailerra eta plastika tailerra. Arratsaldez, berriz, magia ikuskizuna izanen da.

### Ulibeltzak urteko batzarra

Ulibeltzak elkarteko batzar orokorra martxoaren 21ean arratsaldeko 7etan eginen dute. Aurreko aktaren onespenaren ondotik, 2014ko kontuak, bazkideak eta eskariak eta galderak izanen dituzte gai-ordenean.

### Haur kantariak

Herrian kantua eta musika kontuak indartsu dabiltza azken aldian.Orain Lur Aretoan, martxoaren 21ean, Haur Kantari Txapelketan Sunbillako bi taldek parte hartuko dute:

7-8 urtekoak (Tximista taldea): "Aberriaren mugak" abestiarekin (Txomin Artola): Ahielen Irazoki, Uxue Ibarra, Naroa Petrirena, Uxue Armendariz, June Ayesa, Unax Larraburu, Oihan Apeztegia, Hodei Gastesi.

8-10 urtekoak (Sunbillako bihurrik): "Aurkitu genituen" abestiarekin (En Tol Sarmiento-E.T.S.): Markel Agesta, Maialen Arretxea, Ane Etxalar, Egoi Irigoien, Jone Gorria, Helene Rekarte, Saray Bazterrika, Iradi Arretxea, Iker U-rroz, Enaitz Portu.

Gitarrarekin Igor Arruabarrena; tronpetarekin Aitor Ibarra eta soinuarekin Miren Hernandorena ariko dira.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Herriko panderojoleek ere parte hartu zuten Mendaur eskolak martxoaren 8an Iturenen eskainitako emanaldian.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Malerreka kantuz

Martxoaren 7an hirugarren aldiz Malerreka Kantuz egin zen herrian. Eguraldiak izugarri lagundu zuen eta musikarekin alaiturik herriari buelta eman zioten. Ulibeltzak elkartean akitu zuten eguna, aperitibo eder batekin.



ARGAZKIAK: JOKIN PETRIRENA ETA CONSUELO IRIARTE

### Kinto afariak

1959-1960an jaiotakoek otsailaren 28an ospatu zuten kinto besta. Hurrengo larunbatean berriz, martxoaren 7an, 1957an jaiotakoen txanda izan zen.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

### Ulibeltzak mendi taldea Xabierrera

Ulibeltzak Mendi taldeak irteera egin zuen martxoaren 7an Xabierrera. Guztira 27,5 kilometro egin zituzten. Eguraldi paregabea izan zuten baina elur gainean ibili behar izan zuten.

**GIZARTEA ➔** MARTXOAREN 10EAN OIBARREN

# Mendialdeko 70 zerbitzuk Kalitatearen aipamena jaso dute berriki

## Eskualdekoak horietatik 27 dira

**TTIPI-TTAPA**

Jarduera Onen Eskuliburuak (JOE) izeneko saria emateko ekitaldia martxoaren 10ean egin dute Oibarko Casa Zabaleta Erretegian. Aipamena 2014an kalitatea kudeatzeko JOE sistemaren alde egin duten 70 establezimenduk jaso dute. Jarduera Onen Eskuliburuak izeneko markak turismo-kalitaterako erreferente izan asmo du. Diplomen banaketan egon ziren: Jose Luis Sanchez de Muniain, Kultura, Turismo eta Instituzioekiko Harremanetarako kontseilaria; Carlos Erce, Turismoko eta Merkataritzako zuzendari nagusia; Pedro Lanas Arbeloa, Oibarko alkatea; eta Jose Maria Aierdi, Cederna Garalur Elkartearen lehendakaria.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oibarko Zabaleta erretegian banatu zituztn aipamenak.

### ESKUALDEKO 27

Bereizgarria jaso duten eskualdeko establezimenduak honako hauek dira:

Donamariako Benta jatetxea (Donamaria), Zugarramurdiko Lezeak, Zugarramurdiko Sorginen Museoa, Zugarramurdiko turismo Bulegoa eta Errotaberri landetxea (Zugarramurdi), Urdazubiko Lezeak eta Irigoienea landa-ostatua (Urdazubi), Zigako Etxezuria landetxea (Ziga), Casa Ostiz denda eta Alustiza lurrin-denda (Doneztebe), Elbeteko ostatua eta Elbetea jatetxea (Elbete), Zubimuxu aterpetxea (Goizueta), Tresanea apartamentuak (Ituren), Jauregia I eta II landetxeak (Aniz), Santxotena parke-museoa, Gontxea eta Lizardiko Borda I eta II landetxeak (Arizkun), Baztan Museoa eta Urruxka eta Ipingi (Elizondo), Kattagorri denda eta Atxaspi hotela (Lesaka), Zubietako errota (Zubieta) eta Elgorriagako hotela eta bainuetxea (Elgorriaga).

2014an zehar, 59 establezimenduk berritu dute turismo-kalitaterako sistema hori, eta 11k lehenengoz jaso dute aipamena. Datu horrek agerian uzten du urtetik urtera gero eta establezimendu gehiagok jasotzen dutela bereizgarri hori; horrela, Nafarroako Mendialdera datozen turistei kalitate handiagoa ematen zaie.



# DONEZTEBE

GIZARTEA ➜ MARTXOAREN 8AN LANDATU ZITUZTEN

## Iaz jaiotako 19 umeek haritz bana dute Bordablanca aldean

Udalak antolatzen duen ekimen honekin ongietorria egiten zaie jaioberriei



UTZITAKO ARGAZKIA

2014an jaiotako haurrak eta gurasoak, zuhaitzak landatzerakoan

Marga ERDOZAIN

Urtero egiten den modura, aurten ere, (pasa den martxoaren 8an) 2014an jaiotako umetxoen familiek Bordablanca izeneko parajean zuhaitz bana landatzeko aukera izan zuten (batzuk bigarren edo hirugarren zuhaitza dagoeneko).

Udalak antolatutako ekimen polit honekin ongi etorria eman nahi izaten zaie doneztebar berriei, (mendian kimu berriak baita herrian ere). Eguraldi bikainak lagunduta hemeretzi txikitxoek, familiek lagunduta, besta polit hau ospatu zuten, hamaiketako ederraz gozatuz. «Umea izan, zuhaitza landatu eta hirugarrena, esaerak dioen bezala, liburua idaztea da, ea nor animatzen den!». Landatutako zuhaitz berri horien jabeak hauek dira: Aimar Iriarte, Iraide Gogorza, Nahia Mubuterria, Oier Mendiburu, Leire Almandoz ,Enaitz Bazterrika, Aritz Telletxea, Ainhize Arnedo, Noa Gallego, Jon Telletxea, Cloe Rey, Aiora Mutuberria, Eneko Mutuberria, Maia Ariztegi, Oihan Telletxea, Alba Zelaieta, June Telletxea, Aimar Elizondo eta Irene Goia.

### Ba al zenekien…?

**Martxoaren 8an ospatzen den Nazioarteko Emakumearen Eguna dela eta, Doneztebeko udalak zineforum antolatu zuela herriko ostatuan *Caramel* filma eskainiz. Ondotik berendutxo ederra dastatu zuten bertaratutakoek.**

### Korrika badator

M. ERDOZAIN

Martxoaren 19an Urepeletik abiatuko den Korrika martxoaren 20an Baztanen sartuta Iruñerako bidea hartuko du. Almandozen korrituko dira Malerrekan erosi diren kilometroak, horien artean Mankomunitateak erosi duena baita San Miguel eskolak, Doneztebe Futbol taldeak eta Mendaur eta Erreka guraso elkarteek erositakoa ere. Egun horretan ere, San Miguel eskolak korrika txiki ospatuko du herriko karriketan barna.

IZEN EMATEA MARTXOAREN 27A BAINO LEHEN EGIN BEHAR DA

## Aste Santuko oporraldirako ludoteka antolatu du Udalak

M. ERDOZAIN

Aurten ere ludoteka zerbitzua martxan jarri du Udalak. Oraingoan Aste Santuko oporraldietarako antolatu du, hau da Bazko Asterako, apirilaren 7tik 10era. Ludoteka zerbitzu hau 3-11 urte bitarteko umeendako zuzenduta dago eta Eskolako gimnasioan burutzen da, goizeko 9etatik 12etara. Prezioari dagokionez, 30 euroko tarifa ordaindu behar da. Horretaz gain, aipatu behar da Udalak kuota berezia baduela Aste Santuko ludoteka eta udakoa aukeratzen dituenarentzat. Abonamenduak 180 eurokoak dira  Udako ludoteka ekainaren 22tik irailaren 4ra bitarte antolatuko da eta  prezioak honako hauek dira: uda osoa 150 euro, hilabete bat 80 euro, hilabete erdia 40 euro. Prezio hauek deskontuak ere badituzte: %25ekoa familia bereko bigarren haurrarentzat, %50a familia bereko hirugarrenarentzat eta %20a famili ugariarentzat. Interesatuek argibide gehiago Doneztebeko udalean jasotzen ahal dituzte edo 948 450017 telefonora deituz.  Aste Santuko ludotekari dagokionez, aipatu behar da martxoaren 27an eguerdiko 12etan akituko dela apuntatzeko epea.

## FLASH

### Barreterapia saioa hilaren 27an

Mendaur eta Erreka guraso elkarteak martxoaren 27an (ortzirala) barreterapia saio bat antolatu dute 14:30etik 16:00etara. Formakuntza barrenean oraingoan terapia hori ezagutzeko aukera izanen da. Aipatu behar da DBHko 2. mailako ikasleekin antolatu dela eta oraingoan guraso, atautxi-amatxi eta irakasleendako ere planteatu dela.

### Askin Haur Eskolan matrikulazioa

Ate-idekien jardunaldiak akituta Askin haur eskolak 2005-16 ikarturterako matrikulazio kanpaina abiatu du, martxoaren 18an azkeneko eguna izanen da. Interesatuek udaletxera deitu behar dute 948 450017 edo Askin haur eskolara 948 451868.

### Doneztebe Futbol taldeko infantilak

Doneztebe Futbol Taldeko infantilak lehenak izan dira bere multzoan. Javier Jabalera eta Fernando Quimbiambok prestatzen dituzten mutikoek bigarren faseari ekinen diote orain. Lehen fasean bikain ibili dira infantilen lehen mailako hirugarren multzo horretan, 18 partidetatik 2 bakarrik galdu baitituzte. Etxean, jokatutako bederatziak irabazi dituzte. Bada zerbait!

### Zinema igandean

Martxoaren 22an, igande arratsaldeko 4:30ean *Dolitte doktorea 3* filma eskainiko dute zineman.

**GIZARTEA ➜** LANGABEZIA PRESTAZIOA KOBRATZEN EZ DUTENAK GEHIAGO DIRA KOBRATZEN DUTENAK BAINO

# Eskualdean 1.221 langabetu zeuden otsail hondarrean

## Ilbeltzean baino 37 guttiago

**TTIPI-TTAPA**

2014. urte bukaeran 1.184 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak, baina ilbeltzean 74 lagun gehiago gelditu ziren lanik gabe. Otsailean, aldiz, beheitik egin du langabeziak eta 1.221 lagun zeuden lanik gabe, ilbeltzean baino 37 guttiago. Nafarroa osoan % 0,77 jautsi da langabezia eta Doneztebekoa izan da jautsiera nabarmenenetakoa izan duen bulegoetako bat (-%2,94). Otsailean 482 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 53 bakarrik mugagabeak.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 543 lagun daude langabezian, urtarrilean baino 31 guttiago. Adin tarte horretako emakumeen artean ere urtarrilean baino 3 langabetu guttiago daude, 569.

**LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2015eko otsaila**

| Herria | Populazioa 2014 | Lanik gabe guztira | Langabezi-prestaziorik kobratzen dute? | |
|---|---|---|---|---|
| | | | EZ | BAI |
| ARANO | 111 | 7 | 2 | 5 |
| ARANTZA | 629 | 24 | 11 | 13 |
| ARESO | 266 | 8 | 5 | 3 |
| BAZTAN | 7.848 | 318 | 165 | 153 |
| BEINTZA-LABAIEN | 234 | 13 | 4 | 9 |
| BERA | 3.760 | 166 | 77 | 89 |
| BERTIZARANA | 602 | 35 | 17 | 18 |
| DONAMARIA | 456 | 17 | 11 | 6 |
| DONEZTEBE | 1.644 | 110 | 69 | 41 |
| ELGORRIAGA | 226 | 15 | 6 | 9 |
| ERATSUN | 160 | 12 | 4 | 8 |
| ETXALAR | 819 | 24 | 11 | 13 |
| EZKURRA | 152 | 8 | 3 | 5 |
| GOIZUETA | 747 | 34 | 14 | 20 |
| IGANTZI | 625 | 19 | 7 | 12 |
| ITUREN | 525 | 30 | 16 | 14 |
| LEITZA | 2.906 | 153 | 81 | 72 |
| LESAKA | 2.742 | 127 | 64 | 63 |
| OIZ | 140 | 11 | 7 | 4 |
| SALDIAS | 118 | 10 | 5 | 5 |
| SUNBILLA | 650 | 35 | 19 | 16 |
| URDAZUBI | 392 | 10 | 4 | 6 |
| URROZ | 179 | 6 | 3 | 3 |
| ZUBIETA | 319 | 18 | 10 | 8 |
| ZUGARRAMURDI | 225 | 11 | 6 | 5 |
| **Denetara** | **26.475** | **1.221** | (%50,86) **621** | (%49,14) **600** |

25 urtez beheitiko gizasemeen artean, aldiz, 2 lagun gehiago daude langabezian, 65 lagun, eta adin tarte horretako emakumeen artean urtarrilean baino 5 langabetu guttiago dago, 44.

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, baina otsailean baino 22 guttiago dira, 836. Industria arloan ere 8 langabetu guttiago daude, 176. Eraikuntzan ere 6 langabetu guttiago daude, 120. Nekazaritzan ere 2 lagun guttiago daude lanik gabe, 25 denera, baina aitzinetik lanik egin ez dutenen artean 64 lagun daude langabezian (+1).

**MALERREKA**

## Gure Esku Dago ekimenak hiru mendi martxa antolatu ditu hilabete honetan

**TTIPI-TTAPA**

Malerrekako Gure Esku Dago batzordeak martxorako hiru mendi martxa antolatu ditu. Lehendabizikoa martxoaren 14an Legasatik eta Donamariatik Txarutara abiatu zena eta Donamariko Ostatuan egin zuten bazkaria. Bigarrena, martxoaren 21ean (larunbata) eginen da, Mendaurrera Sunbillatik eta Aurtiztik abiatuta. Sunbillan 08:30ean abiatuko dira plazatik eta Aurtitzen tailer ataritik ordu berean. 10:30ean Bustitzeko kaxkoan elkartuko dira eta Mendaurren gosalduko dute (bakoitzak berea eraman). Nahi duenak, bere herritik ere joan daiteke.

Hirugarren ateraldia, berriz, martxoaren 29an (igandea eta goizeko zortzietan) Doneztebetik Leurtzako zirkura abiatuko da (Bonozorrotz mendi kaskora igoz). Hiru mendi martxa hauetan argazkiak eginen dira Gure Esku Dago ekimenaren aldarrikapena eginez.

**BAZTAN**

## Ekonomia mintegian krisia gainditzeko logiken beharraz

**TTIPI-TTAPA**

Hazitik hoziek antolatutako Baztango ekonomia mintegiaren hondar saioan bizitzen ari garen alderdi ezberdinetako krisiaz aritu ziren. Alex Arizkun NUP-eko ekonomia irakasleak krisi ekonomikoaz gain krisi sozial eta ekologiko bat bizitzen ari garela aipatu zuen. Krisi horiek ezin dira elkarrengandik bereizi eta konponbideak ere osoa izan beharko du, bertzenaz ez baita egiazko konponbiderik izanen. Krisi sozialari buruz aritzerakoan 1970. hamarkadan hasitako eskubide sozialen galeraren ondorioz ezberdintasun sozialak handitzen ari direla aipatu zuen. Horri elkartasunak gibelerat egin duela gehitu zion eta kohesio soziala arrailtzen ari dela. Bertzalde, krisi ekologikoari buruz lurraren mugak gainditzen ari garela ohartarazi zuen, energia iturriak, hainbat lehengai, ura... agortzen ari garela; eta gainera sumideroak gainezkatzen. Krisiari buruz politika neoliberalak nagusitu dira zero defizitaren bila austerirate politikak bulkatuz eta sekulako hondamendi soziala eraginez. Politika sozialdemokratek laztura sozialari kasu gehiago egiten badiote ere ekonomiaren hazkunde beharrean oinarritzen dira, baina lurraren mugak ikusita hori ez da bideragarria. Hortaz, logika berriak bilatu behar dira.

ttipi-ttapa | 634 zk.
2015.03.19

# ITUREN

**OSPAKIZUNAK** ➜ MARTXOAREN 8AN

## Giro ederrean joan zen martxoan ospatu zen artisau eta lanbide azoka

Emanaldia eskaini zuten Mendaur trikitixa eskolakoek

**Arkaitz MINDEGIA**

Eguraldia lagun zuela, martxoaren 8an ospatu zen azoka jendetsua izan zen. Beti bezala gisa guzietako postuak zeuden. Mendaur trikitixa eskolako ikasleek ere parte hartu zuten. Kalejira egin ondotik plazan beraien erakustaldia eskaini zuten.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA
Mendaur trikitixa eskolako ikasleek ere parte hartu zuten azokan.

### Ekitaldiz beterik Pulunpa eskolakoak

Udaberria ate joka dugun honetan Pulunpa eskolakoek Zuhaitzaren Eguna eta Korrika ttikia ospatu zituzten. Eguraldiarengatik atzeratu behar izan zuten Zuhaitzaren Egunean 70 bat zuhaitz landatu zituzten Lantxada inguruan martxoaren 12an.

Bertzalde, Korrikako edizio guzietan bezala Korrika ttikia antolatu zuten martxoaren 17an arratsaldean. Korrika eginez, abestia kantatuz, ederki pasatu zuten egunean eta aurretik ere, abestia landuz, petoak eginaz, Korrikarekin jolasten…

Eta berehala urteroko zita ere helduko zaie Pulunpa eskolakoei, Malerrekako eskola ttikien joku topaketak ospatuko dituzte Sunbillan. Egun guziko egitaraua dute prest, narrasti eta anfibioen erakustaldia, herri kirolak, esku lanak eta arratsaldean Txan magoarekin.

Egitaraua bukatzeko Malerrekako eskola ttikietako irakasleek ELA kanpainarekin bat eginen dute eta bustialdi bat hartuko dute gaixotasun hau dutenei babesa azaltzeko.

Jadanik aurrematrikulazio epea itxita dago Pulunpan eta hurrengo ikasturtean 9 ikasle berri izanen dira: Eneko Apeztegia, Oihana Aragon, Dorleta Arana, Aimar Bazterrika, Llubia Briancean, Beñat Elizondo, Izaro Ezkurra, Maialen Goizueta eta Beñat Perurena.

### Alazne Untxalo bikain bertsotan

Nafarroako bertsolari txapelketako finalaurrekoetan, Berriozarko saioan ederki aritu zen Alazne Untxalo. Lasai eta txukun abestu zuen, baina finaletik urrun gelditu zen, bertsolari haundiak baitzituen parean. Halere txapelketa polita egin du.

### Ander Erasun Azpitxapeldun

Urrezko Aizkorako finala jokatu zen martxoaren 8an Azpeitian. Lehenengo mailan Jon Rekondorekin batera aritu zen Ander Erasun. Beraien lana ederki egin zuten, gogor estutuz aurkariei, baina iazko txapeldunek, Atutxak eta Mugertzak, jantzi zuten txapela. Atsedenalditxoaren ondotik Urrezko Aizkorako banakako txapelketa prestatzen hasiko da Erasun.









# ZUBIETA

**GIZARTEA ➜** BERTZE HAINBATEKIN BATERA

## Kalitatearen aipamena jaso du errotak

Edorta Murua izanen da errotazaina

**Fermin ETXEKOLONEA**

2014an kalitatea kudeatzeko JOE sistemaren alde egin duten Mendialdeko 70 zerbitzuen artean dago Zubietako Errota eta aipamena jaso du berriki. Errotazaina ere aukeratu dute, bigarren deialdiaren ondotik, Edorta Amurua izanen da errotazaina, urria akitu arte. Iaz, ordezkapenak egiten aritu zen errotan.

### Korrika

Martxoaren 20an pasatuko da. Udalak kilometroa hartu du Iturengo Udalarekin batera. 201. kilometroa, Belate aldean, 14:00ak inguruan. Herriko gazteekin banatua du bere kilometro erdia udalak.

### Gure esku dago

Martxoaren 21ean Gure Esku Dago ekimenak Mendaur mendira irteera antolatu du, Sunbillakoekin batera. Zubieta, Ituren eta Elgorriagak Aurtizko tailerreko ataritik abiatuko dira eta sunbildarrak Sunbillako plazatik, bi taldeak 08:30ean. Asmoa da, Bustitzeko zelaian 10:30 aldera elkartzea eta handik tontorreraino elkarrekin joatea. Beste aukera da urtegian kotxea uztea (09:45 aldera).

### Artisaua

Herriko Ostatuko estalpera egur lanetan aritzen den Lander Urkia artisaua etorriko da martxoaren 28an arratsaldean eta martxoaren 29an goizez. Herriko Ostatuan erakusketa egonen da irekia.



ARGAZKIA: IZASKUN

### Emakumeen afaria martxoaren 7an

Emakumeen nazioarteko egunaren harira afaria antolatu zuten Herriko Ostatuan. 25 emakume elkartu ziren eta giro ederrean pasatu zuten. Herriko Ostatuak musika ere paratu zuen, Joxe Mari, Ainhoa eta Garbiñe hirukotearekin. Musika emanaldia akituta DJ-a aritu zen goizaldeko ordu txikiak arte.

# ELGORRIAGA

**OSPAKIZUNAK ➜** PRESTAKUNTZA LANAK HASIAK DITUZTE

## Malerrekako Eguna herrian eginen dute maiatzaren 30ean

Bestak antolatzeko batzordea ere lanean hasi da gogotsu

**Mattin LARRALDE**

Malerrekako Eguna Elgorriagan egingo da aurten. Horretarako prestakuntza lanak hasiak dira. Maiatzaren 30ean eginen da Malerrekako Eguna.

### Euriteek kalteak eragin bideetan

Otsaileko euriteek herriko bideetan seinalea utzi dute. Uraren bidean erortzak izan dira eta batzuetan, bide guztia itxi ere egin du.

### Besta batzordea ere lanean

Bestak antolatzeko besta komisioa ere egin da eta aurten, aspaldiko partez, gazte aunitzek hartu du parte. Ideia ugari daude eta gauza berri batzuk ere egin nahi dira. Animo eta jarrai gogotsu!



Elgorriagako armarria.



# GIZARTEA

**GIZARTEA** ➜ ELKARRETARATZEA LESAKAN

## Zalaingo lantegiaren egoera kritikoa salatu dute




ARGAZKIA: A. AROTZENA
Condesako langileak, Zalain, Berriobeiti eta Legutiokoak, Lesakako elkarretaratzean.

### Bortzirietako udal ordezkariek Condesako zuzendariekin bildu nahi dute

**TTIPI-TTAPA**

Condesako langileek beraien egoera kritikoa salatzeko elkarretaratzea egin zuten martxoaren 5ean Lesakako Plaza Zaharrean. ELA eta LAB sindikatuek deituta, Zalaingo lantegikoak ez ezik, Berriobeiti eta Legutiokoak ere bildu ziren, Bortzirietako udal ordezkariekin batera.

Hain zuzen, elkarretaratzea baino lehen udal ordezkariekin bildu ziren langileak. Egunotan, elkartasun mozioa eztabaidatuko dute udaletxetan eta horretaz gain, Condesako zuzendaritzarekin bilera eskatzeko asmoa azaldu dute hautetsiek.

Langileek jakinarazi zutenez, Condesaren oraingo egoera larri hau duela urtebete hasi zen, eta handik hona gauzak ez dira hobetu, alderantziz, taldearen bideragarritasuna gero eta gehiagotan jartzen da zalantzan eta norabide arriskutsua da.

ELAko Jose Luis Bakedanok eta LABeko Mikel Agirrek aipatu zutenez, «ia 4 hilabete igaro dira Condesak hartzekodunekin akordio bat lortu zuela iragarri zuenetik. Muga-eguna urtarrilaren 15a bazen ere, ez dugu oraindik berririk jaso, ezta erantzunik ere, eta beraz ez dakigu zein egoeratan gauden orain».

Ustezko akordio harez geroztik gauza batzuk aldatu omen dira, baina kudeatzaileek orduan emandako informazioa baliagarria baldin bada, Euskal Herriko lantegietako bat (Inox) oraingo jabeen eskuetan geratuko da eta bertze hirurak (Berriobeiti, Legutio eta Zalain) zerbitzuekin batera hartzekodunen eskuetara aldatuko dira (banka eta ArcelorMittal), horiekin dagoen zorra kitatzearren. Baina langileek ez dakite akordio hori indarrean dagoen.

ELA eta LABeko ordezkariek salatu dutenez, «iragarri zigutena ez da gauzatu, alderantziz, oso mugimendu kezkagarriak ikusten ditugu, are urduriago jarri gaituztenak: ekoizpena hutsaren hurrengoa da oraindik zenbait lantegitan, eta bertze batzuetan, likidezia eskasiagatik, ezin zaie erantzun bezeroen beharrizanei…». Lantegi guztien bideragarritasuna benetako arriskuan jarri dela diote eta denetan larriena, informazioa falta dela uste dute «etorkizunari buruzko ezjakintasuna».

Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak eta Nafarroako Gobernuko Enplegu Departamentuak uko egin diote langileekin biltzeko eskaerari eta hauek ez dute ulertzen arreta eskas hori, «onartezina baita 800 familiaren bizimoduarekin jolasean ibiltzea». Langileen erranetan, «enpresa estrategiko bat, merkatua duena, hodi soldatuetan liderra, eta plantilla trebatu batekin, ezin da noraezean utzi, Condesaren jardueratik kanpoko zenbait interesengatik».

**ERAGILE SOZIALAK**

### Eskubide sozialen karta aurkeztu dute

**TTIPI-TTAPA**

Euskal Herriko karta sozialaren berri eman dute Lesakako Gazte Asanbladak, Berako Gaztetxeak, Elizondoko gaztetxeak, Baztan-Bidasoaldeko Ernaik, Etxalarko Gazte Asanbladak, ELA eta LABek, Anixe elkarteak, Ikasle Abertzaleak, Arantzako Gazte Asanbladak, Arantzako Ekaitza elkarteak, Lesakako Arrano elkarteak, Berako Espidobaita elkarteak, Baztango AEK eta Jo ala jo kultur taldeak. Orain bi urte Euskal Herriko hainbat eragile sozial eta sindikalek, bere estrategia sozio-ekonomikoan pausu bat aitzinera eman behar zela ikusi eta «Madrilek nahiz, EAE eta Nafarroako parlamentuak ezartzen zituzten murrizketen aurrean eta horrek sortzen zituen emergentzia egoerak gainditze bidean tresna bat behar genuela ondorioztatu genuen, hori da eskubide sozialen karta».






**BERTSOLARIZA** ➜ MARTXOAREN 28AN

# Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala Elizondon



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Duela bi urte Iruñeko Anaitasunan jokatu zen Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala. Aurten, Baztanera bueltatu eta Elizondoko pilotalekuan eginen da.

## Arratsaldeko 5etan hasiko da Baztan udal pilotalekuan

**TTIPI-TTAPA**

Otsailaren 7an jarri zen martxan Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 42. edizioa, 30 parte-hartzailerekin. Orduz geroztik, martxa onean joan da txapelketa eta orain azken txanpan sartu da.

Behin finalaurrekoak amaituta, martxoaren 28an jokatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala eta hitzordua Elizondoko Baztan pilotalekuan izango da.

Oholtzara finalaurrekotatik sailkatuko diren zortzi bertsolariak igoko dira; horien artean jokatuko da Nafarroako txapela. Alaitz Rekondok eta Fernando Anbustegik aurkeztuko dute arratsaldeko 5etan hasiko den finala. Hau idazterakoan, Julio Sotok eta Xabier Terrerosek segurtatua zuten finalerako txartela, Berriozar eta Lesakako finalaurrekoetan nagusitu ondotik. Igande honetan Burlatan egitekoa zen finalaurrekoaren irabazlea eta puntuazioaren arabera, bortz onenak izanen dituzte bertsolagun Elizondon.

Finalerako sarrerak aitzinetik eros daitezke *www.bertsosarrerak.eus* atarian edo honako salmenta puntuetan: Elizondoko Fantxike dendan eta Intza ostatuan, Lesakako okindegian, Leitzako Maimur liburudendan, Lekunberriko Lanbroa liburudendan, Etxarri-Aranazko Xapatero ostatuan eta Iruñeko Karrikiri euskal dendan. Sarrera 18 eurokoa da, 12 euro Bertsozale Elkarteko bazkideentzat eta 16 urtetik beherakoentzat.

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalak saio hutsa baino gehiago izan nahi du, bertsolaritzaren eta euskal kulturaren besta handia, eragile desberdinak bilduko dituena.



# EZKURRA

**GIZARTEA** ➔ HISTORIAKO PASADIZIOAK

## Martin Joaquin de Goñi sekretario errebeldearen istorioak

**Fernando ETXEBERRIA**

Udaletxeko akten arabera, Uskartzekoa zen Martin Joaquin de Goñi Ezkurrako idazkaria izan zen 1890 eta 1898 urteen artean. Lehenbiziko bost urteetan lan ona egin omen zuen, baina hortik aurrera hasi ziren arazoak eta udaletxearekin zuen harremana gaiztotu egin zen. 1897an lana eta soldata kendu zioten, idazkaritzako agiri guztiak berehala entregatzea eskatu eta kargutik kentzea eskatu zion udalak Diputazioari. Eta horren atzean arrazoi garrantzitsuak baziren. Esaterako, bere idazkari lana Ollingo meategietan egiten zuen beste batzuekin bateratzen zuen, aparteko soldata jasoz; bake epaile lana bere gain hartuz, gehiegizko isunak jarri eta kobratzen zituen, Saldiasko maisu lana onartu eta klaserik eman gabe kobratu ere egiten zuen, aldi berean Igaleko maisua eszedentzian izanik. Gainera, berak idatzitako agiri bat aurkeztu zuen alkatearen sinadurarekin, honek deus ere jakin gabe, estankoaren kontzesioa berari emateko; ordezko sekretarioaren izenean (ez zegoen halakorik) balizko ziurtagiri eta dokumentuak sinatu zituen, udaletxeko kideen gaineko akusazio faltsuak egin zituen; udaleko zenbait kontuetan akatsak egin zituen eta horregatik udalak isuna ordaindu behar izan zion Diputazioari…

Salaketa guzti hauek argitzeko Diputazioak parte hartu zuen, udalak eta idazkariak berak aurkeztutako dokumentuak aztertuz eta kargu guztietatik libre utzi zuen, estankoaren kontzesioari zegokiona izan ezik. Martin Joaquin de Goñik bere lana eta zuzentasuna goraipatuz zinegotzi eta epaitegietako arduradunen sinadurak aurkeztu zituen. Halere, dena ez zitzaion borobil atera. Diputazioak alkatearen azalpenak onartu eta idazkariaren eskaera ez baitzuen kontuan hartu. Lan extrengatik zegokiona kobratua baitzuen ordurako.





ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

### 52 lagun Barrankako bertso afarian

Azken bizpahiru urteotan, inauteriak ospatu beharrean bertso afaria egiten da. Aurten, otsailaren 28an Ezkurra, Eratsun eta Leitzako 52 lagun bildu ziren Barranka ostatuan afaltzera, Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsolariak eta Irune eta Itxaso trikitilariak entzutera. Entzun ez ezik, bakar batzuk mexikanak eta abesti zaharrak kantatzera ere animatu ziren. Festa arrakastatsua izan zen eta datorren urtean ere errepikatuko dute, seguru!



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

### Euriaren ondorioak

Inguruko beste herrietan bezalaxe Ezkurran ere bere ondorioak eta aztarnak utzi zituzten otsail hondarreko euriteek. Zehazki, bi bidetan sumatu da gehien, urak hondatu baitzituen eta Erreka baserri ondotik igarotzen den errekak ere lurrak eta zuhaitzak atera zituen. Baselizatik Putzu Haundira doan bidearen metro erdi bat edo eraman zuen errekak.



# GOIZUETA

GIZARTEA ➜ MARTXOAREN 30A BITARTE

## Emakumeak sarean argazki erakusketa ikusgai dago

Chiapasekin elkarlanean proiektuko lanak herriko leku seinalatuetan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 9tik 30era ikusgai dago herriko Osasun Etxean, udaletxean, eskolan eta tabernetan Emakumeak sarean, Chiapasekin elkarlanean argazki erakusketa. Yachil antzetik etxe komunitarioko argazkiak ikus daitezke, Leitza, Goizueta, Arano eta Aresoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Batzordeak eta Nafarroako Ekologistak martxan taldeak antolatutako erakusketa honetan.

### Eskolako ikasleak Aste Zurian

Herriko eskolako neska-mutikoak eskiatzera joan ziren pasa den astean Aste Zuriaren baitan. Ez dugu zalantzarik ederki pasatu zutela eta seguru hurrengo alerako argazkiren bat ere badutela.

### Ikastaro arrakastatsuak

Joan den asteburuan bi ikastaro interesgarritan parte hartzeko aukera izan zuten herritarrek. Ostiralean, dantza afrikarren ikastaroa eskaini zen eta larunbatean xaboia egiteko tailerra Josune Eizmendiren eskutik.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

**Giro ederra emakumeen afarian**

Urteroko ohiturari hutsik egin gabe, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna bazkari eder batekin ospatu zuten herriko adin ezberdinetako 50 bat emakumek. Ohi bezala, sukaldariak eta zerbitzariak gizonezkoak izan ziren. Bazkari bikaina izan zela esan digute emakumeek.

# ARESO

DEIALDIAK ➜ DANTZA TALDEA, PANPANOZIRI, KORRIKA

## Etxean geratzeko aitzakiarik ez

Herri aldizkaria prestatzeko lan taldea osatu nahi dute

Juana Mari SAIZAR

Ekintza ugari jarri dira martxan herrian azken asteetan. Eguraldi onaren eragina izango da agian, edo udaberri usaina... baina badirudi aresoarrak ez gaudela etxean egoteko. Alde batetik festei begira azken urteetan bezala dantza taldea osatu nahi da herrian dantza saioa egiteko. Pasa den urteetan dantzan aritu direnek diote herritar guztientzat oso aberatsa dela eta behin probatzera behintzat animatzeko! Apuntatzeko papera Sastinean dago.

### Panpanoziri aldizkaria

Panpanoziri herri aldizkariaren hirugarren alea prestatzeko lan taldea ere osatu nahi da. Horretarako Sastinean papera jarrita dago eta aldizkaria osatzen lagundu nahi baduzu bertan izena eman edo pasa den urteetan antolatzen ibili den baten batekin kontaktatu.

### Denok Korrikara!

Martxoaren 21ean, goizaldeko 5:00ak aldera iritsiko da Korrika gurera. Aresoarrek Sarriopapel aldean, Leitzako herri sarreran, hasi eta Gipuzkoako mugaraino, Urto ingururainoko hiru kilometro erosi dituzte. Gainera, Korrika egin ondoren gosari eder bat ere prestatu dute herritarrentzat. Pake Tokin, baratxuri zopa izango da partaide guztientzat! Ez dago aitzakiarik etxean geratzeko, euskararen alde korrika egin eta ondoren gosari ederra egiteko! Animatu!



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

**Pilates saioetan 20 laguneko taldea hasi da**

Martxo hasieran hasi da Pilates ikastaroa. Udaletxeko erabilera anitzeko gela berrian ematen da astean bitan eta arrakasta handia izan du. Oraingoz jendea gustora dago. Jarrai dezatela horrela!

# LEITZA

**EURITEA ➜** 283 LITRO BOTA ZITUEN HIRU EGUNETAN

## Uholdeek utzitako kalteak kezka iturri dira

Luizi ugari izan dira, handiena Astibia-berri etxe ondoko magalean

**JM BARRIOLA**

Otsailean egindako euriteak kalte handiak utzi ditu herrian. Metro karratuko 1.100 litro jaso dira ilbeltza eta otsailean Luisenbordako neurgailuan eta horietatik 283 litro otsailaren 25, 26 eta 27an. Horren ondorioz hainbat luizi izan ziren, handiena Astibia-berri etxearen ondoan izan zena. NA-170 errepidera erori zen lur kopuru handiaren ondorioz, herrirako errepide nagusia itxita egon zen ordu batzuz. Horretaz gain, mendi magal berdinean erortza gehiago ere gertatu ziren lur-mugitze handia sortuz. Errepide parean, goragotik doan Plazaolako Natur Bidea ere itxita dago geroztik, 50 metro luzeran puskatu eta ia bi metro hondoratu delako. Egoeraren larritasuna ikusirik Leitzako alkatea hainbatetan bildu da Nafarroako Gobernuko teknikariekin eta zerbait larriagoa gertatu aurretik neurriak hartzeko eta konponketak egiteko eskatu dio. Ministeritzari ere bidali zaizkio eskaerak eta geologo bat ere ibili da egoera aztertzen. Astibia-berri ingurukoaz gain, erortza txiki gehiago izan dira Gorriztarango errepidean, Erasote auzoan eta mendi bide batzuetan.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Lur-mugimendu handiak izan ziren euriteen ondorioz.

### Ba al zenekien… ?

**Mikel Lasartek 2015eko Zuberoko maskaraden inguruko hitzaldia eman zuela Aurrera Elkartean otsailaren 21ean. Eta martxoaren 8an 40 bat lagun Altzurukura joan ziren entzundakoak bertatik bertara ikustera.**



ARGAZKIA: IRIGOIEN

### Aralar musika eskolako ikasleen emanaldiak egin dituzte

Aralar musika eskolako ikasleek hiru emanaldi eskaini zituzten Leitzako zinean martxoaren 3,4 eta 5ean, arratsaldez. Asteartean talde instrumentala aritu zen, asteazkenean pianoa eta ondoren trikitixa, eta ostegunean gitarrak hartu zuen lekukoa. Kontzertu hauekin eskolako ikasleek jende aurrean aritzeko eta trebatzeko aukera izaten dute.




ARGAZKIA: JM BARRIOLA

### Mikel Zabaleta izanen da Leitzako EHBilduren zerrendaburua

Leitzako EHBilduren zerrendaburua Mikel Zabaleta Aramendia abokatua izanen da heldu den maiatzeko udal hauteskundeetan. Martxoaren 6an egindako ekitaldian aurkeztu zuten izendapena eta 60 herritar inguru hurbildu ziren ekitaldira. Ekimen berdinean Hari gara Leitza ehuntzen prozesuaren baitan landutako herri-programaren zirriborroa aurkeztu zuten. Zirriborro hau egiteko hainbat bilera burutu dituzte azken hilabeteetan eta guztira 66 herritarrek parte hartu dute. 7 arlo landu dituzte, 101 proposamen jaso eta horiek kontuan hartuta osatu dute zirriborroa. Orain, leheneste bozketa bat egin ondoren, programa osatuko dute. Ekimen berdinean, Amaia Izkok *Nafarroak erabaki* proposamena aurkeztu zuen.

**GIZARTEA ➜** UPNK KONTRA BOZKATU ZUEN

# 7,8 milioi euroko udal aurrekontua onartu du Balleko Etxeak

Iruritako Dorrea zaharberritzea izanen da inbertsiorik handiena, 531.571 eurokoa

**TTIPI-TTAPA**

7.809.845 euroko diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten Udalak, Bildu eta Baztango Ezkerraren aldeko botuekin eta UPNren kontrakoekin behin behinekoz onartutako udal aurrekontuaren arabera. Zatirik handiena Balleko Etxeari dagokio, 7.130.459 euro, Baztan Ikastolaren aurrekontua 660.486 eurokoa da eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearena 111.900 eurokoa.

Inbertsioetarako, iaz baino %53 gehiago bideratuko du Udalak, 842.585 euro guztira. Iruritako Dorrea zaharberritzeko 531.571 euro erabiliko ditu, baina Nafarroako Gobernuak %25a eta Espainiako Gobernuak %75a ordaintzea espero dute. Oihangintza lanetan 160.000 euro inbertituko ditu Udalak eta erditsua Nafarroako Gobernuak ordainduko du. 125.000 euro karrikak, plazak, espaloiak moldatzeko erabiliko dira, bertze 33.435 euro pistak egokitu eta zolaberritzeko eta 14.395 Oronozen kioskoa egiteko. Bertze 110.000 euro igerilekuko abonamenduetarako zuzenduko dira, kiroldegiaren finantziazioa laguntzeko alegia.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

## 16 komertzio eta zerbitzu Bertan elkartearen Aukeren Azokan

Bertan, ostalari, merkatari eta zerbitzuen elkarteak, aukeren azokaren edizio berri bat burutu zuen otsailaren 28 eta martxoaren 1ean, Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Hamasei bazkidek hartu zuten parte, beraien produktuak pilota plazara eramanez: Ipingi arropadenda, Benar ileapandegia, Piko piko, Arrikulunka kirolak, Baztango sotopilek, Izeta ordulari denda, Pottoki, 3Dekorama Design, Fantxike arropa eta opari denda, Kattalingorri arropa denda, Virgilio oinetakoak, Argibel Optika, Iparla Kirolak, Nafarpress liburudenda, Zangue zapata denda eta Autxitixia Gasnategia. Frontoia girotzeko musika ere izan zen, baita artopilak dastatzeko aukera ere.

## Errelebo kontratua Baztan Ikastolan

Baztan Ikastolak errelebo kontratua betetzeko eta lan poltsa osatzeko deialdia egin du. Eskaera orria eta meritoak aurkezteko epea martxoaren 16tik 30era zabalik dago 09:00etatik 14:00etara Baztango udaletxeko bulegoan. Errelebo kontratuak irauten duen bitartean, aukeratua Lehen Hezkuntzako tutorea izanen da 3. edo 4. mailan, ingelesa irakasteko aukerarekin. Deialdiaren oinarriak *www.baztangoudala.eu*, INEMeko web orrialdean eta *www.navarra.es* web orrialdean aurki daitezke.

## Aroztegia geldiarazteko kontzentrazioa

Baztango aferak baztandarrek erabaki, Aroztegia gelditu goiburupean kontzentrazioa deitu dute Aroztegia eta gero zer? plataformak eta Lekarozko gazteek martxoaren 21ean, larunbatean 17:30ean Elizondoko plazan.

## Energia Gara eta Udalaren arteko hitzarmena

Som Energia-Energia gara sozietate kooperatiboak eta Balleko Etxeak hitzarmena sinatu zuten martxoaren 13an.


F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak ·Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONOZ - MUGAIRI

texartu
bordatuen tailerra

San Frantzisko 8 eta 10 • Alde Zaharra • IRUÑA
T. 948 22 64 95 • www.texartu.com

# BAZTAN

**GIZARTEA** ➔ OINEZ GAILURRA EGITASMOAREKIN

## Euskara mendi gailurretara, herrietara eta baratzetara eraman nahi dute




UTZITAKO ARGAZKIA

Ramontxo Garmendia, Marta Igoa eta Iosune Ortega aurkezpenean.

Baztan Ikastolaren proposamena euskara osasuntsu bizitzeko

**TTIPI-TTAPA**

Iosune Ortegak, Baztan Ikastolako zuzendariak, eta Ramontxo Garmendiak, Oinez Gailurra taldeko kideak, Oinez Gailurra 2015 proiektua aurkeztu zuten martxoaren 5ean Iruñean. Nafarroako Ikastolen Elkarteko Marta Igoaren laguntzarekin.

Nafarroa Oinezek antolatutako ekitaldien harirat Zangozako talde batek iaz paratu zuen abian Oinez Gailurra, mendizaletasuna euskararekin bat egitea xede. Urriaren 18an Nafarroa Oinez Baztan Ikastolak Elizondon antolatuko duela eta, baztandarrek segida emanen diote zangozarrek abiatutakoari.

«Hartara, –Iosune Ortegak aipatu zuenez– mendi eta ibilbideak babesteko proposamena landu dugu guk ere. Eta berrikuntzak gaineratu ere bai. Batetik, Baztango historia eta bizimodua bertatik bertara ezagutzeko 15 ibilbide prestatu ditugu, bat bailarako herri bakoitzeko. Bertzetik, Gutarra kontserba etxea ekimenaren babesle izanik, Nafarroako baratzeak eta bere produktuak ezagutzeko ibilbideak ere prestatu ditugu». Oinez Gailurra Nafarroako, edo bertze edozein lekuko, mendi gailurrak sinbolikoki babestean datza. Lagundu nahi duten pertsonek mendi bat igotzea erabaki eta diru kopuru baten bidez babesten dute. *www.oinezgailurra.eus* webgunean datuak zehaztu ondoren, parte hartzaileak Oinez Gailurraren banderola hartuko du bere etxean. Banderatxo hori igoeraren egunean eramanen du gainean. Horrela, mendizaletasuna eta Baztan Ikastolarekiko eta euskararekiko elkartasuna uztartuko dituzte.

Gutarra enpresak babestu duen ekimen honek Nafarroako Mendizaleen Federazioaren eta Juan Mari Feliu mendizale eta idazle ezagunaren laguntza dauka. Baztango Mendigoizaleen elkarteak ekimenarekin bat egin du eta antolatze lanetan dabil.

**AURTENGO BERRIKUNTZAK**

Oinez Gailurra Baztan atalean, bailarako herri bakoitzeko ibilbide bat egin eta babesteko aukera izanen da. Luzera ezberdineko bi ibilbide eskainiko dira herri bakoitzeko, helduek zein haurrek egiteko modukoak.

Baztan Bailarak 15 herri ditu, 4 kuartel edo eremu geografikotan banatuak: Baztangoiza, Elizondo, Erberea eta Basaburua. Ibilbideak kuartelka prestatu dira eta Baztangoizakoak jada webgunean daude GPS gailuan jaisteko.

Bertzetik, *Oinez Gailurra Gutarra* atalean, Gutarra Kontserba etxeak merkaturatzen dituen produktuekin lotutako ibilbideak daude. Gutarra produktuak ekoizten diren baratzeak bertatik bertara ezagutzeko eskaintza honek Nafarroa Erdialde eta Erriberako baratzeetan barnako ibilbideak biltzen ditu. Informazioa *www.oinezgailurra.eus* webgunean.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Baztan Ikastolako lehen ikasleen eta irakaslearen bilkura

Nafarroa Oinez 2015 antolatzeko lanetan buru belarri dabil Baztan Ikastola, baina ezin aitzinerat egin gibelerat begiratu gabe. Hortaz, bilera hunkigarria egin dute otsailaren 27an, Elizondoko Arriarte Elkartean, lehendabiziko andereñoa izan zen Mari Carmen Goñik eta haren lehendabiziko ikasleek. Aspaldi bezala, andereñoaren argibideak arretaz aditu dituzte 1970ean Baztan Ikastolako lehendabiziko ikasleak izan zirenek. Mahaiaren inguruan, lagun giroan eta afari-merienda goxo batekin, Ikastolaren sorrera sasoiko pasadizoak elkar trukatu dituzte. Andereñoak hantxe izan ditu bere ikasleak, aski koskortuak oraingoan; orduko haurrak, fundamentuzko emakume eta gizonezko eginak. Bileran, bertzeak bertze eta ikastolako irakasle eta ikasle ohiez gain, Iosune Ortega Ikastolako zuzendaria, Elena Zabaleta lehendakaria eta Mikel Irujo, NIEko ordezkaria, izan ziren. Ekimen berezi bezain hunkigarria izan da, oinarria ongi paratzearen garrantzia argi utzi duena.

**OSPAKIZUNAK ➜** MARTXOAREN 21EAN ELIZONDON

# Baztango bigarren Gazte Eguna antolatu dute larunbaterako



UTZITAKO ARGAZKIA
Txarralde taldekoak ere izanen dira larunbateko kontzertuetan.

## Motor txow, aurkezpenak, bazkaria, kontzentrazioa eta kontzertuak izanen dituzte

**TTIPI-TTAPA**

Baztango II. Gazte Eguna antolatu dute martxoaren 21ean Elizondon. Larunbat goizeko 11etan Motor Txow izanen da Elizondoko frontoian, Rallyetako autoen erakustaldia. 13:00etan Askapenaren 2015eko brigaden aurkezpena eginen dute Gaztetxean. 14:00etan bazkaria izanen dute Gaztetxeko gorapean. Sarrerak Elizondoko Intzan, Erratzuko Zubi-puntan eta Doneztebeko Titi ostatuan daude salgai 10 eurotan (kontzertuetako sarrera barne).

17:30ean kontzentrazioa eginen dute plazan, Aroztegiko PSISaren aurka. 18:30ean kontzertua izanen da Intza ostatuan. Gaztetxeko gorapetan pizza eta hanburgesa begetalak ere eskainiko dituzte afaltzeko. 22:00etatik aitzinera kontzertuak frontoian Eztanda, Desegin, Txarralde, Stepi Selektah Bad Souns System, Ahuntzape eta DJ Tape taldearekin. Gauerditik aitzinera, Jevin Senis, Fa Fetxoria eta DJ Aimar Djak ariko dira Gaztetxean.

Elizondo BHI
Diputazio etorbidea z/g · 31700 · ELIZONDO
T. 948 581 805 · F. 948 581 840
ieselizo@educacion.navarra.es
http://ieselizondobhi.educacion.navarra.es

Lanbide Heziketa zikloak: erdi eta goi mailakoak
Administrazioa eta Ekoizpen Mekanikoa
Oinarrizko Lanbide Heziketa:
Administrazio zerbitzuak eta Fabrikazioa eta Muntaia
Heziketa berezia: LHKP egokituak
Goi mailarako sarrera frogarako prestakuntza ikastaroa

**Urki MUNARRIZ ➜** Elizondo LH BHIko ikasle ohia



Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako tituluduna

Ingalaterrako Sussex-eko unibertsitateko Matematika ikaslea

**Zergatik aukeratu zenuen Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako Heziketa Zikloa ELIZONDO LH BHIn egitea?**
Ofizio bat ikasi nahi nuenez, Goi Mailako ikasketa bat egitea erabaki nuen. Matematikak gustoko ditudanez, finantzen inguruko zikloa egitea bururatu zitzaidan, eta zorionez, Elizondoko Lanbide Eskolan egiteko aukera bazen. Bertako ikasle ohiek animatuta matrikulatzea erabaki nuen.

**Institutuan egon zinen bitartean zer moduko esperientzia izan zenuen?**
Ikaragarri ona. Modulua aunitz gustatu zitzaidan, ikasle eta irakasleen arteko giro ona eta klase aktiboak planteatzen ziren. Gaur egun arras garrantzitsuak diren bi alor jorratu genituen: autonomia eta talde lana (batez ere enpresa simulatuan). Hori bai, ez zen dena perfektua izan. Murrizketak direla eta, Euskara eta Gaztelaniako klaseak elkarturik zeuden.

**Ikasketak bukatzeko, enpresetan lantokiko prestakuntza (praktikak) egiten aritu zinen. Praktiketan zer moduz aritu zinen? Eta ondotik?**
Industrias Savidai-en (Lorpen, Etxalar) aritu nintzen arras gustora.Ikasitakoa praktikan jarri nuen eta denetik egiteko aukera eman zidaten, kontabilitate alorrean eta biltegi kontuetan. Atzerrian lan aunitz egiten dutenez, parada izan nuen herrialde ezberdinetako hartu emanak nola burutzen diren ikasteko. Tamalez, ez nuen aukerarik izan bertan jarraitzeko eta lehenik Gales-en Leonardo Da Vinci bekarekin enpresa batean praktikak egitera joan nintzen eta gero Ingalaterrara Ingelera hobetzera, ikastera eta bizi esperientzia izatera.

**Zure esperientzia ikusita, bere ibilbidea planteatzen ari diren ikasleei, ELIZONDO LH BHIra Administraritza ikastera etortzea gomendatuko zenieke?**
Zalantzarik gabe. Beraien gustoko ikasketak badira, Institutuan bertan aunitz ikasiko dute, eta enpresa simulatuan, jakintza horiek praktikatu. Horrez gain, benetako enpresa batean praktikak ere eginen dituzte, kasuistika zabalagoa lantzeko.

**Iñigo SANZ ➜** Elizondo LH BHIko ikasle ohia



EMHZ Mekanizazioko zikloa bukatu zuen duela 5 urte

Gaur egun, Elgoibarko IMHko Ingenieritza ikaslea

**Zergatik aukeratu zenuen Erdi Mailako Heziketa Zikloa Mekanizazioan egitea ELIZONDO LH BHIn?**
Mekanizazioa aukeratu nuen txikitatik gustuko nuelako piezen konformazioan ibiltzea. Hasieran etxeko edozein "txapuza" egiteko, eta orain "Erreka Fastering Solutions" enpresan, finkapen elementuak fabrikatzen eta prozesuak egiten nabil. Elizondon ikasi nuen bertakoa naizelako eta erdi maila deigarria iruditu zitzaidalako.

**Zer moduko esperientzia izan zenuen eskolan egon bitartean?**
Oso ona, bai irakasleekin baita ikasleekin ere. Irakasleak beti laguntzeko prest zeuden.

**Eskolan ari zinela, praktikak egitera joan zinen. Zer moduzko esperientzia izan zenuen? Eta praktikak akitu ondoren?**
Praktikak mekanizatuko enpresa batean egin nituen eta oso gustura egon nintzen. 3 hilabeteko praktiketan asko ikasten da. Ikasten jarraitzea erabaki nuenez, prestaketa kurtsoa Elizondon bertan egin nuen. Eta ondoren diseinu goi mailako ziklo bat egin dut.

**Ikasten jarraitzea pentsatu zenuen, zergatik?**
Tailer batean gustura egon arren, gogorra ikusten nuen egunero 8 orduak makina baten aurrean egotea. Bertzetik titulu eta ezagutza gehiago lortzea garrantzitsua iruditzen zitzaidan nire etorkizunera begira.

**Bide luzea hartu duzu ikasterakoan: Mekanizazioko erdi maila, prestaketa, Diseinu goi maila ta orain Ingenieritza. Pauso guzti hauek ematea baliagarria izan da?**
Izugarri ongi etorri zait behetik hasteak maila altuenera iristeko. Prozesu osoan parte hartzen dutelakoz piezaren diseinutik piezaren mekanizazio momentua arte, eta pixkanaka dena lantzen dut. Horrela ikasitako ezagutza guztiak sendotu eta barneratu ditut. Kurtso bakoitzaren "lan esperientzia" asko baloratzen dut, ikasketez aparte esperientziak erakusten dizulako.

# BAZTAN

**GIZARTEA** ➜ MARTXOAREN 7AN

## Amaiurko gune historiko eta turistikoa inauguratu dute

### Harritik herrira ekitaldian

**TTIPI-TTAPA**

Gaztelua eta ingurunea egokitzeko obrak bukaturik, Amaiurko gune historiko eta turistiko berria inauguratu zuten martxoaren 7ko ekitaldian. Ekitaldia Udalbiltzak, Amaiurko herriak eta Baztango udalak antolatu zuten, "Harritik herrira" goiburupean eta gaztelua jende guztiarentzat irekia dagoela ospatzeko balio izan zuen.

Ekitaldiak gazteluaren inguruko mendi-ibilaldi batekin hasi ziren, eta bertan gertatutakoa oroitarazteko balio izan zuen. Eguerdian izan zen ekitaldi nagusia, monolitoan bertan. Gero, herri bazkaria izan zen, eta, ondotik, musika-emanaldia.

Azken bederatzi urteotan Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoek eta Amaiurko bizilagunek indusketa arkeologikoak egin dituzte. Lur azpian gordeta zeuden aztarnak azaleratu egin dira, Erdi Aroko dorre eta harresiak, XVI. mendearen hasierako baluarteak eta ur biltegia, XVII. mendeko gotorlekuak, etab. Horrez gainera, 2014an Amaiurko gazteluaren sarbide eta plataforma berriak eraiki dituzte, kultur ondare honek merezi zuen estetika zaindu egin da, eta, dagoeneko, eroso eta seguru bisita daiteke.

Antolatzaileek omenaldia egin zieten lanetan parte hartu duten herritar guztiei, eta, oroigarri gisara, plaka bat eman zitzaien.

Mertxe Aizpurua Udalbiltzako lehendakariak zorionak eman zizkien Amaiurko herritarrei eta Aranzadiko boluntarioei, egin duten lan izugarriarengatik. «Gazteluaren dimentsioak eta ezaugarriak ezezagunak zirela hasi zenituzten indusketa lanak. Eta urteak aurrera, auzolanean egindako lanari esker, izugarria da hemen egindakoa eta lortutako emaitza". Euskal Herrian badirela geure lehenaren eta orainaren lekuko diren mugarriak erran zuen, bereziki bi aipatuz, Gernika eta Amaiur.

Udalbiltzako lehendakariak Fondoaren bertze ekimen bat aipatu zuen, *Euskal Pirinioetan lan eta bizi* programa, emaitza positiboak ematen ari dena. Amaiur eta Baztango ordezkariek esker oneko hitzak izan zituzten, Garbiñe Elizegik adierazi zuenez, «Euskal Herriko interes guneen ibilbidean kokatuko du Amaiurrek Baztan, eta behar adinako azpiegiturak ditugu bisitariak gurean hartzeko».





UTZITAKO ARGAZKIAK

Gaztelura egindako ibilaldia eta dantzariak Aurreskua dantzatzen.

**APIRILAREN 2TIK 10ERA**

## Gasnaren Astea antolatuko dute aurten Udaberriko Feriaren inguruan

**TTIPI-TTAPA**

Udaberriko Azienda Feria apirilaren 10ean eginen da aurten. Azienda feria, ahari lehiaketa, dantza saio eta ohiko bertze ekitaldiekin batera, urteko ardi gasnaren aukezpena eginen dute sukaldari batek eta Baztango gasnagile batek. Gasna lehengo moduan nola egiten zuten erakustaldia ere eginen dute.

Izan ere, Baztango Udalak, Cederna-Garalur elkarteak, Hazitik hoziek, EHNEk, Hiruak Bat eta Bertan elkarteek antolatu eta babesten duten Udaberriko Feria baino lehen ere, Gasnaren Astea antolatzekotan dira.

Apirilaren 2tik 6ra jatetxe, ostatu eta landetxeetan gasna edo esnekiekin zerikusia duten jakiak eskainiko dira. Apirilaren 3an, Elizondoko Aise elkartean gasna erakusketa-dastaketa eginen da, ardo eta sagardoarekin uztartuz. Apirilaren 3tik 9rat, Baztango gasnategietarat bisitaldiak eginen dituzte eta dastatzeko aukera ere eskainiko dute. Apirilaren 8an, "Gasna, hemengo elikagai osasuntsua" solasaldia eskainiko du Amaia Meokik.

Apirilaren 9an, dastaketa-tailerra eginen dute eguerdian. Antolatzaileek "Bertakoa Baztangoa" markari indarra eman nahi diote, herritarrak ohartarazteko bertako produktuen kontsumoak duen garrantziaz.


Sartu
gure web berrian
WWW.SILOTITE.COM
% 100 ZERBITZUA • % 100 KALITATEA • % 100 SEGURTASUNA •
Jatorrizko
5
kapa
Silo bolak
egiteko
plastikoa
SILOTITE
by formipac
FORMIPAC
• Edozein belar klasetan erabilgarria
• Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
• Zulatzeko gogorra eta tiramenduetarako sendoa
• Elastikotasun ezin hobea
• Memoria elastiko bikaina
• Ongi itsikitzen dena
• Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa
eta UV egonkortasun handikoa
• Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa
www.silotite.com
®SILOTITE
by formipac
Silotite®. Segurtasunaren aukera
AROZ-BERRI, S.A.
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxa 948 452 103
irurita@arozberri.com - N-121 B errepidea, 46,7 kma - 31730 IRURITA
www.arozberri.com

# BAZTAN

**GIZARTEA** ➜ MARTXOAN ZEHAR

## Zahar Etxearekin elkartasun kanpaina abiatu du Nafar Mendik




ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO
Mª Jesus Beunza, Ivan Aldako, Esteban Elorga eta Naiara Oteiza, kanpaina aurkezten.

Martxoan zenbait produkturen salmentaren %10a bideratuko da Zahar Etxera

**TTIPI-TTAPA**

Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearen konponketa lanak sustengatzeko helburuarekin elkartasun kanpaina egiten ari da martxoan Arraiozko Hipersimply-Nafar Mendi hipermerkatua. Batzar Nagusiak laguntza deia zabaldu zuen ilbeltzean, uholdeek erresidentzian sortutako kalteak konpontzen laguntzeko eta horrekin bat egin nahi izan dute. Zehazki, martxoan *Elkartasuna* hitzarekin seinalatuak dauden produktuen salmentaren %10a erresidentziari eskainiko dio Nafar Mendik. Oihalen salmenta guztietan ere %10a joanen da laguntza kutxara.

Horretaz gain, jatetxe-edantokian larunbatero Oizko Ostatuko Juan Josek eta Nekak *Pintxo lagunbide* bat antolatuko dute arratsaldeko 6etatik 9etara. Bezero bakoitzari pintxo bat eskainiko zaio eta ostatuko salmenta guzien %20a erresidentziaren alde emanen da. Eta guzi honen osagarri, DJak ere ariko dira, eta haurrentzako jolasak eta tailerrak ere izaten dira larunbatetan.

Kanpainaren aurkezpenean Esteban Elorga hipermerkatuko kudeatzaileak aipatu zuenez, «adinekoen laguntzea eta sustengatzea gure egiten ditugu Nafar Mendin, belaunaldien arteko elkartasuna garrantzitsua dela dakigulakotz. Badakigu arrisku ekonomiko bat hartzen dugula krisi garai gogor huntan, baina Zahar Etxeak hori eta gehiago merezi du».

Elorgarekin batera, Maria Jesus Beunza Zahar Etxeko kudeatzailea, Ivan Aldako mantenimenduko arduraduna eta Naiara Oteiza, hipermerkatuko langileen izenean, izan ziren kanpainaren aurkezpenean.

Maria Jesus Beunzak aipatu zuenez, «uholdeek egunero agertzen diren ezustekoak sortu zituzten, eguneroko lana oztopatzen dutenak». Ildo berean, Ivan Aldakok aipatu zuenez, «matxura bat konpondu orduko bertze bat agertzen da, koadro elektrikoak hezetasunez beteak daude, pareta margotu eta egun batzuen buruan pintura harrotzen da… horrela gabiltza egunero eta zaila da gauzak planifikatzea».

### FLASH

**Haur kantari jaialdia larunbatean Lur-en**
Nafarroa Oinezek Nafarroako Euskal Kantuzaleen Elkartearekin elkarlanean haur kantari jaialdia antolatu du martxoaren 21ean, larunbatean 18:30ean Elizondoko Lur aretoan. Sarrera: 2 euro.

**Toti Martinez de Lezearen aurkezpena**
Toti Martinez de Lezea idazle ezagunak *Enda* liburuaren aurkezpena eta Euskal Herriko mitologiari buruzko hitzaldia eskainiko du gaztelaniaz martxoaren 21ean, larunbateam 19:00etan Iruritako Jauregiartea tabernan.

**Helduendako antzerkia igandean Iruritan**
Lauka Teatroa antzerki taldeak *Amodioaren ziega* helduendako antzezlana eskainiko du martxoaren 22an, igandean 19:00etan Iruritako Gizarte Bilgunean.

**Bailableak Elizondoko plazan igandean**
Baztango Dantzariak taldearen eskutik Bailableak (Muxikoak, Jotak, Larrain dantza, Gaita…) dantzatzeko aukera izanen da martxoaren 22an, igandean 12:45ean Elizondoko plazan.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

**Menditarrak BRT taldearen argazki lehiaketan garaile**

Menditarrak BRT rugby taldeak antolatuta, errugbiaren balioak hobekien islatzen zuen argazki onenaren bila lehiaketa egin dute. Lehenbiziko saria Pello San Millanek irabazi du argazki honekin (urdaiazpiko bat jaso du) eta Iñaki Atxa eta Amaia Urdaniz izan dira finalista (gasna eta txorizo bana eraman dute).

# ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

**OSPAKIZUNAK** ➜ ALDAKETAK IZAN DITU AZKEN URTEETAN

## Aurten ere memoria lantzeko tailerra antolatu dute

Hiru hilabetez asteartero eskainiko dute Museoan

**Margari eta Koro**

Aitzineko bi urtetan parte hartu zutenak izigarri kontent gelditu zirela eta, aurten ere Memoria lantzeko tailer bat antolatu da bi herrietako adinduentzat.

Martxoaren 17an hastekoa zen, eta hiru hilabetez, asteartero, arratsaldeko 4etan, Zugarramurdiko Museoan emanen da. Oraindik norbaitek parte hartu nahi izanez gero, posible da, “Eman-har”eko telefono honetara deituz: 627 457 336.

Arkupeak elkarteak diruz laguntzen du, beraz, bazkideek pixkat merkexeago dute partehartzea, 20 euro. Gainerakoek 30 euro ordaindu behar dute. Aitzineko alditan bezala, emailea Mirentxu Goienetxe izanen da.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO
Gan den urtean memoria lantzeko tailerrean, Mirentxu Goienetxerekin.

### Korrika

Martxoaren 20an pasatuko da korrika gure bazter hauetatik. Goizeko 9:00ak aldera Ainhoa aldetik sartuko da, eta Dantxarinea gurutzatuz, Baztan aldera partituko da.

Aldi huntan, lau kilometro erosi dira bi herrien artean: Zugarramurdin, Akelarre Elkarteak eta gazteek; Urdazubin, Ugarana elkarteak, Guraso Elkarteak, eta SOS Alkerdik; Dantxarinean, Benten Elkarteak; eta laugarren kilometroa, bi udalen artean erosi dute.

**GURASO ELKARTEAK**

## Elkarlan egitasmoa martxan jarriko du eskola eta Gizarte Zerbitzuekin

**TTIPI-TTAPA**

Guraso elkarteak elkarlan egitasmoa martxan jarriko du eskola eta Gizarte Zerbitzuekin. Elkarlan honen funtsa heziketa eta prebentzio esparruetan lan koordinatua egitea izanen da. Ondorengo hilabeteetan hainbat ekintza egitea aurreikusten da. Horietako bat gurasoei heziketa, guraso izate, prebentzio gaiak… hausnartu eta ezagutzera emateko irakurgaiak helaraztea korreo elektroniko bidez. Horretarako faborez eskatzen da gurasoei bertako eskolako guraso elkarteari helbide elektronikoa ematea mezuen bidez materiala jaso ahal izateko.

**MARTXOAREN 23RAKO AURKEZTU BEHAR DIRA ETA APIRILAREN 7TIK AITZINERA JAKINARAZIKO DITUZTE SARIAK**

## Anaitutako Lezeen Egunean Argazki Rallya egin dute lehen aldiz Zugarramurdin

**TTIPI-TTAPA**

Anaitutako Lezeen seigarren Egunaren aitzakiarekin, Zugarramurdiko Lezeak Argazki Rallya egin du lehen aldiz pasa den asteburu honetan. Hori dela eta, argazki-kamera eta bertze tramankuluak hartuta harat-honatean hainbat argazkilari ibili ziren larunbatean eta igandean. Hiru gai zituzten lantzeko: Handitasuna, Ura eta Berdea. Orai, argazki horiek martxoaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eta sari banaketa Sorginen Museoko entzunaretoan izanen da. Sarituen izena argitaratuko da *www.turismozugarramurdi.com* webgunean.

Sariei dagokienez, bilduma hoberenarentzat saria Zugarramurdiko Errotaberri landa etxean asteburu pasa izanen da.

Gai bakoitzeko argazki onenek ere sariak izanen dituzte. “Handitasun” gaiaren argazki onenak Azketa jatetxean 2 lagunendako bazkaria; “Ura” gaiaren argazki onenak Altzatenea jatetxean 2 lagunendako bazkaria; “Berdea” gaiaren argazki onenak Kattalin jatetxean 2 lagunendako bazkaria.

Rallyeko argazki onenak produktu sorta bat izanen du saritzat eta gazte mailako argazki onenak Sorginen Museoko produktu sorta bat.



# URDAZUBI

**OSPAKIZUNAK** ➜ MARTXOAREN 28AN

## Bigarren urteurreneko besta prest du Nikolaurenea jatetxeak

Pottoka eta Eskortz, Morau eta Beñardo, Iñigo Iturria eta Petti ariko dira kantari besta berezian

**Iñigo IMAZ**

Martxoaren 28an ospatuko du bere bigarren urtemuga Nikolaurenea ostatuak. Hori dela eta, besta berezia antolatu dute oraingoan ere, musikari ezberdinen partehartzearekin: Pottoka eta Eskortz, Morau eta Beñardo, Iñigo Iturria eta Petti.

Duela bi urte, 2013ko Aste Saindu bezperan ireki zituen ateak Nikolaurenea jatetxean eta geroztik, 60 lagunendako otorduak egiteko aukera eskaintzen du aste osoan, asteazkenetan izan ezik.

Gan den urtean, lehen urtemugan ere, eman-harraldi gastromusikala antolatu zuen, zehazki Pop-Folk-Blues emanaldia izan zuen afari kontzertua eskaini zu-

### Ba al zenekien…?

**Joan den urtean Urdazubi eta bertako turismoa bultzatzeko egindako lan guztien laburpena biltzen duen txosten bat duela Udalak. Dokumentu hori udaletxean dago, hura ikusi nahi duten bizilagun guztiek kontsultatzeko moduan.**



UTZITAKO ARGAZKIA

### 1959 eta 1960 sortutakoen kinto afaria

1959 eta 1960an sortutakoek kinto afaria egin zuten otsailaren 28an Azketa jatetxean. Joxe Angel akordeolariak ere giro bikaina jarri zuen.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

### Bertso bazkari arrakastatsua Nikolaurenean

Gan den otsailaren 28an, 25 pertsona inguru bildu ziren Nikolaurenea ostatuan, Maialen Lujanbio eta Amets Arzalluz bertsolariekin batera. Menua dastatu ostean, bertsolariek Urdazubirekin loturiko gaiak jorratu zituzten: artzaiak, kontrabandoa, sorginak eta muga bertzeak bertze. Eguardian hasi eta arras berandu amaitu zen bertso saioa, bertsolariek txalo zaparrada jaso zutelarik.





**GIZARTEA ➜** BAGOAZ PRESOEN ALDEKO TALDEAREN SALAKETA

# «Presoen baldintzapeko askatasuna lortzeko gero eta oztopo gehiago da»

## Apirilaren 4an elkartasun ekitaldia eginen dute Larreko kulturgunean

**Franck DOLOSOR**



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR
Bagoaz taldeak Baionan egin zuen agerraldia.

Euskal presoen baldintzapeko askatasuna lortzea gero eta zailagoa dela salatu dute berriki familiek, abokatuek eta Bagoaz presoen aldeko taldeko kideek. Frantziako estatuan 96 euskal preso daude eta horien artean 43k baldintzak betetzen dituzte baldintzapeko askatasuna lortzeko. Garai hauetan, 8 lagunen baldintzapeko askatasuna eskatzen ari dira abokatuak, lehen aldikotz konparazione Frédéric Haranburu *Xistor*-en kasuan. 1990an atxilotu zuten ustez ETArekin zerikusia izateagatik eta bizi osorako kartzela zigorra eman ziotenez badira jadanik 25 urte preso dagoela. Azken 10 urteetan Lannemezango presondegian dago, Senperetik 200 kilometrotan. Mende laurden batez, bere familiak eta lagunek milaka kilometroko bidaiak egin behar izan dituzte bisitak egiteko. Otsailaren 18an defentsak bere baldintzapeko askatasuna eskatu zuen eta erabakia martxoaren 27an jakinaraziko dute. Abokatuak salatu du eskaera aztertu zen saioan jakin zutela Ipar Euskal Herrian eta inguruetako departamenduetan bizitzeko debekua zuela. Maritxu Paulus-Basurko abokatuak salatu du Haranburuk lanpostua eta etxea dauzkala zain Senperen eta baldintza berriekin biziki zaila dela bergizarteratzea, etxetik eta familiarengandik urrun. Defentsak helegitea jarri du notifikatua ez den erabaki hunen kontra. Legeak etengabe aldatzen direla, debeku berriak agertzen direla, eta oro har, oztopo berriak sortzen direla salatu dute 61 urteko presoaren senideek eta lagunek. Bertzalde, dei egin diete Madril eta Parisko gobernuei urratsak egin ditzaten bakearen alde «azken hiru urteetan egoera arras aldatu baita Euskal Herrian».

Elkartasuna erakusteko presoen familiei eta lagunei, Bagoaz mugimenduak ekitaldia eginen du apirilaren 4an Senpereko Larreko kulturgunean, 17:00etan. "25 urtez preso, aski da! Presondegitik ateratzea eskubidea da, bakean bizitzea ere bai" hitz hauekin burutu zen Bagoaz taldeak Baionan egin zuen agerraldia.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Zortzi emazte berriri ongi etorria Amuarrain Kofradian

Mundua bildu zen martxoaren 8an Senpereko Amuarrain Kofradiaren inguruan. Emazte langileen nazioarteko eguna izaki, zortzi emazte berriri ongi etorria egin zieten gure herriko kofradian!







# SARA

**GIZARTEA** ➜ IKASLEEN ATERALDIA

## Olhain ikastolakoak Iratin barna



ARGAZKIA: OLHAIN IKASTOLAK UTZIA

Ipar eskian lehen urratsak egin zituzten ikastolako ikasleek.

**Joana GERENDIAIN**

Martxoaren 2, 3 eta 4an lehen mailako 2, 3, 4 eta 5 urtekoak Iratin egon ziren. Ateraldi hunen helburua zen haurren arteko harremanak azkartzea baita euskaraz gozatzea aktibitate ludiko eta atsegin batzuen medioz. Hiru egun horietan ipar eskian lehen urratsak egin zituzten. Eski orduetatik kanpo, aktibitate libreak zituzten. Arratsak ere atseginak izan ziren. Ikasleek berek gau beila politak antolatu zituzten, antzerkien inguruan. Haurrak eta erakasleak pozik itzuli ziren handik, esperientzia bertze urte batean berritzeko asmoarekin.

### Olhain osasun etxea

Maiatzean eginen du urte bat Olhain osasun etxea ireki dela lehengo zahar etxeko eraikinetan. Proiektu hori gaur egungo herriko etxeak eraman du, helburua izanik medikuntzako profesionalak gune berean biltzea. Eraikin horretan daude Sarako medikuak Lafitte eta Garat jaunak, Mathièren Galaubet eta De Beauchamp andereak, baita ortofonista bat ere Gougeon anderea, kine bat Renaud jauna, dentista bat Ducret jauna, eta osteopata bat Vallée jauna. Osteopataren kabinetea eraikinaren azpiko aldean kokatua da, ileapaindegia eta estetika institutuaren artean.

### Saint Patrick gaua

Martxoaren 20an, ostirala gauarekin, irlandes aire batek ufatuko du plazan, Herriko Etxeko edantegian Saint Patrick gaua ospatuko baita. Gaueko 9etatik 10ak arte Happy Hour bat eginen da, hau da baso bat ordaindu bertzea urririk. Gaua Charlie Mopps taldeak animatuko du, bere musika irlandesarekin.

### Artearen egunak

Martxoaren 27, 28 eta 29an Lur Berri gelan herriko 8 gazteren eskulanen ezagutzeko parada izanen da Artearen Egunak ekitaldiaren karietara: Cecile Ayez-ek jarleku berritzea, Iñaki Iriartek egur eta harri zizelkaritza, Xan Urbistondok harri zizelkaritza, Xabi Luberriagak musika tresnak, Pauline Fagaldek grafismoa, Maite Andiazabalek ohial sorkuntza eta argazkilaritza, Ellande Alfarok pilotak, Olivier Rousselek bitxiak eta zizelkaritza. Sorkuntza batzuk salmentan izanen dira eta manatzeko aukera ere.

### Korrika

Martxoaren 21ean 19:48an Azkainetik etorri eta Senpererruntz joanen da. Eusko poteoa eginen da Saranga txarangak alaiturik 18:30ean hasita Baketun, 19:30ean Herriko Etxeko Edantegira joanen da. 22:00etan gaualdia antolatua da gaztetxean.

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -




# EZKONTZAK

**Julio Cesar Nicoletti** eta **Maria Angeles Olabe Oskariz**, Argentina eta Doneztebekoa, otsailaren 12an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

# SORTZEAK

**Naia Ezkurra Babaze**, Saldiaskoa, otsailaren 10ean.
**Urko Muruaga Elizegi**, Elizondokoa, otsailaren 25ean.
**Nahia Altzuri Hernandez**, Lesakakoa, otsailaren 26an.
**Gari Zelaieta Gorrotxategi**, Etxalarkoa, martxoaren 3an.
**Nerea Etxeberria Escudero**, Elizondokoa, otsailaren 23an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

# HERIOTZAK

**Paskual Etxeberria Unsain**, Berakoa, otsailaren 26an, 75 urte.
**Jose Maria Ziganda Agesta**, Gaztelukoa, martxoaren 1ean, 92 urte.
**Teofila Ruiz Sanz**, Berakoa, martxoaren 2an, 96 urte.
**Francisca Ustariz Telletxea**, Iruritakoa, martxoaren 3an, 90 urte.
**Jose Garro Etxarri**, Leitzakoa, martxoaren 2an, 90 urte.
**Mª Angeles Ganboa Azpiroz**, Zugarramurdikoa, martxoaren 3an, 66 urte.
**Fermin Urtxegi Agirre**, Berakoa, martxoaren 5ean, 86 urte.
**Petra Goienetxe Irigoien**, Zigakoa, martxoaren 6an, 87 urte.
**Javier Sukilibide Salaburu**, Erratzukoa, martxoaren 7an, 76 urte.
**Mª Isabel Eneterreaga Ugalde**, Elgorriagakoa, martxoaren 7an, 95 urte.
**Mirari Mitxelena Aldaraborda**, Lesakakoa, martxoaren 9an, 51 urte.
**Mª Socorro Tomasena Erregerena**, Goizuetakoa, martxoaren 6an, 90 urte.
**Manolo Loiarte Etxeberria *Txispas***, Goizuetakoa, martxoaren 7an, 59 urte.
**Hilaria Markina Ruiz**, Berakoa, martxoaren 10ean, 91 urte.
**Mª Jesus Gogorza San Martin**, Leitzakoa, martxoaren 11n, 82 urte.
**Visitacion Etxeberria Jaurena**, Arizkungoa, martxoaren 11n, 85 urte.
**Juan Pedro Arraztoa Mendikoa**, Elizondokoa, martxoaren 11n, 78 urte.
**Jean Vincent Bidegarai**, Sarakoa, otsailaren 7 an, 91 urte.
**Marie Louise Anzizar**, Sarakoa, otsailaren 9an, 94 urte
**Marie Leizagoien**, Sarakoa, otsailaren 10 ean, 89 urte.
**Laurentine Pikabea**, Sarakoa, otsailaren 20an, 52 urte.



## Pilar MITXELTORENA GAMIO

**Donamarian hil zen, 2015eko otsailaren 13an, 98 urte zituela**

*Otsailaren hamairua markatutako eguna*
*bat-batean alde egin zenun amatxi kuttuna*
*bertze bide bat hartuaz gurea utziz iluna*
*nahiz ez zaigun itzaliko zuganako maitasuna*
*irautsitako guzia ta zure goxotasuna*
*ama, amatxi bikaina eta lagunen laguna*
*dagon lekuan dagoela atzenduko ez duguna!*

**FAMILIAK ESKERTZEN DU EGUN HAUETAN GUREKIN EGONDAKOEI**



## Leonita Garaikoetxea

**I. URTEURRENA**

*Zurekin batera zeharkatutako bideetan barna*
*oroitarazten dugu zure pausoen eleek*
*gure baitan pizturik mantentzen duten guztia,*
*haizearen deiadarra.*

**ZURE FAMILIA**
Arraiozen, 2014/03/14



## Juan Bautista URROZ EZKURRA

**V. URTEURRENA**

**Beran hil zen, 2010eko martxoaren 20an, 67 urte zituela**

*Gogorra da onartzea*
*gehiago ez zaitugula ikusiko*
*baina bizi garen artean*
*ez zaitugu ahaztuko.*

**EMAZTEA, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA FAMILIA**
**Bere aldeko meza martxoaren 22an, 12:30ean Berako San Esteban elizan.**

MENDI LASTERKETAK ➜ MARTXOAREN 8AN

# 638 korrikalarik bukatu dute Senpere Trail lasterketa

## Manttaleko Joseba Larralde hirugarren



ARGAZKIA: SPUC LASTERKA
Emakumezkoak eta gizonezkoak podiumean. Eskuinean, Joseba Larralde eta Santamaria.

TTIPI-TTAPA

638 korrikalarik lortu zuten helmugaratzea martxoaren 8an egin zen Senpereko Trail lasterketaren laugarren edizioan. 21 kilometroko lasterketa burutzen bizkorrena, Atharratzeko Beñat Marmissolle izan zen (01:39:29), bigarren Mizuno-Endurance Shop taldeko Cori Benoit (01:40:42) eta Manttaleko Joseba Larralde beratarrak osatu zuen podiuma (01:44:18). Unai Santamaria Manttaleko taldekidea laugarren izan zen.

Emakumezkoen artean, VTT Labenne taldeko Sarah Dinclaux izan zen bizkorrena (02:10:48), PBA taldeko Vlaire Dubes bigarren (02:12:40) eta PBA-ko Maialen Pessans hirugarren (02:18:49).

Eskualdeko korrikalariei dagokienez, gizonezkoetan Sara Korrikako Eric Etchegarai 17. izan zen (01:56:58), Fabien Ezkurra taldekidea 21. (01:57:41) eta Igantziko Biltokiko Mikel Urtxegi 27. (02:00:37).

Emakumezkoen artean, Sara Korrikako Murielle Migelgorri zortzigarren izan zen (02:29:34) eta Manttaleko Andrea Gouraud hamargarren (02:35:53).

### SARA KORRIKA TRAIL

Sara Korrika Trail lasterkaldiaren hamargarren edizioa martxoaren 29an eginen da. 25 kilometro luzeko proba da, 1.443 metroko desnibel positiboa duena eta 1.442 metroko negatiboa. Izen ematea: *www.sarakorrika.com*.

| ESKUALDEKO KORRIKALARIAK |
|---|
| 3 Joseba Larralde-Bera |
| 17 Eric Etxegarai-Sara |
| 21 Fabien Ezkurra-Sara |
| 27 Mikel Urtxegi-Igantzi |
| 32 Philippe Vacquie-Sara |
| 34 Pascal Urruti-Sara |
| 37 Iñaki Odriozola-Bera |
| 38 Angeltxo Aranibar-Bera |
| 39 Iñaki Pikabea-Bera |
| 42 Joseba Lasarte-Bera |
| 44 Frederic Laxalde-SPUC |
| 51 Julen Errandonea-Bera |
| 63 Iban Zubieta-Bera |
| 69 Xabi Garmendia-Bera |
| 70 Asier Irazoki-Bera |
| 73 Julen Pikabea-Bera |
| 80 Iñaki Larrañaga-Bera |
| 84 Stephane Zamora-SPUC |
| 103 JMixel Goienetxe-Sara |
| 128 Angel Subizar-Legasa |
| 138 Oihan Perez-Bera |
| 193 Brice Darraidou-Sara |
| 195 JFrançois Aranburu-Sara |
| 196 Sébastien SaintMartin-Sara |
| 197 Fabien Niquet-Senpere |
| 198 Murielle Migelgorri-Sara |
| 204 Martxel Elgart-Sara |
| 218 Alain Lazkanotegi-Sara |
| 219 Pascal Beratxategi-Sara |
| 244 Patxi Ariztia-Bera |
| 256 Txus Unsion-Bera |
| 258 Andrea Gouraud-Bera |
| 281 Manolo Gouraud-Bera |
| 286 Pascal Larronde-Sara |
| 446 Sebastien Etxeberri-Amotze |
| 511 Christelle Lekuona-SPUC |
| 512 Maritxu Dibar-SPUC |
| 533 Florence Betat-T-SPUC |

MENDI LASTERKETAK ➜ FEDERAZIOAREN SARIA

# Nafarroako Mendiaren Galan saritu dute Manttale



UTZITAKO ARGAZKIA
Nafarroako Mendi Kirolen eta Eskaladaren Federazioak saritutakoak eta sari-emaileak.

TTIPI-TTAPA

Manttale taldea saritua izan da Nafarroako Mendiko kirolen eta Eskaladaren Federazioak antolatutako ekitaldian. Josema Huizik eta Txus Unsionek sari bereziak eskuratu zituzten eta Loro Pikabea eta Xabier Zubietaren senideak ere bertan izan ziren, beraien izena daramaten sariak banatzen.

Josema Huizik trofeoa lortu zuren beteranoen kategorian (V1), Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketan lortutako 3. postuari esker. Gainera gonbidapena jaso zuen Nafarroako taldearen izenenan Alhaurin El Granden (Malaga) lasterketan parte hartzeko hurrengo apirilaren 28an, bertan ospatuko da Espainiako Mendi Lasterketen txapelketa indibiduala eta taldekakoa. Gran Senda de Malaga-Trail Cara los Tajos izeneko lasterketa honek 31 kilometroko ibilbidea izanen du.

Txus Unsionek, Xabier Zubieta saria lortu zuen, lasterkari beteranoenen artean hobekien sailkatua izateagatik eta Julen Paniaguak irabazi zuen Luis Mari Pikabea saria, gazteen artean hobekien sailkatzeagatik.

**HERRI KIROLA ➜** LESAKARREK BRONTZEA LORTU DUTE 560 KILOKO KATEGORIAN

# Euskadiko goma gaineko txapelketan podiumera bueltatu da Beti Gazte

600 kilotan laugarren izan zen eta 560 kilotan hirugarren

**TTIPI-TTAPA**

Ezpeletako (Lapurdi) Merkatu Plazan jokatuko ziren martxoaren 7an Euskadiko sokatira txapelketako emakumezkoen 375 kiloko hirugarren eta azken jardunaldia eta gizonezkoen aurtengo 560 kiloko txapelketa, saio bakarrean. Gizonezkoetan Ñapurrak eta emakumezkoetan Ibarra izan ziren txapeldun.

Gizonezkoen 560 kilotan, Ibarra gipuzkoarra, Ñapurrak lapurtarra eta Beti Gazte, Berriozar eta Txantrea nafarrak aritu ziren. 600 kiloko txapelketan bezalaxe, Ñapurrak suertatu zen txapeldun eta Ibarra azpitxapeldun. Lesakako Beti Gazte, berriz, 600 kilokoan laugarren izan ondotik, pisurik arinenean podiumean sartzea lortu zuen, hirugarren postua eskuratuz, Berriozar eta Txantrearen aitzinetik.




ARGAZKIA: XAGU-LESAKA

Ñapurrak, Ibarra eta Beti Gazte, 560 kiloko podiumean.

**ARTE MARTZIALAK**

## Nazioarteko Kenpo Kai konbentzioa Beran

**TTIPI-TTAPA**

Nazioarteko kenpo kai konbentzioa eginen dute Beran martxoaren 27, 28 eta 29an. Asteburu horretan Espainia, Frantzia, Italia eta Japoniako kirolariak izanen dira, ikastaro eta txapelketa ezberdinetan parte hartzen, Toki Ona kiroldegietan paratuko diren sei tatamietan. Nafarroako txapelketa ez ezik, nazioartekoak ere bertan erabakiko dira.

**ERRUGBIA ➜** NAFARROAKO KIROL JOKOETAN

# Menditarrak BRTko ttikiak konpetitzen hasiko dira



Hilaren 19an Lekarozen ariko dira 10, 12 eta 18 urtez beheitikoak

**TTIPI-TTAPA**

Joan den urtean hasi zen lanean Menditarrak-BRT taldearen eskola, errugbian ez ezik herri kirolean ere. Lan horren ondorioz, aurten lehen aldiz errugbian konpetitzen hasi dira Nafarroako Kirol Jokoetan, 10, 12 eta 18 urtez beheitiko kategorietan. Duela aste pare bat hasi ziren eta martxoaren 19an, San Jose egunez, Lekarozen jokatuko dute bigarren jardunaldia.

Zehazki bi eskola dituzte, bat Ultzaman eta bertzea Lekarozen. Lekarozkoan ortziraletan 18:00etan biltzen dira 27 neska-mutiko, Mariano Iribarren, Iñaki Zubiri, Mattin Apezetxea eta Xabi Urrutiaren ardurapean, baina nahi duen guziarentzat zabalik dagoela gogoratzen dute. Ultzamakoan 20 haur ari dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Menditarrak-BRT taldeko neska-mutikoak.

Oronoz-Mugairiko Gorka Oteiza 7 urteko pilotoak eta Imanol Berho 28 urteko kopilotoak Euskadiko Rally txapelketa irabazi zuten iaz, 1 dibisioan, Citroen Saxo bat gidatuz. Txapelketa horretako bortz karreretatik lau irabazi zituzten eta bertze hainbatetan ere maila bikaina erakutsi zuten. Orai, martxo hondarrean, denboraldi berri bati ekitekotan dira Hondarribian, baina aitzinetik, larunbat honetan Elizondon eginen den Gazte Egunaren baitan erakustaldi batean parte hartuko dute herritarren aitzinean.

**Gorka OTEIZA** | Oronoz-Mugairiko pilotoa

# «Kotxea puntuan eduki eta karrerak akitzea izaten dugu lehen helburua»

**A. AROTZENA** | ORONOZ

Gorka Oteiza gidariak aipatu digunez, «martxoaren 28an, Hondarribiko rallysprintean hasteko intentzioa dugu, baina duela aste pare bat zirkuitoan ibiltzeko aukera izan genuen entrenamendu gisa. Martxoaren 21ean Elizondoko Gazte Egunaren baitan eginen den exibizio batean parte hartzeko aukera eskaini digute eta hori egiteko asmotan gaude». Beraz, egiazko rally baten faltan, baztandarren aitzinean erakustaldi moduan agertzeko aukera izanen dute. Gan den urtean bezala, aurten ere Citroen Saxoarekin segiko dute 1 dibisioan eta «hamar bat proba egiteko asmoa dugu, beti ere kotxearen aberiak eta babesleak nola portatzen direnaren arabera».

Oteiza eta Berho txikitako lagunak dira eta aurtengoa hirugarren urtea eginen dute elkarrekin, piloto eta kopiloto moduan. Dena den, Oteizak dionez, «Imanol beti hor egon da taldekide bezala asistentziak egiten, kotxea puntuan jartzen eta momentu zailetan animatzen. Ederki moldatzen gara elkarrekin».

Elkar ezagutza horren ondorioz, emaitzak ere politak eskuratu dituzte: «Lehenengo urtean, 2013an, Nafarroko 1 klasean txapeldun izan ginen, bortz probetatik lau irabaziz, eta sailkapen orokorrean hirugarren postua galdu genuen azken orduan, Donostiko rallyan alternadorea puskatu genuelako. Bertze bizpahiru proba egin genituen Euskadin barrena eta 1 klasean ia proba guztiak irabazi genituen. 2014an bederatzi karrera egin eta zazpi irabazi genituen, horietako bortz Euskadiko rally txapelketarako baliagarriak. 1 dibisioan lehenengoak izatea lortu genuen eta laugarren scrach sailkapenean, zorte pixar batekin izanik ere».









ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL, KOIKILIKLIK ETA JOSU URIBE

Gorka Oteizak eta Imanol Berhok lagun artean ongi pasatzea dute helburu.

**HELBURUAK**

**«Gure helburua betidanik kotxea ahal den puntu onenean egotea da, ahalik eta karrera gehien akitzeko, baina helburu nagusia lagun artean ongi pasatzea da. Hortaz aparte irabazterik badugu, hobe»**

**AFIZIOA TTIKITATIK**

**«Ttiki ttikitatik gustatu zait motor mundua, aitarekin joaten nintzen gertuko karrerak ikustera eta gidatzea da gehien gustatzen zaidana».**

## LAGUN ARTEAN ONGI PASATZEA HELBURU

Joan den urtean txapeldun izanagatik, ez diote aparteko helbururik jartzen beraien jardunari. «Gure helburua –dio Oteizak– betidanik kotxea ahal den puntu onenean egotea da, ahalik eta karrera gehien akitzeko, baina helburu nagusia lagun artean ongi pasatzea da. Horretaz aparte irabazterik baldin badugu hobe, egia erran gustatzen zaigu txapelketa bat segitzea, aunitz disfrutatu eta ikasten delako».

Motor mundua ttikia zenetik gustatzen zaio Gorka Oteizari, «aitarekin joaten nintzen gertuko karrerak ikustera, gidatzea da gehien gustatzen zaidana eta gutxiena beti kotxearen gainean egon behar dela, dena ongi atera dadin, baina hori ere gustora eramaten dugu».

Beti erraten den moduan, kirol garestia dela onartzen du Oteizak, baina «suertez betidanik izan ditut laguntzaileak eta hemendik eskertu nahi diet Big Mat Menditxuriko Joxemari, Pevi cableseko familiari, Carrocerias Mugaireko Otiliori, Magnako Jose Antoniori, txapistan Landabenei eta nola ez lagunei, familiari, barrideei eta nere emazteari guztia aguantatzeagatik».

Motor munduan bere ametsa zein den galdetuta, «kotxe ezberdinekin bertze 100 urtez korritzeko aukera izatea» erantzun digu irrika Oteizak. Ez dirudi hori betetzeko helburu erraza izanen denik... Bukatzeko bortz urte hauetan lagundu eta ilusioa eman dioten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkie, «nere ametsetako bat ezin hobeto egi bihurtzeagatik. Milesker bihotzez».

**ERREMONTEA** ➜ LEHEN TXAPELA PROFESIONALETAN GOIZUETARRARENTZAT

# Otaegi eta Aritz Zubirik irabazi dute Promozio txapelketa

## 35-26 irabazi zieten martxoaren 6ko finalean Ezkurra II eta Labakari

**TTIPI-TTAPA**

Erremonteko Gipuzkoako Diputazioa-Promozio txapelketaren finala jokatu zen martxoaren 6an Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan. Bi bikotetan bazen eskualdeko ordezkaririk, baina azkenean, Otaegik eta Aritz Zubiri goizuetarrak 35-26 irabazi zieten Josetxo Ezkurra II doneztebarrari eta Labakari.

Otaegi eta Zubiri ez ziren faborito, baina ongi sartu ziren partidan eta gerora erabakigarria izanen zen aldea hartu zuten (13-25). Urdinek gauzak garbi zituzten eta ahal zenean gibeleko koadroetara bidaltzen zuten pilota, Labaka bilatuz eta Ezkurra II jokoan sartzea saihestuz. Lan horretan bikain ibili zen Aritz Zubiri. Partidaren bigarren zatian gorriak gehiago sartu ziren jokoan eta sei tantora ere hurbildu ziren, baina zuloa handiegia zen ordurako. Azkenean, Otaegi eta Zubiri, 26-35 irabazle.

Finaleko onena Aritz Zubiri izan zen, gorriek aldea murriztu zutenean ere ongi eutsi baitzion bikoteari. 2009ko abenduan debutatu zuenetik, goizuetarraren lehen txapel ofiziala da.




ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES
Binakako nahiz lau eta erdiko hartu duten pilotarietako batzuk, sari banaketaren ondotik.

**ERREMONTEA**

## Sagardoaren txapelketa abiatu da

**TTIPI-TTAPA**

Bi multzotan banatutako sei bikote hasiak dira Sagardoaren V. txapelketan: Ezkurra-Agirrezabala, Uterga-Olazar eta Ezkurra II-Ion (A multzoa) eta Zeberio II-Endika, Etxeberria IV-Etxeberria III eta Matxin III-Barrenetxea (B multzoa). Ligaxka martxoaren 28an akituko da, apirilaren 2an finalerdiak eta apirilaren 25ean finala. Finalerdietako irabazleek elkarren kontra jokatuko dute eta hori irabazten duena finalean izanen da. Baina finalerdia galtzen dutenek ere izanen dute finalean aritzeko aukera. Bi galtzaileek elkarren kontra jokatuko dute errepeska eta finalerdietako irabazleen arteko lehiako galtzailearen kontra jokatuko du bigarren txartela.

**PALETA GOMA** ➜ BIGARREN MAILAN

# Goñi eta Arizmendi Nafarroako txapeldun

## 30-23 irabazi zieten finalean Etxarri aita-semeei

**TTIPI-TTAPA**

Nafarroako bigarren mailako paleta goma txapelketako finala jokatu zen martxoaren 8an Iruñeko Lopez pilotalekuan. Oronozko Josu Goñi eta Joseba Arizmendik 30-23 irabazi zieten Etxarri I eta Etxarri II aita-semeei eta honenbertzez, Nafarroako txapeldun berriak dira.

Tanto ikusgarriak ikusteko aukera izan zuten pilotalekura hurbildu zirenek. Tartean, Oronoztik hurbildutako zaleak ere izan ziren Iruñean, eta argazkian ageri denez, txapeldunekin erretratoa ateratzeko eta gero, elkarrekin La Runa sagardotegian bazkaltzeko aprobetxatu zuten.

Finalerdietan Barandiaran eta Otaegi kanporatu zuten oronoztarrek eta orokorrean, txapelketa borobila egin dute, zortzi partida irabaziz.

Honela, Josu Goñik arantzatxoa ere kendu du, Nafarroako buruz buruko eta bortz eta erdiaren barreneko txapelketetan finalera ailegatzea lortu bai, baina galdu egin baitzituen. Bietan azpitxapeldun izan ondotik, txapel honekin gustora gelditu da.

Aipatzekoa da urte hasieran Lesakako txapelketan, bigarren mailako txapeldun ere suertatu zela Goñi, orduan Berhorekin bikote eginez. Orain, Oiartzungo txapelketan ere ari dira Goñi eta Berho eta laister Idiazabalgoan hastekoak dira.





UTZITAKO ARGAZKIAK
Goñi eta Berho, Oronozko zaleekin eta txapelarekin.

# martxoak 19 - apirilak 2

Informazioa bidaltzeko: **info@ttipi.eus** edo **948 63 54 58**

## Erakusketak



LEITZALDEA | 2015.03.30

**Txiapaseko emakumeekin elkarlanean**

Martxoaren 9tik 30era Txiapaseko Yachil emakumeen etxe komunitarioen inguruan argazki erakusketa ikusgai izanen da Leitza, Goizueta, Arano eta Areson.

## Dantzak



LESAKA | 2015.03.28

**Dantzaz konpainiaren ikuskizuna Kultur Etxean**

*Itzalak-Txoriak; Arriaga eta Laboa, dantzaren bidez elkarturik*. Ikuskizun hori eskainiko du Dantzaz konpainia ezagunak Kultur Etxean, 20:00etan.

## Mendia



SARA | 2015.03.29

**Sarako mendi lasterketa eta martxa**

15 kilometroko mendi martxa 07:30etk 08:30era abiatuko da eta 25 kilometroko mendi lasterketa 09:00etan. Xehetasunak *www.sarakorrika.com*-en.

## Erakusketak

LEITZALDEA

**Emakumeak sarean, Txiapasekin elkarlanean**

**Martxoaren 9tik 30era.**

ELIZONDO

**Margo erakusketa**

**Apirilaren 5era arte** Juan Luis Toralbaren lanak, Arizkunenean.

ETXALAR

**Argazki erakusketa**

**Martxoaren 19an** *Pakistan barrutik* Kultur Etxean, 19:30ean.

## Hitzaldiak

IRURITA

**'Enda' liburuaren aurkezpena eta Euskal Herriko mitologia hizpide**

**Martxoaren 21ean** Toti Martinez de Lezea Jauregiarte tabernan, 19:00etan.

ETXALAR

**Ixiar Rozasen 'Beltzuria' liburuaren aurkezpena**

**Martxoaren 19an** Kultur Etxean 18:00etan.

## Tailerrak

ARANTZA

**Sexualitate tailerra**

**Martxoaren 20an** eskolan, 22:00etan. Edozeinentzat irekia.

**Anixe Elkartearekin eskulan tailerra**

**Apirilaren 7tik 10era** haurrentzat. Izena martxoaren 31 baino lehen.

DONEZTEBE

**Barreterapia**

**Martxoaren 27an.**

LESAKA

**Oinarrizko argazkigintza digitalaz ikastaroa**

**Apirilaren 15etik ekainaren 3ra** Beti Gaztek antolatua. Izena: 689 285535.

## Kontzertuak

ELIZONDO

**Haur kantari jaialdia**

**Martxoaren 21ean** 18:30ean Lur Aretoan.

**Aralar Udal Musika Eskolakoen pop-rock kontzertua**

**Martxoaren 27an** Arizkunenean 18:30ean.

**Baztango Udal Musika Eskolakoen entzunaldiak**

**Martxoaren 30ean eta 31n** 17:00etan eta **apirilaren 1ean** 16:30ean Arizkunenean.

**Trikidantz taldea**

**Martxoaren 28an** Lur Aretoan.

**Korrontzi eta Guratz Dantza Taldea**

**Apirilaren 4an** Lur Aretoan.

DONEZTEBE

**Mendi abesbatzaren eskutik**

**Martxoaren 27an** Sacra musikaren kontzertua, elizan, 20:30ean.

BERA

**Bera kantari**

**Martxoaren 28an** Illekuetatik 19:00etan.

## Antzerkiak

IRURITA

**'Amodioaren ziega' helduendako antzerkia**

**Martxoaren 22an** Gizarte Bilgunean, 19:00etan.

## Ipuin-kontalariak

BERA

**4-8 urte bitartekoentzat**

**Martxoaren 27an** Ixabel Milletekin, Liburutegian, 18:00etan.

## Filmak

DONEZTEBE

**Zinema**

**Martxoaren 22an** *Dolittle doktorea 3* filma ikusgai (16:30).

BERA

**Dokumentalak**

**Martxoaren 23an** *Aulki hutsak* 17:00etan Beralandetan.

**Martxoaren 23an** Berako organoaren inguruko dokumentalaren aurkezpena, San Esteban elizan.

LEITZA

**'Loreak' filma**

**Martxoaren 22an** 19:30ean Zineman.

## Dantzak

ELIZONDO

**Bailableak Baztango dantzarien eskutik**

**Martxoaren 22an** 12:45ean plazan.

LESAKA

**Dantzaz konpainiaren ikuskizuna**

**Martxoaren 28an** *Itzalak-Txoriak; Arriaga eta Laboa, dantzaren*

### PROPOSAMENA

NAFARROA

**Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala**

Zortzi bertsolari ariko dira martxoaren 28an Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean. Elizondoko frontoian jokatuko da, 17:00etan hasita. Sarrerak salgai daude Elizondon Fantxiken eta Intza ostatuan, Lesakan okindegian, Leitzan Maimur liburu-dendan eta *www.bertsosarrerak.eus* atarian. 18 euro dira baina 12 euro Elkarteko bazkide eta 16 urtez azpikoek.



*bidez elkarturik*, Harriondoa Kultur Etxean, 20:00etan.

## Bertsoak

ELIZONDO

**Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala**

**Martxoaren 28an** Baztan pilotalekuan, 17:00etan.

IGANTZI

**Bertso afaria Korrika Kulturalaren baitan**

**Martxoaren 21an** Julio Soto eta Iker Zubeldiarekin (21:00).

## Azokak

ELIZONDO

**Baztango artisauak eta bertako produktuak**

**Martxoaren 21ean** 10:00etatik 14:00etara plazan.

SARA

**Artearen egunak**

**Martxoaren 27tik 29ra** Lur Berri gelan.

ELIZONDO

**Baztango artisauak**

**Apirilaren 2 eta 3an.**

BAZTAN

**Gasnaren Astea eta Udaberriko Feria**

**Apirilaren 2tik 10era.**

## Lehiaketak

BERROETA

**Argazki lehiaketa**

**Apirilaren 23ra arte** aurkez daitezke lanak.

## Ospakizunak

ARANTZA

**Korrika Ttikia**

**Martxoaren 27an** 16:00etatik aitzinera.

SARA

**Korrika datorrela eta poteoa eta gaualdia**

**Martxoaren 21ean** eusko poteoa Saranga txarangarekin, 18:30etik aitzinera. 22:00etan gaualdia Gaztetxean.

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua




CAN: eta hemen ez da ezer gertatu
JOXERRA SENAR
Pamiela, 2015

Eeta hemen ez da ezer gertatu. Nafarroako Kutxaren galeraren aitzinean, bertze aldera begiratu dute Nafarroako elite politiko eta ekonomikoek. Euren erabakien ardura isiltasunezko belo batekin estali nahi dute, baina liburu honek belo hori altxatzea du helburu. Nafarroako finantza erakunde nagusiaren hondoratzearen nondik norakoak azaldu eta arduradunak erretratatzen ditu Joxerra Senar kazetariak bere lehendabiziko liburuan. Bere irudiko, Francoren diktadura garaian eta ondotik, CAN Nafarroako elite ekonomiko eta politikoaren tresna izan da: «CAN erakunde garrantzitsua izan da Nafarroan agindu duten alderdientzat, eta orain ematen du hura galduta ez dela deus gertatu. Jarrera hori beraien erantzukizuna saihesteko asmo argi baten ondorio da. Baina Kontuz elkartearen lanak, zenbait kazetari eta komunikabiderenak eta gizartearen presioak behartu ditu azalpenak ematera». Erantzuleen zerrendaren «puntaren-puntan» Miguel Sanz jarri du idazleak.

### Musika




Anai Arrebak
ANAI ARREBAK
Bonberenea, 2015

Anai Arrebak taldeko kideek ibilbide luzea dute. Muturreko musika sortu eta hori hainbat tokitan erakutsi ondotik, 2010ean Anai Arrebak sortu zuten, rockeroak disko musika eginez. Euskal Herriko musika eszenari freskotasuna eman zion new-wave, disco eta post-punk proposamen vintage bezain berritzaile eta dantzagarriak. 2012an ezagutzera emandako lan luzeak dantza bai, baina bihotzekoak ekiditu nahiko balitu bezala, lehen lanaren urgentzia sakrifikatu eta dantzagarritasuna indartu zuen. Bi urte luze pasatu dira ordutik eta anai-arrebak diren horiek distortsio eta abiadura zoroaren aitzinetik izan zuten familia sustraien bila aritu dira. Eta erabaki dute propio duten energia sutsu hori baretzen ahalegindu eta barruan daramaten pop-a azaleratzea. Pop-a bai, ahots eta melodia itsaskorretan; musika beltza, dantzarazten gaituen alfonbran; elektronika, erritmo eta bultzada gehigarri horretan; rocka, ezkutatu ezin den DNAn...

### Internet



Euskal Herriko turismo eskaintza biltzen duen webgunea
WWW.BASKLINK.COM

Basklink Euskal Herriko turismo eskaintza guztia bildu eta promozionatzen duen plataforma digitala da. Aitzindaria da bide horretan, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako turismo-eskaintza osoa gune berean biltzen duen lehenbiziko ataria baita. Bisitariei zein euskal herritarrei zuzenduta dago, eta helburu nagusiak mugaz gaindiko turismoa eta barne turismoa sustatzea direla adierazi dute plataformatik. Webgunea atalka banatua dago. Alde batetik, Euskal Herrian barna egin daitezkeen ibilbide tematikoak kontsulta daitezke; bertzalde, informazioa eskualdeka ere ageri da; esperientziak eta lo eta jateko lekuak ere kontsulta daitezke; toki jakin batera nola iritsi daitekeen jakiteko azalpenak ere eskaintzen ditu web orriak; bloga ere badu... Eta informazio hori guztia euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez kontsulta daiteke.

ELIZONDO

**Baztango Gazte Eguna**

**Martxoaren 21ean.**

BERA

**Bertako hazien eguna**

**Martxoaren 28an.**

SUNBILLA

**Malerrekako herrietako eskolen V. Joko Topaketa**

**Martxoaren 31n.**

## Mendi ateraldiak

BAZTAN

**Korrika Kulturala**

**Martxoaren 19an** Elizondotik Urepelera,09:00etan abiatuta.

**Baztango Mendigoizaleen irteera**

**Martxoaren 29an** Almandoztik Gartzagara, 08:00etan abiatuta.

ETXALAR

**Zapingorri taldearen ateraldiak**

**Martxoaren 22an** Bonozorrotzera.
**Martxoaren 29an** Alkurruntzera.

DONEZTEBE

**Malerrekako Gure Esku Dago lantaldearen ateraldiak**

**Martxoaren 21ean** Mendaurrera.
**Martxoaren 29an** Leurtzara.

LESAKA

**Hondarribitik Donostiara**

**Martxoaren 29an.**

SARA

**Sarako mendi lasterketa eta martxa**

**Martxoaren 29an.** Lasterketa 09:00etan hasiko da eta martxa 07:30etik 08:30era.

## ETXEBIZITZAK
### salgai

**ORONOZ-MUGAIRI**. Etxebizitza salgai, 60 m²ko bajerarekin. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Bajera eta etxea elkarrekin. 112.000 euro negoziagarriak. Nahi izanez gero, aparte ere salgai. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. ☎646 774117.

**ORONOZ-MUGAIRI**. Etxebizitza berria, mobleztatua, igogailua eta berogailuarekin. Logela bat, bainugela bat, sukalde-egongela eta trastelekua. 72.000 eurotan salgai edo 300 eurotan errentan emateko. ☎626 463576.

**BERA.** Altzate karrikan pisua salgai, zaharberritzeko. ☎948 630446 / 635 729858.

**ELIZONDO**. Etxebizitza salgai Abartan Karrikan. Berogailua, igogailua eta garajearekin. ☎606 412868.

# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

**info@ttipi.eus** edo **erran.eus**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

**TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik**

**GOIZUETA.** Eguzki-Leku etxea salgai, bi bizitza egiteko aurreproiektuarekin. ☎649 753484.



## ETXEBIZITZAK
### errentan emateko

**DONEZTEBE.** Duplexa errentan emateko. Sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. 350 euro. Pisua estrenatzeko dago. ☎674 847735.



**ETXALAR.** Larrapil Sarriku karrikan etxea errentan emateko. Herriko bista zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handia. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 688 842054.



**ELIZONDO.** Pisua errentan emateko. 3 logela, mobleztatua eta kalefakzioarekin. ☎676 707620.

**LESAKA**. Etxebizitza errentan emateko. 4 logela, egongela, komuna eta sukaldea. 3. solairua



eta dena kanpora begira. 100m². Bitartekorik gabe eta momentuan sartzeko prest dago. 450 euro hilean. ☎686 378154.

**DONEZTEBE.** 2 logelako pisu argitsua errentan emateko. 300 euro. ☎667 334139 / 618 834892.

**SANLUCAR DE BARRAMEDA** (Cadiz). Atikoa errentan emateko, garajearekin. Erdigunean. Egun-data interesgarriak: apirilean Sevilla, maiatzean Jerez eta Rocioa, ekainean Sanlucar de Barrameda... ☎618 962650.

**BERA.** Etxebizitza errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, berogailua, trastelekua. ☎678 363398 / 678 305250.

**IRUÑEA**. Txantrea auzoan logela bat errentan emateko. Pisukide euskalduna eta Iruñeko erdigunetik 10 minutura. Nahiko alokairu merkea. ☎653 385136.

## ETXEBIZITZAK
### errentan hartzeko

**BERA.** Herri erdian etxebizitza errentan hartuko nuke. Beheko solairuan eta lur eremu ttiki batekin. ☎ 620 848111.

## ETXEBIZITZAK
### konpartitzeko

**BERA.** Neska edo mutila behar da Agerran pisua konpartitzeko. Pertsona ordenatua eta arduratsua. ☎662 585965.

## GARAJEAK/LOKALAK
### salgai

**LESAKA.** Eltzetako plazan lur azpiko garaje itxia salgai. ☎646 774117.

**ELIZONDO.** Braulio Iriarte karrikan lokal komertziala salgai. ☎606 412868.

**ELIZONDO.** Erlategi Karrikan garajea salgai. ☎606 412868.

## GARAJEAK/LOKALAK
### errentan emateko

**LESAKA**. Eltzeta karrikan 2 lokal, bakoitza 44m²koa, errentan emateko. Aukera dago biak batera (88m²) edo bakarra (44m²) alokatzeko. ☎600 657020.



# BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(otsailaren 27tik martxoaren 6ra bitarteko prezioak)



## ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 47 € (+5,00)

**Zerri gizena**
1,133 € kiloa. (+0,020)

**Zerramak:**
0,450 € Kg/bizirik. (+0,020)



## BEHIKIA

**Aretze gizenak:**

| **Idixkoak:** | **€/kg. Kanal** |
|---|---|
| **Extra** | 4,16 |
| **1.koa** | 4,96 |
| **2.koa** | 3,78 |
| **Urruxak:** | **€/kg. Kanal** |
| **Extra** | 4,26 |
| **1.koa** | 4,00 |
| **2.koa** | 3,83 |

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**
urruxak 120,00
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**
urruxak 140,00
idixkoak 160,00

**Zaldikoak:** €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k
6-8 kilokoak: 5,90/6,50
8-10 kilokoak: 5,50/5,70

**IRUN**. Ostatua errentan emateko. Geltokia eta Zona Limite diskotekatik hurbil. Hirigunean. Ekipatua. Prezio negoziagarria. ☎636 858512.

## GARAJEAK/LOKALAK
### errentan hartzeko

**BERA**. Bajera bat errentan hartu nahi da. ☎637 225587.

## LURRAK/ORUBEAK
### salgai

**BERA**. Etxea eraikitzeko partzela urbanizatuak salgai. Deitu 18:00etatik aitzinera. ☎618 963226.

## LANA
### eskariak

Etxeko lanak egin eta adinekoak eta haurrak zaintzeko **emakumea** prest dago. Esperientziaduna. Ahal bada goizez. ☎948 630914 / 678 903294.

**ARANTZA**. Neska bat etxeko lanetan, zerbitzari, sukaldari laguntzaile, umeak eta adinekoak zaintzen ariko litzateke. ☎606 304610.

**BAZTAN, MALERREKA, BORTZIRIAK**. Mutil euskalduna orduka edo lanaldi osoan aritzeko prest dago; sukaldean eta barran esperientzia, jendarterako dohainekin. Ordutegi zein egutegi aldetik malgutasun erabatekoa. ☎948 453228.

**Hemengo neska euskalduna** haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten ariko litzateke. Esperientziarekin. ☎616 037637.

**IPARRALDEA eta IRUÑEA ALDEA**. Emakumea interna bezala lanean ariko litzateke: etxeak garbitu, haur edo helduak zaintzen. ☎605 527716.

**BAZTAN, DONEZTEBE...** Pertsona helduak zaindu eta ezintasunen bat duen jendea zaintzeko eta ostalaritza lanetarako emakumezkoa prest. Mantentze lanak egiteko ezagutza ere badu (margotzeak, lorezaintza...). ☎677 643475.

**Neska euskaldun** batek dendan esperientziarekin, umeak zaintzen edo bertze edozein gauzatan lan eginen luke. ☎687 222320.

## LANA
### eskaintzak

**ZUGARRAMURDI**. Kattalin jatetxean frantsesa dakien eta esperientzia duen zerbitzaria behar da. ☎948 599146 / 948 599009.

**IBARDIN**. Arropa eta zapata-dendan lan egiteko lagun bat behar dute, esperientzia duena eta frantsesez dakiena. Bidali curriculuma: *beo laetxea@gmail.com*.

**IBARDIN**. Benta batean zerbitzaria behar da egun erdiz lan egiteko. Esperientziarekin eta frantsesez dakiena: Bidali curriculuma: *beo laetxea@gmail.com*.

**URDAZUBI**. Ikaburua jatetxean, igande eta jaiegunetan lanean aritzeko zerbitzaria eta fregaderan aritzeko pertsona bana behar dira, 12:00etatik 16:00etara. ☎948 599222.

**URDAZUBI**. Montxo jatetxean emakume sukaldaria behar da. Esperientzia duena. ☎948 599039.

**Baztan Ikastola**ren errelebo kontratua betetzeko eta lan poltsa osatzeko deialdia. Lehen Hezkuntzako irakaslea ingeleseko B2, C1 edo Hizkuntz Eskolako maila aurreratua dutenak edo ingelesa espezialitatea duten irakasleak. Eskaerak martxoaren 30era arte Baztango Udaletxean, astelehenetik ortziralera 09:00etatik 14:00etara.

## ZERBITZUAK
### klase partikularrak

**ELIZONDO**. Gainditu ingelesa! 2015eko martxotik maiatzera Elizondon. Astelehenetan 17:30etik 19:00etara edo 19:00etatik 20:30era. Apuntatzeko epea martxoaren 8tik 16ra. ☎659 948926 / *diana iniesta@hotmail.com*.

**IGANTZIKO UDALA**

**LA VILLA ostatua eta jatetxearen errentamendua**

Igantziko Udalak erabaki du herriko ostatua den La Villan taberna eta jatetxe zerbitzua errentan emateko prozedura irekitzea.

Administrazio baldintza partikularren agiria interesdunen eskura dago Udal Idazkaritzan.

Igantzi, 2015.03.06

Alkatea, M. Lourdes Ibarluzea Irureta

## ZERBITZUAK
### zurgindegiak

ARANTZA Zurgindegia
· Klase guzietako zurgin lanak
· Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 · 647 810 144
Gorritibaita · ARANTZA

## ZERBITZUAK
### denetarik

**SUNBILLA**. Nire etxean, 0-3 urte bitarteko haurrak zaintzeko zerbitzua eskaintzen dut. ☎678 537607.

## MOTORRAK
### tailerrak




## MOTORRAK
### salgai

**Suzuki Burgman Ejecutive** 650 c.c motorra salgai. 16.000 KM. 2005. urtekoa. Egoera bikainean. Erabilera ezagatik salgai. ☎689 702441.






**ETXALARKO UDALA**

**HERRIKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA**

Udal honek lehiaketa irekirako deia egiten du *Herriko ostatu eta jatetxea* errentan emateko.

- **Errentamenduaren iraupena**: 5 urte, luzagarria.
- **Hileko errenta**: 365,00 euro + BEZa. Hau izanen da hasierako prezioa.
- Lehiaketan baloratuko dira ustiapen proiektua eta eskaintza ekonomikoa.
- **Behin-behineko fidantza**: 600,00 euro.
- **Aurkeztu beharreko agiriak**: Baldintza pleguan adierazten direnak.
- **Proposamenak aurkezteko epea**: 2015/04/10eko 14:00 arte.
- Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaletxean eta udalaren web orrian (www.etxalar.org)

Etxalar, 2015eko otsailaren 28an
Alkatea, Miguel Mª Irigoien Sanzberro

## ANIMALIAK
### salgai

**Behor** ttikia eta mantsoa salgai. ☎687 950373.



**ETXALAR**. Behi ernaria eta urte bateko miga salgai. ☎948 635182.

**Hiru ahari mutur gorri** salgai, gazteak. ☎697 440590.

**Bi asto** eder salgai, ama kumearekin eta ernari. Prezio negoziagarria. ☎690 181644.

Basurde ehizako bi hilabete eta erdiko **zakurkumeak** salgai. Aita sabueso eta ama grifona. Desparasitatuak, txertatuak. 120 euro. ☎637 466110.



Merkatu Ttikiko iragarki gehiago hurrengo orrialdean
ttipi-ttapa

ttipi-ttapa | 634 zk.
2015.03.19

# urtebetetzeak

Argazki soila: **4€**; bikoitza: **8€**
Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,38€ko 11 edo 22 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez


Arantzako **Alazne Baleztena Goñik** 3 urte bete ditu martxoaren 14an. Zorionak familia guziaren partetik!


**Udane Garmendia Irigoienek** urtea beteko du martxoaren 20an. Aunitz urtez eta muxu potolo bat gure neskatxa alaiari Oier, Enea, Ainere, Alaitz, Ane, Ioritz, Intza, Aroa, Beñat, Elaia, Ekaitz eta Ibairen partetik.


**Anartz Ezkurra Sanz** sunbildarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 9an. Zorionak Leitzako familiaren partetik. Gure etxeko pailazoarentzat muxu bat.


Leitzako **Oihan Baraibar Loiarte** gure pottotto haundiari zorionak bost urte egingo dituelako martxoaren 18an. Muxu asko asko.


**Ane Telletxeak** 13 urte beteko ditu martxoaren 18an. Zorionak familia guztiaren partetik eta egun on bat pasa dezazula.


Nire osaba **Joxe Mari Elizondo Segurolak** urte pila bat beteko ditu martxoaren 23an. Aunitz urtez osaba! Amonarekin batera bazkari goxo-goxoa prestatu eta postrerako helatua ez ahantzi!


Amona **Anttonik**, osaba **Joxe Marik** eta **Izeik** 167 urte beteko dituzte martxoaren 13, 16 eta 23an. Mila zorion hirukote familia guztiaren partetik!


Zorioonaak **Ainara**! Ongi pasa zure eguna eta afari goxo-goxo baten esperoan gelditzen gara. Muxu haundi bat familia guziaren partetik eta berexiki bi muxu haaundi Leiane eta Naikari alaben partetik!


Zubietako **Eñaut Babaze Salaburuk** martxoaren 21ean 3 urte beteko ditu. Muxu haundi bat Iruritako amatxi eta izeba-osabaren partetik. Ongi pasa eguna!


Zubietako **Eñautek** 3 urte beteko ditu. Muxu haundi bat atta eta amaren partetik. Ongi pasa eguna!


Berako **Xuane Altzuguren Iratzokik** urtea eginen du martxoaren 23an. Zorionak familia guziaren partetik eta berexiki Maddalen, Julene eta Gorkaren partetik.


Narbarteko **Iraia Martin Argainek** martxoaren 24an 3 urte beteko ditu. Zorionak etxeko printzesa politenari eta 3 muxu familia eta berexiki Juneren partetik!


**Eñaut Babaze Salaburu** zubietarrak 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez morroxko eta muxu potolo-potolo bat atautxi, amatxi, izeba-osaba eta berexiki Luaia eta Egoi lehengusuen partetik. Berendu goxoaren esperoan gaude.


Erratzuko **Iker Iturburua Jaurena** eta **Enaitz Bikondo Jaurenak** martxoaren 11n eta 18an urteak beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Aritz eta Naroaren partetik.


Aunitz urtez **Joxema**, martxoaren 16an urteak bete dituzulako. Berandu baina seguru gabiltza e! Gosariarekin oroitu ginen... Jijiji!


Gure lesakar *padrazoak* urteak bete ditu martxoaren 16an. Aunitz urtez **Aitor**! Seguru gaude ongi ospatu izanen duzula!


Aunitz urtez **Ainara**! Hemen ez egonagatik zer uste zenuen atzenduko ginela? Ez, ez! Ongi pasa eguna, konpaina ederrean zaude eta!


Arantzako **Ainhize San Juan Tabernak** 7 urte beteko ditu martxoaren 6an. Zorionak familia guztia eta berexiki Enauten partetik. Muxu haundi bat, polita.


Zugarramurdiko **Maialen Etxabe Olagaraik** 11 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak familiaren partetik!


**Alazne Altxu Mitxelenak** 4 urte beteko ditu martxoaren 31n. Aunitz urtez familia guzia eta berexiki Eñaut, Oier, Aratz, Intza eta Ainhizeren partetik.


Etxalarko **Julene Danboriena Ibarrak** 5 urte beteko ditu martxoaren 19an. Zorionak eta muxu bat gure nexkatxa alaiari familiaren partetik.


Aurtizko **Ekiñe Mindegiak** apirilaren 2an urteak beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta berexiki Leiane eta Naikari iloben partetik. Zorionak izeba! Berendu goxoa prestatu!


**Asier Telletxea Rekartek** 3 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak moñoño! Zure familiaren partetik.


**Malen Iparragirre Oteizak** martxoaren 20an 2 urte beteko ditu. Ongi pasa printzesa! Larunbatean giro ederrean ospatuko dugu. Marrubizko muxuak etxeko guztien partetik.

hemen agertu nahi duzu?
egin zure erosketa erran.eus-en
argazki soila 4 EURO
aldizkarian eta interneten
argazki bikoitza 8 EURO

# MERKATU TTIKIA

## ANIMALIAK
### oparitzeko

**LEITZA.** 3 zakurkume oparitzeko, ardi zakurrak, hilabete batekoak. ☎948 510224.

## DENETARIK
### salerosketak

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

**Ile naturala duen peluka** salgai, gaztaina kolorekoa eta sorbaldarainokoa. Sare berezia du, ona da eta onkologiarako egokia. ☎609 083342.

Estreinatu gabea dagoen Pioneer markako **Home Cinema** salgai. Ekipo bikaina. Prezio hagitz ona. ☎629 734263 (Arratsaldetan).




**Bigarren eskuko jostekomakina** nahi dut. ☎662 585965.

Zortzi **marmolezko mahai** salgai, zortzi lagunendako (oktogonalak). ☎948 585036.

Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

**ORONOZ.** Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.





**Gurpildun aulki elektrikoa** salgai. Berri-berria. Rumba Quick markakoa. Prezioa ezin hobea! ☎635 875730.



**Gasezko sukalde industriala** salgai. ☎948 585036.

## DENETARIK
### galdu-aurkituak

**DONEZTEBE.** Zabala enpresaren parean Sony Xperia L sakeleko telefonoa agertu da. ☎649 901395.

# Bagoaz, baguzi, bagazi
# ttipi-ttapa haziz!

zuk 50€ ttipi-ttapari
ematen badizkiozu
40€ berreskuratuko dituzu
2015eko errenta aitorpenean

% 80ko desgrabazioa
errenta aitorpenean

AUKERA BERRIA!
DAGOENEKO ZURE ESKURA!!!

28.000 irakurle

40€ berreskuratzen dira
ERRENTA AITORPENEAN

Nahi duten guztiek kolabora dezakete

…eta zure ekarpenekin
zer eginen du Ttipi-Ttapak?

- Aldizkaria hamabostero argitaratu eta zure etxera eraman
- Web orriaren eta sare sozialen bitartez egunero informazioa zabaldu
- Eskualdeko berriak landu…

## ETA GUZTIA
## EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

ttipi-ttapa

MEKNA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Malerreka, Bertizarana, Baztan, Urdazubi eta Leitzakoa bazara guk deituko dizugu.
Gainerakoak informazioa lortu nahi baduzue deitu **948 635 458** telefono zenbakira edo gurekin harremanetan jarri **bagoaz@ttipi.eus** posta elektronikoan




## ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7 LESAKA
T. 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eus
www.ttipi.eus

# ZOZKETAK

**633. ALEKO IRABAZLEAK**

2 SARRERA | Sorginen Lezeak
Felisa Goienetxe | **IGANTZI**

MARTIKO LOTEA
Jose Mª Danboriena | **ETXALAR**

BIZIPOZA CDa | Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Fermin Bereau | **IGANTZI**

2 LIBURU | Elkar argitaletxea
*"Rita Erraldoia"* Gurutze Graziarena | **BERA**
*"Diamantezko miraria"* Mentxu Peña | **ARANTZA**

2 SARRERA | Irrisarriland
Mª Jose Eugi | **IGANTZI**

2 SARRERA | Aquariuma
Pedro Mª Esarte | **ELIZONDO**

**1**

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA Elizondoko finalerako
2 sarrera bikoitz | www.bertsozale.eus




nafarroako bertsozale elkartea

**2**

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



onddo ta punto.

**3**

2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
*"Heriovilleko sekretua" | "Iker ikerlaria"*
www.ibaizabal.com




ibaizabal

**4**

Gu ta Gutarak DVDa + CDa
Lanku
www.lanku.com

Lanku




**5**

2 SARRERA
Lesakako Udal Igerilekua
www.lesakakoudalkiroldegia.weebly.com




LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

**6**

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com

AQVARIVM DONOSTIA / SAN SEBASTIAN




# DESKONTUAK

**DATUCELAY**
ELIZONDO SEAT
%10 bateria eta amortiguadoretan

Mari Cruz LENTZERIA
DONEZTEBE | ELIZONDO
%10, 30€tik gorako gastuan

JUAN J. PICABEA
DONEZTEBE
%10, marka batzuetan ezik

EZ Zaldúa fotógrafo
ELIZONDO - SANTESTEBAN
DONEZTEBE | ELIZONDO
%10 produktuetan

POSADA OITZ
OIZ
%10eko deskontua

intzuri OPTIKA
LESAKA
%5 produktu guztietan